

IGANDERO'KO

ATV
602

BERIONA

IRURETAGOYENA'tar JON

APAIZAK

EGIÑA

I



EUZKO ARGITALDARIA

ZELAIA eta LABUNAK

ZARAUTZ

1932

607

M. 4131
R. 666

A.T.V
607

IGANDERO'KO



BERIONA

IRURETAGOYENA'tar JON

APAIZAK

EGIÑA

I



EUSKO ARGITALDARIA

ZELAYA'ta LAGUNAK

ZARAUZ

1931

NIHIL OBSTAT

CENSOR

Emmanuel a Lecuona.

IMPRIMATUR

VICARIUS GRALIS

Dr. Justus de Echeguren.

NERE OSABA - IZEBA

ta nere mesa-beñiko aitajaun-amandre

diran

P. Agote'tar Joaquin

eta

Martiartu'ren Lapatza'tar Josepina

Jaun - Andre Agurgarñai

biotz - biotzez eskeintzen die

bere lantxo au

EGILEAK.

ITZ BI

*Ene irakurle adizkide: Jaunak igandero bidaltzen dizkidan entzuleai, Beñionaren irakatsi sakon-amaigabetatik izpi batzuek eralkitzen urte txorta batean jardun natzaie. Orain uste izanik zerbait geiago aizetaratuta on egin lezaketela, ez nere lanaren egokitasunagatik, baizik **Beñion-etiko** txinpertatxoak diralako, araitxoar azalera bezela, ni ere bildur samarean eguzkitara somatzen ausartu naiz.*

Len ere badira euskeraz Beñionaren azalpenak, baño ez nai aña, aspaldiko urtetan apaiz euskaldun jakintsuak eta eliz mintzalari nabariak izan aren, beren lan mamitsuak, onenean apaltasunez, argitatzera jafi ez ziralako.

*Gaur egunean, ene apaizkide arduratsu oiek, alde askotara jo bearean gaude gure Jaungoikozko langintzan eta baliteke noiz edo noiz nere lantxo au zuen nekeen aringarfi izatea ta onen bidez **Espiritu** Donearen guen (grazi) izpitxo bat jetxiko balitz bein edo bein zuen entzuleren baten biotzera, zorionekotzat artuko nituzke nere arazo guztiak, zuek dakizute, bada, nik baño obeto guen printzatxo baten ajola.*

EGILEAK.

ETORKUNDE'KO

I IGANDEA

Luk. Don. XXI bur. 25-33. esan.

Aldi artan: Jesus'ek bere ikasleai auxe esan sien: Eguzki, ilargi ta izařetan oarkizunak izango dira, ta legořean gizonak laři egongo dira itsaso ta uiñen ořu ikaragařiakatik, ta luřean gertatu bear dutenen zai ta bilduřez. Txiorřuta geldituko dira gizonak, ortziko (zeru-goietako) indařak kolokatuko dira-ta. Orduan ikusiko dute gizonaren Semea almen eta ospe aundiaz odei gañean etortzen. Jasoera auek ordea gertatzen astean, jeiki zuen buruak eta begirazute; zuen berteroskuntza uřean da-ta. Eta inili (similitudinena) au ezan zien: Begira pikondo, ta zuzgaz guztiai: igalia ernetzen dutenean, badakizute udara laister dala. Onela zuek ere jasoera auek gertatzen ikustean, jakizute Jaunaren aberia uře dala. Ziñez dasaizuet: ez da eřaldi (gizaldi) au igaztuko, guzti auek gertatu arte. Ortzi-luřak igaztuko dira, nere itzik ordea ez da galduko.

Eliz urtearen eta Jesukristo gure Jaunaren etořerako garai-aldi berezi baten lenengo egun eta igandea da gaur eta garaialdi berezi onek Etorkunde edo Abendua izena du. Abendu aldi onek lau aste ditu ta Eliza Ama Doneak Jaungoiko Semearen jayotza egunerako, Egoaři-jai aunditarako, ongi gertutzeko edo preparatzeko jařiak dira, Aste Done'ko egun aundietarako ongi gertutzeko, garizuma edo barautea jařia dagoan bezela.

Gizon menak burua erabiltzen duanean zerbait egiteko, azkenez nai duan elguneari begiratzen dio, ura iristeko bear di-

tuan bideak aukeratzeko; era onetan Jesukristo gure Jaunak sortu zuan Eliza Ama Doneak ere bere naia iristeko, bere urtearen lenengo egun eta igandean azken epaieguna gogorazten dio gizonari bere oroipenaren argitan bide men, zur eta onak artu ditzan eta bide oien bitartez beren azken on eta zoriona irabazi dezan.

Ikusi ta gogora dezagun, bada, ondo gaurko Beñon au, Eliz urtearen lenengo egun onetan asmo ta erabaki zuzen eta sendoak artu ta auen bitartez azken on eta epaiegun zoriontsu bat izatera eldu gaitezten.

Ikaragañiak izango dira nolana ere, azken epaiegunaren urteko egun aietan, Jesukristo gure Jaunak aurrealde adierazi zizkigunez, gertatuko diran gertakizun lañi aiek. Zeruetan eta lurrean ezaupide edo iragarkizunak (señaleak) izango dira. Goietan eguzkia ilundu egingo da, ilargiak ez digu eguzkitik artzen duan argirik emango, izartegian ez da dizdiz izpirik ageriko ta ilunpe beltzak lurtzabal guztian nagusituko dira. Gizadian ere gudate gogofak eta auen bidez gosete ta izuñi goñiak sortuko dira, nun nai eriotz ikaragañiak zabalduaz.

Gizonak bere burua ezpear eta zorigaitz aundi aien erdian ikustean, lurtzabalera datoñen naspil aundi ura somatzean, beren buruak ilunpetan daudela izañen 'dardar eta grakateko izugañiak entzutean, goietan etenda beren buru gañera datoñela uste izanaz, irudituz, itsasoaren izugañisko oñuak entzutean, lufikararen bidez etxe ta jauregi bikañak luferratu ta eñi osoak ondatzen ikustean, beren buruak ondamen, negar eta eriotzaz inguraturik iñorako igesbiderik gabe ikustean, ikara lañiaz txigorturik geldituko dira, ta bilduñaz iñon atsedetik arkitu ezinik, alde batetik bestera iges egin naiko dute, ta beren buruai eriotza opako diote luferra datozen ezpear eta ondamenak ez ikusteañen.

Onetan azkeneko eguna etoñiko da gizonarentzat, eta lurreko ilunpe beltz-beltzak, zerutik jetxiko dan sute aundi batek argituko ditu ta su añigañi oñek lurtzabal guztia ta lufeko izaki guztiak zearo eñe ta kiskalduko ditu auts biurtzerañe.

Onelaxe amaituko da ain afigari zaigun lurbira eder au, onela amaituko dira ainbeste txoratu ta itxutzen gaituen izaki aize ta laburak, onelaxe amaituko dira Jaungoikoaren adizkide-tza, Jaungoikoaren esan eta agindutatik alderazten gaituen atsegin eta uskeriak: guztiak efe, kiskaldu, ondatu ta auts biurtuak geldituko dira.

Atoz, bada, orain pekataria, atoz nerekin eta bila ditzagun zure pekaturako bide ziran izaki, notin edo persona, irakurgai jolas, ikuskizun, eta leku oiek, atoz ikusi ta bila ditzagun. *Ubi sunt dii tui, quos fecisti tibi.* ¿Nun dira zure biotzaren erditik Jaungoikoa jaurti ta bialdu azi ta bertan nagusitu ziran zorakeri aiek? ¿Nun dira orain azalez ain eder eta atsegin, eta mamiz ain garatz eta ezerezak gertatu zaizkitzun zure lagun eta adizkide pekatariak? Oía or guztiak auts biurturik. ¿Nun dira ikuskizun lotsagarí, dantza lotu, irakurketa loi, jolas eta ibilera lizun eta izketa lerdetsu aien leku labañak? Begira, or guztiak efe ta kizkaldu ta auts eginda. Igazi ta amaitu ziran betiko. ¿Nun dira zure aragi tzañak Jaungoiko egiteañen erabiltzen zĩñun apainkeri loi-nabarmen aiek, nun zure buru utzañoa lizunkeriz beterik ainbeste ta ainbesteri pekatu eragiteko bidez jartzen zuten soñeko soil-erdibiloitz aiek?

Begira, oía auts biurturik, or arkituko dezu zure buru año, aize ta aundi-nai ori ere, or ikusiko dezu zer zeran gaiztakeri esigabez iraintzen dezun Jaungoiko ta Nagusi guzieldunaren aũean.

¡Ai zure apainduri eder eta soñeko ikusgaríak neuñi onez egiñak, eraz eta begirunez jantziak izan baziran! ¡Ai zure apainduri ta edertasunak gizon eta pekatarien biotzak Jaungoikoagana jasotzeko eran erabiliak izan baziran, era onetan Ama Birgiñaren antzeko alaba apain eta zintzoa erabat izanik! ¡Bai poza izango zala orain zurea! ¡Bai biotzaren betea izango zenula orain betiko zorionaren atetan! Baña egiña egin, orain ez da geiago gure okeñak zuzentzerik izango.

.

Gaurko Beñion doneak edo Ebanjelioak aitatzen duan ondamen izugafi au gertatzen danean, eldua izango da azken epaieguna. Une lafi au eldutzen danean, Jaunaren aingeruak turuta edo tronpeta afigafi bat joko du ta bere ofua ta otsa lufaren lau egaletan entzungo da, ta ofu arek: *Surgite mortui, venite ad iudicium* (S. Jer. Reg. Non. I, 30) dei egingo du: Ilak jeiki zaitezte, atozte epaira. San Jeronimo aundiak esaten du, epaieguna gogoratzen zitzaion bakoitzean, dardar egiten ziola ikaraz gorputz guztiak. Jaunaren aingeruak joko duan turuta edo tronpetaren ofu ikaragafi ura beti entzuten zegoala uste izaten zuan, entzunaz: Ilak jeiki zaitezte: atozte epaira.

Turutaren ofu ikaragafi onek lurbira guztian bufunda ateratzen dunean gizadi guztia, gizon guztiak piztu ta jeikiko dira, baña ez dira guztiak tankera berdiñean jeikiko. Onak, kristau leyalak izanaz il ziranak, zorionez beterik ertengo dira beren obietatik; beren gorputzak argiak, edefak, biziak eta pozkiroak izango dira, beren lengo bizitzako lan, neke, ta gañastazun aiek guztiak bedeinkatuko dituzte, ta pozik joango dira epaitegira beren betiko sari bikain ura artzera.

Gaiztoak, beñiz, beltz, itsusi, beren pekatuen satarkeri guztiak agerian dituztela jeikiko dira. Ez luteke animak eta gorputzak alkartu nai, baña nai ta nai ez batu beañean arkituko dira. Orduan biak erasoko diote alkañi; madaritua, esango dio animak gorputzari, ire lizunkerik ta geiegikeriagatik orain betiko ondaturia nagolako; madarikatua, esango dio gorputzak animari, ire gogorapen eta naikeri zital-lasaigatik orain betiko ondamenaren azpian gelditu naizelako. Madarikatua, esango dute biak, nere aita, bear bezela kristau bidean ezi ez nindualako, madarikatua nere ama, nere soñeko lizun aiek jazten oitu ta loikeri bidean jañi nindualako; madarikatuak nere adizkide gaiztoak bide txafetara eraman eta pekatu egiten erakutzi ziratelako. Eia naiago luteke orduan mendiak beren gañera erori ta zapaldu ta bertan lertu, epai zoñotz eta ikaragafi artara azaldu baño. Ala ta guztiz ere Jaunaren aginduak beartuta, an joan bearko dute guztiak,

epailekura, onak pozez beterik bezela, gaiztoak ere atsekabe gañatzez mindurik.

Guztiak bilduak daudenean, zeruetako ateak irikiko dira zabal-zabal eta an agertuko da Jesukristo gure Jauna argitasun ete zorionez beterik, gurutze donea eskuan duala, bere zaurietatik argitasunik ikusgañienak edatuaz, aingeruz eta goiangeruz ingururaturik, eta eskualde ta aunditasunik goienaz odei eder-argi baten gañean jetxiko da. Odei argi ura bera epaitegitzat duala liburu aundia irikiko du ta an ikusiaz epaituko ditu guztiak. An azalduko dira orduan guztien aúfean barkatu gabeko gure oker eta gaiztakeri guztiak, gure egite, gogorapen, gogo ta itz txar guztiak eta epaitu ala, aingeruak batzuek eskubitarra ta besteak eskeñetara banakatuko dituzte, batzuek betiko zorionerako ta besteak betiko leizbeltzerako.

Ikuskizun pozgañia alde batetik eta ikararagañiro negargañia bestetik. An ikusiko dira azkeneko aldiz orain adizkidetasun eta batasunik aundienaz bizi diran asko. Askotan senaía alde batean egongo da, emaztea bestean, anaiak alde batean eta añebak bestean, gurasoak alde batean eta semeak bestean. Egun ikaragañia, ta askotan begiratzan zaion baño obeto ta geiago begiratu bear litzaiokena, ene entzule maite-maiteak.

Oñela amaituko da, bada, aingeruen banatze ori, ta bakoi-tza jañia geldituko da bere aldean, gaiztoak eskeñetan eta onak eskubitan. Orduan Jesukristo gure Jaunak gaiztoakana itzulirik tximistak aterako dituan begiratu zoñotza jaurtiko die, onela itzegiñaz: *«Zuazte ningandik madarikatu oiek,»* nik eman nizuten bizia, nik egin ziñuztedan nere irudi ta antzera, zuek zeruratzeañen etoñi nitzan luñera ta nere odol guztia ixuri nuan eta ala ere luñean bizi ziñatenean ez zenioten nere aginduai ajolik egin, neri iñi, pañe ta iseka egin zenidaten, elizkizunetara joaten lotsatu egiten ziñaten; zuazte orain nere aúfeko aldetik madarikatu oiek, zuazte emendik betiko sutara, eñe ta kizkaltzera, ni lotsatzen naiz orain zuen aúfean egoten, zuazte, bada, betiko nere begien aúfetik, madarikatu oiek.

Gero eskubiko onen aldera begiratu gozo-alai batez begiraturik onela itzegingo die sarmur-samur: Atozte nere maitekutun oiek, nere Aita Betikoaren seme onetsi oiek, atozte zuentzat daukaten betiko zoriondegira, atozte zuen egite onen bidez irabazi dezuten betiko lairon eta zoriona artzera. Eta orduan zoriontzuak kantatzen asiko dira Kristo Efégeri ta zerura pizkanaka igotzen asiko dira Jesukristo aúfetik dutela zorionez beterik; eta au ikustean gaiztoak aien zorionaren miñez eta jofez ezin egongo dira ta damurik gaíatzenaz beterik esango dute: Oía, oiek dira guk luíean páfe ta iseka egiten genionak, zortzat eukirik; beren bizibide zintzo ta elizkoi ura txepelkeritzat arturik, eta oía orain oiek zorionez beterik eta gu betirako ondatuak. *Ergo errabimus a via veritates.* Agur gure egizko bidea utsegin genduan eta ez dago orain gure okeía iñola ere zuzentzerik. Eta zoriondunak kristo Efégeri gorak, aleluiak, aupadak eta zorionak abesten dijoazen bitartean, gaiztoak estemiñik aundienaz gaíazten egongo dira ta onetan luía grakateko aundi bat egiñez bi zatitan irikiko da ta guztiak ofuka, deadarka ta kaíaxika betiko leizbeltzera jausi ta amilduko dira, antxe su ta gaíetan miñez efe ta kizkaltzeko, egundo geiago ertetzeko itxaropenik gabe.

¿Nora juango zerate, ene entzule maiteak? Zuek nai dezuten tokira, lekura. Betiko zorionera joan nai badezute Jaunaren lege ta aginduak betetzea naikoa da, betiko zuen buruak ondatu nai badituzute, beíiz, ez dago bide egokiagorik Jaungoikoaren agindu auek zabarkeriz utzi ta bastartzea baño.

Baña ez aztu, ene entzule maiteak, naiz batera, naiz bestera joan, beti-betirako da, ez ogei, eun, miloi bat urterako, baizikan betiko.

Jaunak artu gaitzala, bada, egun artan bere zorionean.

Ala izan bedi.

ETORKUNDE'KO

II IGANDEA

Mat Don. XI bur. 2-10 esan.

Aldi artan: Juan'ek itxitegian Kristo'ren egiñak jakin zituanean, beretako ikasle bi bidalirik, esan zion: «Zu al zera Etortzekoa, ala beste norbait da itxaroten deguna». Eta Jesus'ek erantzunaz esan zien: «Zuazte ta adierazi ezaizkiozute Joan'i entzun eta ikusi dituzutenak. Itxuak badakuste, eñenak badabil-tza, legerdunak garbitzen dira, goñak badantzute, ilak pizten dira, beartsuak beriontzen dira: ta zoriontsua nigan gaitzik ez dakuskina. Aiek bazijoazela, ordea, Jesus Joan'ekiko mintzatzen asi zan gizataldeari: «Zer ikusteko asmotan basoratu zerate? Aizeak darabilen seskaren bat? ¿Zer ikustera erten zerate ordea? Lerdenki jantzitako norbait? Jauregietan egon, ordea, lerdenki-ro apainduak. Zer ikustearen erten zerate, bada? Igarleren bat? Neuk ere elaxe diot eta bai igarlea baño geiago dan norbait ere.

Oña, bada, berekiko idatzirik dagona. Au da zure auretik Nik bialtzen deten nere aingerua, aurealdez (auretik) gertu dezan zure bidea.

Gaurko Beñion done au bi zati berezitan banatzen da. Lenengoan Jesus'ek garbi erantzuten dio Juan Bataiatzaileak bere ikasleen bidez egindako galderari, zeatz adierazten die, ez itzez baizik egiñen bidez, Bera dala Etortzekoa, Agindua, ainbeste gizalditan Itxaroa, Bera dala Jaunaren Bialdua edo Mesias: bigarfenean Bere bidegile done Juan Uguzlariaren alde goraldi ta aintza aundiak esaten ditu guztien aurrean.

Zeruko Aita Betikoak Juan Uguzlari donea aukeratu zuan bere Seme Jaungoiko gizon egiñaren bideauruko ta bidegiletzat izateko; berak iriki bear zituan Jesukristo'ren bideak, damutasuna artzera ta pekatuen garbaia (penitentzia) egitera gizonak ja-

riaz eta Jesukristo'ren etoñera adieraziaz. Oregatik, bere bearingai au alik ondoena betetzeko, Andre Maria Birjiña'ren eñaietan zegoan Jesukristo gure Jaunak, Isabel Donearen eñaietan zegoan Juan Bataiatzalea donetu ta jatofizko ogenetik garbituzuan, Andre Maria Birjiña bere lengusu Isabel donea aur-egiteko zegoana ikusi ta agurtzera joan zanean; era onetan Juan Bataitzañearen jaiotza mirari añañi ta bereziaz sariturik.

Juan Bidegile doneak Espiritu Donearen argitasunez ezagiturik bere egiteko aundia, bere alegin guztiak onbide ta birtute guztitan ornitzen leyatu zan, eta onetarako lekaro edo basamortu batean bildu zan eta an bakartasunean otoitz eta donetasuneko jarduketaz bere burua ilduratu, laztu ta menderatzeari eman (ekin) zion. Ganbelu ilez, bere soñak estaltzen zituan, nafuzko ugalaz lotzen zuan geñian soñeko au, ta bere janaritzak basoko lañapota ta zugatz eta arkaitz zulotan arkitzen zuan pagoeztia izaten ziran.

Laztasuneko bizitza añañi au luzaroan eraman ondoren. Mesias edo Jaunaren Bialduaren etoñera adierazi ta zabaltzeko garaia eldu zanean, Jaunaren bideak iriki ta gertutzen asi zan birtute ta onbideen alde sendo itzegiñaz, garbaia edo penitentzia egitera deituaz eta gaiztakeri ta biuñikeri edo bizio guztiak astindu, atzerazi ta uztera berotuaz.

Garai artan Judaeñian Herodes Antipas zeritzaion eñegek likitz eta galdua zegoan eñegetzan eta onek bere anai Felipe'ren emazte Herodias zeritzaionakin bizitza galdua zeraman. Herodes eñegek ala ere begirune aundia zion Juan Uguzlari doneari, zintzotasun eta garbitasunaren mañarik goienetan bizi zalako ta onek eñegeren galmendi bizi au ikusisik, gaitzetsi zuan bere bizitz eta ibilera galdu ura ta bere lei osasuntsuak etamanda, eñegek berberari azaldu ta begien añañan jañi zion bere pekatu ta galdukeri aren izugañikeria.

Herodias emakume maltzur-pizti arek au jakin zuanean, goñotozko suak artu zuan eta bere sumin beroan, ikusirik berari zetorkion ondoren goñia eñegek zuzenera jotzen bazuan, bere

alegin eta bitarteko guztiaz leyatu zan, Juan Uguzlari donea giltzape tzafean sartu ta antxe eukitzea iritxi arteraño.

Auek onela dirala gertatu zan, bada, gaurko Beñion edo Ebanjelio doneak aitatzen digun gertaera.

Jesukristo gure Jauna ordurako asi zan zerutar argia zabaltzen eta Galilea zeritzaion eñialdean bañuna zebilēn, gizataldeak bere itzaldiak entzuteko ta bere egite añigafiak ikusteko leiaz bere atzetik zebilzkiala. Juan Uguzlari doneak pozik eta biotz eztitan jakiten zituan bere giltzape tzar-īlunetik Jesukristo'ren garaipen aundien beñiak, bere egite añigafi, erakuspen bikain eta eñiak beraganako zeukan lei ta joera beroaren beñiak; ez zeukan aztuta txit gaitza zala giltzape tzar artatik ateratzea ta bazitekeala, gero gertatu zan bezela, Herodias emakume galduaren kezka zitalak amaitzeařen, egun asko baño len īla izatea; ta onegatik bere ikasleen onari begiratuaz, deitu ta aietako ikasle bi Jesukristogana bialdu zituan, berari galdera au egiteko aginduaz: *¿Tu es qui venturus es, an alium spectamus?* Zu al-zera etortzekoa zerana ala besteren bat itxaroten degu? Zu al-zera etortzekoa zerana esatean, galdera au egin nai zuan. *¿Zu al-zera Mesias?* Era onetan Bidegīle doneak, bere ikasleak beren buruz Jesus egiazko Mesias zala jakitea nai zuan, aintzakotzak ezagutu zezaten eta laister bera iltzen zutenean beren irakasle, maixu ta aitatzat euki zezaten.

Ondo zekian Bidegīle doneak, Jesus, gizadiaren Eroslea ta etortzekoa zan Mesias zala, baña bere ikasleak esmesean zeuden eta batzuek Juan Bataitzaīlea bera izango ote zan ustetan ere bazeuden, eta oñegatik, beren burubide oker ura ayenatzeko ta Jaungoikoaren egiazko Bialdua ezagutzeko egokiera ematearēn, Jesús'gana bialdu zituan, beren adimenak argitu ta beren biotzak beraren maitasunean berotu ta irazekiko ziran uste osoan.

Juan Uguzlari donearen ikasleak Jesus'engana eldu ziranēan, beren eginkizuna bete zuten esanaz: *Juan Uguzlariak bialdu gaitu galdetzerā: ¿Zu al-zera etortzekoa zerana ala besteren bat itxarten degu?* Jesus'ek orduan ekañi zizkioten gaxo sail uga-

riai begiraturik guztiak sendatzen joan zan eta gero onela erantzun zien ikasleai: *Zuazte ta esan egizkiozute Juan'i entzun eta ikusi dituzutenak: itxuak ikusten, eñenak ibiltzen, legenardunak garbitzen, goñak entzuten, ilak pizten eta beartsuak Beñiona ikasten, eta zoriontsua Nigan gaitzik ikusten ez duana.*

Ikasleak beren begiakin ikustean egite afigaři aiek Jesus egiazko Mesias zala ezagutu zuten, ezin zitezkean egin eginkizun aiek Jaungoikozko almen eta indařik gabe-ta. Mirariak, noski, luřeko nornaik edo edozein gizonak egin lezazke, baña ez bere indařez, baizik Jaungoikoak era berezi batean emandako almen eta indařez. Jesukristo gure Jaunak, ordea, bere Jaungoikotasuna ikasleen aũean azaltzeko egin nai izan zituan mirari aiek. Beraz Jesukristo gure Jaunak bere Jaungoikotasuna ikasleen aũean azaltzeko mirariak egin zituanean zuzen eta sendo agertu ta zaildu zuan bere Jaungoikotasuna, bestela Jaungoikoa izan ez balitz, ezin egingo zuan miraririk eta Jaungoikoak ere ez zion emango almen eta indařik berez egia ez zana mirariz azaltzeko.

Pozik itzuli ziran ikasleak Juan Uguzlariari ikusi zituzten mirariak adierazi ta aspaldiko gizalditan itxaroten zan Mesias edo Bialdua agertu zala iragartzera, ta auek joan ziranean Jesus'ek itza artu ta Joan'en gorapenez mintzatzen asi zan esanaz: ¿Zer ikusteko asmotan joan ziñaten lekaro edo basamortura? Itz auekin Jesukristo gure Jaunak Beñioneko beste itz aiek gogorazi nai zituan: «Orduan Jerusalem, Judaeři guztia ta Jordan ibai ertzeko eřialde guztiak Joan'engana zijoazten.» An, Jesus'en inguruan zegoan gizatalde artatik geienak joanak ziran, noski, Juan Ugazlaria ikustera ta betiko bizitzako itz zerutařa bere aotik entzutera ta ořegatik esaten die orain Jesus'ek: «¿Zer ikustera joan ziñaten lekarora? Aizeak eragiņik dabilen kañabera ikustera?

¿Zer esan nai digu esaera onekin? Badakizute, noski, aize guzitara bigundu ta makurtzen dan kañabera gizon iraupenik ezaren antza (sinboloa) dala. Eta nola erantzungo zion, bada,

bere aurrean zegoan gizataldeak Juan iraupenik gabea zala, baldin Juan Bataitzaleak egiaren alde sendo ta gogor itzegin bazuan inoren bildur gabe ta eregei esaziloiazen aurrean ere bere gofoto ta sumin biziari begiratu gabe, egiari garbi, zintzo ta sendo eutsi bazion, eregeren lizunkeri beltza gogor astindu ta salatzearren, azkenean, giltzapean sartua izanaz.

Jesus'ek era onetan Juan Ugazlariaren iraupena goratzean, gizatalde arentzat eta aietan guretzat, bide ta eredu bezela jartzen zuan. Egitan kristau zintzoa danak, beti bide zuzen, on eta zintzotik ibiltzeko asmoa bear du, ta ez du okerra makurtu bear besteren esamesagatik, ez aundikeriak irabazteagatik, ez zorigaitz eta ezpearen bilduragatik, ezta, azkenik, bere lurreko bizitza au galtzeko elorrioagatik ere. Au da egiazko kristauaren bide jatorra, gizateria, etsaibeltza ta aragiaren eraso zitalen aurrean, zutik, sendo ta iraunkor, atzerarik gabe jarraitzea. Bide onetatik uruti bizi dira, kanabera (seska) aize guzitara bezela, gaiztorako agindu, eskabide ta erasotara eraz bigundu ta makurtzen diranak. Kristau auek zailtasunik, ostoporik, eragozpenik ez baluteke eraman bear, leyal iraungo luteke, noski, bide onean, baina erasoan zailtasunen aurrean ez daukate inderik bide onari eusteko ta jarraitzeko, oitura onetan irauteko.

¿Zergatikan au? Juan Ugazlaria bezela lendabizi Jaungoikoarekin bakartasunean, otoitzean biltzen ez diralako, bear dan garaian erabaki zuzen eta onai eusteko asmotan berotu ta indartzeko.

Jesukristo gure Jaunak Beñonean jarraitzen du urrena esanaz: «¿Zer ikustera erten zintzen lekarora? Apainduri bereziz jantzitako gizon bat ikustera?»

Jesukristo gure Jaunak itz aietan Juan Ugazlariaren lekaroko bizitza latz eta gogorra gogorazten digu ta gure bizitzarako eredu bezela begien aurrean jartzen digu. Ez da gure bizitza lur onetan zorionez asetzeko egiña, baizik beste bizitzarako bidea ta betiko bizitza irabazteko sortua. Ala ere badirud batzuek, batez ere gaztearoko hamar urte oietan beren betiko

zorionlekutzat artzen dutela lur au, badirudi batere ajolik ez diela, beren naikeri ta seta gaiztoak bete ezkerro. Beren buruak ez ditu betetzen lur onetako aizeak besterik, bizitza onetako zorion ariñak besterik eta ofela eguna joan eta eguna etofí oien bila ta oien atzetik dabilta txifimista loretik lorera bezela, azkenean eta berandu batean beren gorputza gozamenen orde, arantza minkofez ufatu ta beren biotza beazunez ase somatzen duten arteraño.

Begira dezaiogun, bada, nun eta nola gabiltzan, zer neufi ta erabaki artzen ditugun gure bakartasun eta otoitzean, ogenera labaintzen gaituen jolas, jantzi ta atsegiñak uzteko eta zer egin eta utzi bear degun Jaunaren etoferan bere begikoak izateko Juan Uguzlaria bezela.

Azkenez dio Jesus'ek ¿Zer ikustera joan ziñaten lekarora? ¿Igarlea? Alaxe da ta igarlea baño ere geiago, bere alde idatzia dago, bada, auxe: Oía nun bialtzen dizudan nere aingerua zure auřetik, zure bideak zuzendu ditzan.

Itz auetan Jesus'ek adierazten digu Juan Uguzlaria igarlea dala. Igarlea garai artako gizonen ustean gizon donea zan eta Jaunaren mirari ta gertakizunak auřealde adierazten zituna. Baña Juan Uguzlariaren aintza ta gorapen berezia, onez gañera Jaunaren bidegile edo bideauřeko izatea zan. Goizaldean eguzkia bapatean bere argitasun guztian azaldu beařean, lenengo bere argi txifinta zurizka-motelaz azaldu ta eguna zabaltzen joaten dan bezela, egoardian bere eřaņu beroen argiz alde guztiak ditziramen biziz argitzeraño, era berean Jaungoikoaren bidetan egoki izan zan, Jesukristo gure Jauna gure auřera Jaungoikozko almenez azaldu baño len, auřetik bere ordekoa, beraren argitasuna zabaltzen asiko zana bialtzea. Ofegatik dio Jesus'ek bere itzetan: *Oía nun bialtzen dizudan nere aingerua zure auřetik, zure bideak zuzendu ditzan.* Egiaz zan izan ere aingerua Juan Uguzlaria, bere ama Isabel Donearen eřaietan jaio baño len garbitu zuan Jesus'ek bere jatorizko ogenetik, bere gaztearoa lekaroan igaro zuan otoitzean, bere burua zi-

gorkatu ta basa-janari latzak janaz, era onetan Jaunaren etoñera aundia bear zan egokitasun eta donetasunez adierazi ta gertutzeko ta azkenez, Jaunaren legea ta batez ere garbitasuneko onbidea zuzen eta sendo adieraztearen giltzapean sartu ta eñege loiaren aginduz burua moztuta ila izan zan. Oña, bada, Jesus'ek gaurko egunez gure bizitzarako jartzen digun eredu bikaña. Alegindu gaitezen bere antzera Jesukristo'ren Jaungoikotasunagan sinismen sendoa izaten, otoitzaren bidez gure garbitasun eta ibilera zintzoai eusten eta bizitza onen azken-auzia eldu-tzen danean guk ere Jesukristo gure Jaunaren aintza eta gorapenak entzungo ditugu betiko zorionaren jabetzan sartzeko. Ala izan bedi.

ETORKUNDE'KO

III IGANDEA

Juan. Don. I bur. 19-28. esan.

Aldi artan: Judearñak Jerusalem'dik apaiz eta lebitarñak bialdu zizkioten Joan'i «ñor zera zu? berari galdetzera. Eta aitortu zuan, eta garbi erantzun zuan; eta aitortu zuan: Ez naiz ni Kristo. ¿Zer bada?—beriz galdetu zioten—¿Elias alzera? Ez naiz, esan zien. ¿Igarleren bat alzera? Ezta, erantzun zuan? Orduan ezan zioten: ¿Nor zera bada, bidali gaituenai erantzuna eman al izateko? ¿Zer diozu zeure buruarekiko? Orduan onela dio: Jaunaren bidea antola ezazute, basoan oyu daginaren otsa naiz ni, Isai igarleak zionez. Bidali aiek, zurikari (fariseo) artekoak ziran. Eta galdetuaz esan zioten berari: Zergatik uguzten ari zera, orduan, zu ez Kristo, ez Elias ta Igarlea ere ez bazera? Joan'ek berai erantzun zien esanaz; Nik urez uguzten det: zuen artean dago, ordea, zuek ezagutzen ez dezutena. Uraxe da nere ondoren etoñiko dana, ni baño lendik dana: bere oñetakoen ugala azkatzeko ere lain ez natzaiona. Jasoera auek

Betania'n gertatu ziran, Jordan'en aruntzaldean, Joan uguzten zegoan lekuan.

Jesukristo gure Jaunaren bidegile donea zan Juan Uguzlaria, Jordan ibaiaren ertzean gizatalde aundiak bataiatuaz zebilen garai artan; ondo zekiten Sinagoga edo Batzartegi'ko Buru egiten zutenak, liburu donetako igarkizunetatik, Mesias laister etortzekoa zala. Egun aietan ez zan entzuten Jadaeri guztian Juan Uguzlariarekiko izketa besterik: guztiak ari ziran bere jaiotza, bere bizitza latz eta afigafia, bere onbide bakanak, bere itzaldi zerutafak eta berak ematen zuan ugutzakiko, (bataioakiko) itzegiten eta bere ainbesteko donetasuna goratzen.

Erietatik taldeka zetozten bere itz zerutafa entzutera ta **Espiritu** Donearen suaz piztutako bere itz ura entzun ondoren guztiak ao batez zioten alkaeri: ¿Mesias ote da, bada, au? Agustin done jakintsu aundiak gertaera au bururatuaz onela dio: Kristo izango ote zan sinistu al erazitzenañoa zan Juan Ugazlariaren goitasuna. Ainbestekoa zan bere ontasun eta donetasuna.

Jerusalen'go Sanedrin edo Batzar Nagusiaren esku zegoan elizgaiak aztertu ta erabakitzea, ta onen batzarkideak lafitzen asi ziran Juan Uguzlaria egunetik egunera irabazten zijoan izen aundiaz. Baña eriak ez minberatzearen, ez ziran ausartzen itzegitera ta bataiatzea berari galeraztera eta oregatik beren arteko apaiz eta ikasleen batzordea bialdu zioten agirian galdetzera: ea nor zan eta zer eginkizun eta asmo zebilzkian. *¿Tu quis es?*

Batzar Nagusiak, Juan Ugazlaria eriaeren begitan utsean uzteko asmotan egin zuan agiriko jokaera au, baña Jaungoikoaren bideak gertaera au Kristo'ren etoñerako liburu donetan afealde idatzirik zeuden igarkizunak betetzeko ta sendotzeko egokitu zuan eta baita judeafak nastu ta lotsarazi ta Jaun Zeruratzalea ta bere Bidegile donea goratzeko ere.

Galdetu ziotenean, bada, ea nor zan, Mesias ala Elias ala

antziñako Igarleren bat ote zan; berak garbi erantzun zien ez zala ezer ofelakorik, basamortuan auxe otsegiten zuanaren deia zala: gertu itzazute Jaunaren bideak; zuen artean dago ezagutzen ez dezuten Mesias eta ez naiz ni nor aren oñetakoen lokaña azkatzeko ere.

Ondo egoki zetorkiena esan zien Juan Ugazlariak itz auetan judearai. Jesus'en jaiotzako ta bataioko mirariak, bere etoferaganako igarkizunen betetzeak eta beste mila gertaera afigarik aitortzen zuten Kristo beren artean zegoala, baña zuri-kari ta pariseo aro aiek beren burutan eta irudimenean uste zuten bezelakoa ez zalako ezin sinistu zuten, ezin etsi zuten beren barutan, ezin eraman zuan beren arotasunak, Kristo egiazko Mesias zala ezagutu ta aitortzea.

¡Zenbat kristau daude gaur egunean ere N. E. M. judear aiek baño ez jakiñagoak, gogoñago ta erudunagoak, Juan donearen aotik itz auek entzutea oso merezi dutenak! *Medium vestrum stetit quem vos nescitis*. Zuen erdian dago zuek ezagutzen ez dezutena.

Eta¿nun arkitzen da, bada, Jesukristo gure Jauna gure artean? Lenengo arkitzen da bere Eliza Ama Donean, beraren Burudan Erroma'ko Aita Doneagan, bere Gotzai edo Obispo ta apaiz jaunengan, Kristo'ren erakutsiak zabaldu ta bere odolaz erositako animak zeruratzen dabiltzan bere bidali guztietan. Kristo gure Jaunak berberak aitortzen digu, gure lan, neke ta naigabeen artean bigungafi ta gozagafi diran itz aien bidez: *Ecce Ego vobiscum sum usque ad consumationem sæculi*. Ni zuekin izango naiz gizaldien amaira arte.

Baña Kristo'ren etsaiak eta kristau zintzoak ez diranak ez dute ikusi nai Kristo gure Jauna Eliza Ama Donearen efaietan eta ofela jakintsu gaiztoak, jakitun aro-beltzak alegin guztiaz erabili dute gizaldi guztian beren jakinduria Eliza azpiratzeko ta Elizari lur jo erazteko, baña Eliza Ama Donea orduan eta argiago, orduan eta zutiago ta bikañago azaldu da ogei gizalditan eta aufera ere alaxe azalduko da Kristo gure Jaunaren besoa

berari eusten dagolako. Kristau zintzoak ez diranak ere maxiatzaleen esan okeren bidez, beren uste zitalen bidez eta gaiztakeri utsez zabaltzen diran gezur eta kalunien bidez, ez dute ikusten Kristo gure Jauna bere apaizetan, uste dute Kristo'ren apaizak, lufeko ainbeste ontasun, ainbeste erosotasun, eta egokiera utzi ta beren buruari gogor egiñaz Kristo gure Jaunari bere ufetik jafaitzen diotenak, lufeko uzkeri ta edozein kaxkarkerigatik beren anima, beren bařuna, beren kontzientzia saltzen dutela ta ofela ez daukate berengan bear dan sinismenik, ez dute ikusten Kristo gure Jauna aiengan eta ofela beren gaiztoz, beren efazkeri zitalez maxiatu, beztu ta zapuzten dituzte. Ez, ez det zearo ondo esan, ez dute apaiza maxiatzen eta zapuzten, Kristo gure Jauna bera zapuzten dute, esana dauka, bada, berak itz aietan: *Qui vos audit me audit, qui vos spernit me spernit*. Zueri entzuten dizutenak neri entzuten dit eta zapuztu ta despreziatzen zaituztenak ni zapuzten nau.

Jesukristo gure Jauna arkitzen da baita ere gure artean Beřionean edo Ebanjelioan, bertan azaltzen zaigu, bada, ta bere bidez ezagutzen degu bere bizitza, bere egiteak, erakutsiak, asmoak, ikasbideak eta mirariak... Beřiona edo Ebanjelioa Jaungoikoaren itza da, ta Eliza Ama Doneak, berari dion begirunez intsentsuaz lufuntzen du Mesa nagusian bera kantatzerakoan. Bařa kristau otzak ez dute ikusten Beřionean ere Jesukristo gure Jauna, ez dute ikusten eta ez dute ikusi nai beren pekatutan lasaitasun obean bizitzearen, beren bařungo araren kezkarik ez somatzearen. Ofegatik Kristo'ren Beřionaren azalpena entzuten ordu laurden batean egotea luze iristen zaie, ta laister azpertu ta gogaitzen dira gero ardotegian, kafetan, jolasetan eta uskerian ordu laurden bat ezezik bi ta iru ordu osoak eta gau guztia alpeřik igaroko badituzte ere.

Jesukristo gure Jauna agertzen zaigu baita ere beartsu, eskale ta pobretan, berak aitortzen digu, bada, Beřioneko itz eder aietan: *Amen dico vobis, quandiu fecistis ex his fratribus meis minimis, mihi fecistis*. Egi-egitan esaten dizutet, nere anai bear-

tsu gizajo oiei ematen diozuten laguniza guztia, neri egiten didazute. Ta beste leku batean dio: Baso bat ur ematen badiozute ere egariak dagonari betiko bizitzako liburuan ipiñia geldituko da zuen onerako.

Ořegatik biotz onekoak izan bear degu beartsuentzat, eska-leentzat, beartasun gořian aritzen diranentzat eta poztu bear degu gure laguntza txikiaz beartsu aukeratu, ase, indartu ta sendotzen diranean, naiz izan beartsu aukeratu gizonak, au da, eskaleak, sinisgabeak, eta abar, edo naiz izan elizak eta beste eginkizun eta lantegi onetarako egiten diran eskeak; eta Jaungoikoaren izenean ematen degun ulkar (limosna) onek gogoratu bear digu Jaungoiko gure Jaunak guri laguntza ohea eman digula, gure eguneroko ogia eman eta besteri ere emateko sortu digula, ta onela kristau esaera danez, gogo onez ematen duanari Jaungoiko gure Jaunak ulkar (limosna) ura bera ugariturik bialduko dio beste bide batetik etxera.

Jesukristo gure Jauna batez ere dago gure artean, azkenez Eukaristi'ko Sakramentu donean; gizonen alde bere bizi guztian lan egin eta il bear zuanean gizonai laguntzeko leiak eta maitasun irazekiak eramanda, gizonen artean bizitzeko asmatu zuan mirari ařigari ořetan. Berak aitortzen du liburu donetan, gizonen alde daukan lei gartsua: *Delitię meę esse cum filiis hominum*. Nere atsegiña gizonen semeakin batera egotea da. Eta ořegatik apaiz bat dan lekuan, aldare bat jeikitzen da ta Jesukristo gure Jauna bertara jeisten da, Aita on bat bere semeen artera bezela, berai zeruko argia ekartzera, beren artean pakeak egitera ta gorputz eta animetan bear dituzten ondasunak eskeintzera. *Venite ad me omnes, qui laboratis et onerati estis et ego reficiam vos*. Atozte, dio Jesus'ek itz oietan, atozte lanez eta nekez beterik zabilzatenak eta nik arnastu, nik indartu ta zuzpertzuko zaituztet.

Guazen, bada, sařitan eta batez ere gure estuasun eta nairagabetan Jesus'gana gure biotzak gozatu ta goratzera.

Bařa zer egiten dute kristau askok? Ořen uře ta bertan euki

añen ez dute ikusten, ez zaie gogoratzen ta aztuta daukate Jesukristo gure Jauna. Urtean bein ozta-ozta uferatzen dira Jaunartzera Elizaren agindua betetzeko, ta Eliza Ama Donearen urtean bein *gutxienez* Jaunartzera uferatzeko agindu ori bete ezkerro lasai gelditzen dira, geiago gogoratu gabe beren zai gau ta egun dagola beren maitasunez beterik beren Salbatzailea.

¿Zer egin bear degu gure artean dagoan Jesus maitea obeto arkitu, ikusi ta ezagutzeko? Gure bañuan sinismen aundia piztu ta irazeki, gure gutxitasuna ta ezereza ezagutu ta geurekoitasuna azpiratu bear degu.

Era onetan Kristo'ren Elizari, bere bidali ta ondorengoai, bere Beñion eta Ebanjelioai jañaituaz eta bere Sacramentuak sañitan artuaz ikusi ta ezagutuko degu Jesukristo gure Jauna dala gure bidea, bide oñetan auñera joanaz arkituko degu gure bañua ta gogoa zorionez bete ta pakez asetzen duan egia ta azkenez Kristo'ren bide ta Kristo'ren egiari jañaituaz irabaziko degu amaigabeko sari eder-bikaña, betiko bizitza zoriontsua.

Ala izan bedi.

ETORKUNDE'KO

IV IGANDEA

Luk. Don. III bur. 1 - 6 esan.

Tiberio Zesar'en jaunaldiko amaboskañen urtean, Pontzio Pilato Juda-erian jaulari (agintari) zala, Herodes, beñiz, Galilea'n, bere anai Pilipe Iturea ta Trakonitis erialdean eta Lisanio Abilene'n laurdenburu zirala; Anas ta Kaipas apaiz nagusi izanik, Zakarias'en seme Joan'i Jaunak itzegin zion basoan. Eta Jordan alde guztian zear etoñi zan, garbaizko uguzpena bañeatzen ogen gabetzeko; Isaias Igarlearen idaztian nabar idatzirik dagonez: Basoan oyu daginaren otsa (naiz): Antola

zazute Jaunaren bidea, zuzen itzazute bere bidetxioak: sakon guztiak beteko dira, ta mendi ta muñoak lautuko dira; eta oketuneak arauratu ta malkaŕak ordekatuko dira, ta gizamitz guztiak Jaungoikoaren osabidea ikusiko du.

Gaurko Beñion Donea. N. E. M. aunditasunez beterik asten da. Irakurtzen asi orduko nabaitzen da gertaera gogoangarien bat zintzilika ta eldu beaŕean dagola.

Judaeŕi ta inguruko eŕialdean zeuden agintari buru ta apaiz nagusien izenak ematen dizkigu, era onetan jakin eraziaz, laister etortzekoa zan Jauna, agintari ta apaiz nagusi guztien Jaun eta Buru zala.

Agintari ta apaiz nagusi auek garai artan, Judaeŕi ta bere inguruetako eŕialdetan buru zeudela, edesti liburuetatik gaur egunean ere garbi ikustenda, ta antxiña-antxiñatik Jakob igarleak azaldutako igarkizuna bere bidez oso-osorik betetzen da.

Jakob'ek iragaŕia zeukan aspaldi - aspalditik, Judaeŕi'ko agintari jatorak beren eŕiaren esku ta agintaritza galdu ta aŕotzak nagusitzen ziranean, etoŕiko zala Jaunaren Bialdua edo Mesias; eta gaurko Beñionaren asiera oŕek azaltzen digu garbירו Judaeŕia ta bere inguruko eŕialdeak eŕomatar agintarien mende ta agirdupean jausiak zeudela.

Beñionak dio, bada, garai artan Jaunak Juan Uguzlariari dei egir ziola, Jaunaren bideak gertutzera joateko. Eta Eliza Arna Doneak Jesus'en jaiotza aueko igande onetan ekartzen digu gogora gertaera gogoangari au, len Jesukristo gure Jaunari bere ageriko bizitzaren asieran aŕera egokia egiteko bideak iriki ta gertu zituzten Juan Uguzlariaren erakutsi aiek berak, gure biotzak berotu, leyatu ta Jesus'en jaiotz egun aundirako bizi rogeru ditzaten.

Eŕege bat bere uriren bat ikertzera, ikustera datoŕenean, aueŕtik ordekoak bialtzen ditu bere etoŕeraren beŕi eman eta eŕiari jakin eraztera. Eŕiak bere aldetik ongietoŕirik atsegin eta

pozgarriena egiteko alik apain eta ikusgarriena ipintzen dio efidi guztia, bide ta baztatak garbitzen ditu, zulouneak bete ta berdintzen ditu, koska ta loi pilak kendu ta lautzen ditu, saferak lore ta abalez apaintzen ditu, kafiak ta enparantzak oyalizaz edertzen ditu, ta leio ta inguru guztiak argiz birbizturik ipintzen ditu.

Au berau animetan egitera bialdu zuan Jaunak Jaun Uguzlaria ta gutxi gora bera au egin zuala adierazten digu bere itzetan gaurko Beñion Doneak, eta egoaritan Jesus Aurtxo Jaungoiko ta Efegearen etoferako gertuera au aren antzera alik egokiena egitearen jartzen digu Eliza Ama Doneak ere gaurko Beñion au, bere jaiotegunaren aurreko igandean.

Bertan garbi ipintzen digu Juan Uguzlariak zer egin bear degun, Mesias edo Jaunaren Bialduari ongi-etoria egoki gertutzeko. Lendabizi ogenen barkamena iristeko penitentzizko ugutza (bataioa) aitu bear degula adierazten digu.

Penitenti edo garbaia bi erakoa da, bat onbide bezela ta bestea Sakramentu bezela. Garbaia, onbide bezela, gure Jaun Egilearen bidetan ibiltzea da, guregan dauden gorputz eta animaren auzitan animak agintzea, animaren almenari gorputzaren griñak sortzen dizkioten lizkar, zirikada, su ta eraso maltzur eta gogoretan anima nagusi, zuzendari, bidegile ta argile izatea. Eta anima gorputzaren eraso maltzuren bidez onen agindupean lotu ta jausten bada, gizonak Jaungoikoaren adizkidetza gaitzen du, zor ikaragarriaren azpian gelditzen da, beztasunik nabarmenenaz itsusitzen du bere anima ta Jaunaren aginpide ta adizkidetzara itzultzeko ta bere anima loikeri artatik garbitzeko ez dauka bide bat, ituribat besterik: aitortza edo garbaia (penitentzia) sakramentu bezela. Nai ta naiezkoa da, beraz, auentzat aitortu edo konpatszea, Jaungoikoaren adizkidetza ta zeruaren jabegai izatera biurtuko badira.

Eta pekatariak ez diranak ¿beartuak al daude aitortza edo penitentzia egitera? ¿Nun dira lendabizi pekatari ez diran oiek? ¿Nor ausartuko da esaten pekatari ez dala? ¿Nork egiaz esan e-

zake: *Mundum est cor meum*: nere biotza garbi, pekaturik txikienaren aztañenik gabe dago? Au esaten ausartu litekenarentzat, gerturik dago beti, Juan Bidali Donearen esaera zeatz ura: *Si dixerimus quoniam peccatum non habemus, ipsi nos seducimus, et veritas nobis non est*. Esaten badegu ogenik (pekaturik) ez degula, geure buruari gezufa sartzen gabilta ta ez diogu egia.

Ořegatik, bada, guztiok gera aitortza edo penitentziko sakramentuaren bear, pekatu lañian daudenak, Jaunaren adizkide-tza ta grazira biurtzeko, itzultzeko, ta pekatu ariñez beztuak daudenak, beñiz, anima zearoago garbitu ta Jaunaren leyaltasunean indartzeko.

Garbai edo penitentziaren bide nagusi au aitatu ondoren Juan Bidegile Doneak bi esaera laburetan adierazten digu zer neñi artu bear ditugun bide ořetan iraun eta jañaitzeko. *Omnis vallis implebitur*, dio lendabiziko esaeran. Ibar edo zuloune guztiak bete bitez. Zuloune auek gure animan dauden utzak esan nai dute, Jaungoikoarentzat aztu ta bere agindu ta legeentzat euki degun arduragabetasuna gogorazten digute. ¡Zenbat kristau bizi dira luřeko izakitan bakañik, luřeko irabazi ta ontasun eta zorionetan bakañik beren buruak jañiak eta beren biotzak itsatsiak dauzkatela! ¡Zenbat bizi dira lan eta neke artean egunez eta gauez ere, ta Jaungoikoari begiak jasoaz arazo oiek eskeintzen ez dizkielako, ainbeste irabazi eder alpeñik galtzen dituztela beren anima ta betiko zorionerako! ¡Zenbatek utzik eta animarentzat auřerapen eta irabazirik gabe egiten dituzte ainbeste eginkizun eta lan onurakor, ainbeste ulkar (limosna) ta ontasun, besteren aũean eder azaldu ta besteren begiratu onaz izateañen bakañik! Uztasun auek, bada, bete bear ditugu, Jaunaren izenean egiñaz eginkizun eta arazo auek, Jaunaren eskuetatik ateraak gerala ezaguturik, bere eskutik artutako ontarteak gogo onez eskeřetsiaz eta bere dei ta eskabideai esker eta gogo zintzo ta zuzenez erantzunaz.

Onen uřena beste neñia azaltzen digu itz labor auetan: *Omnis mons et collis humilliabitur*. Mendi ta muñoak eratxi

ta lautu bitez. Mendi ta muñoak emen afo ta galenak esan naidute, afokeriz puztu ta galenkeriz izata dabiltzan gizon setatsuak. Gizon utzafo ta galen auek bear daneraño, Jaunaren bideak erakusten duan neufiraño eratxi, lautu ta berdintzeko naikoa dute beren buruari ta biotzari egiaren argitan begiratzea, ta au egiten badute gogoz ta lei doneaz laister elduko dira Jaunaren bidera, laister atzemango dituzte beren akatzak, laister nabaituko dute neufiai eragiñik dabiltzala. ¿Zer daukagu, bada, esan genezake Pablo Bidali Donearekin, zer daukagu Jaungoikoagandik artu ez degunik? Eta geran guztia ta daukagun guztia, aberastasonak, osasuna, edertasuna, jakinduria ta ontasun oien bidez egin ditugun auferapenak Jaungoikoaren eskutik artu ta bere opaz egin baditugu ¿zergatik afo tu ta aizetu bear degu, ezer artu ez bagenu bezela ta guztia gerez bakañik egin bagenu bezela? *¿Quid gloriaris, quasi non acceperis?*

Begira zugatz zabal-bikain oferi, ofiz jantzia, lorez apaindua ta igaliz ornitua dagoan zugatz oferi. ¿Nork eman dizkio bere ezetasun, zotiltasun eta narotasun oiek? Aztertu dezagun eta bereala joango gera zuzondora, bere sustrai, efo ta zarpetara ta zenbat eta sakonago sustraituak euki zugatzak bere zain, efo ta sabiak orduan eta lerdengo ta bikañago goiruntz jeikitzen nabaituko degu ta orduan eta ezetasun mardulagoaz iraun eta igali ugariagoak ematen ikusiko degu; baña azalera atera edo ebaki ezaizkiozute zuzondoko bere sustrai, zarpa ta sabi oiek eta laister igartuko da zugatz bikain ori, laister gofitu, soildu ta luía jotzera etoñiko da.

Auxe bera gertatzen zaio, bada, gizonari ere. Bere aunditasun eta onalde guztien aziera, jatoñi ta ituñia Jaungoiko gure Jauna bera da, ta ontarte oien bidez iristen ditugun oparotasun eta goitasunen erdian begiratzen badegu lausotasunik gabe auferapen auen sorbidera ikusi ta ezagutuko degu unetik unera bideak irikiaz etoñi zaigun Jaunaren eskua ta gere-gerezko argaltasun eta bere guzitasunaren almena aitortu beañean arkituko gera; baña egiaren argitasunari gibel emanda (begiratu gabe), geure

izen eta aunditasun utzen lañotan itxututa, berak irabazteko bear izan degun indařaren jatořiakiko aztutzen bagera, gerekoi-keria ta gere buruaren ařokeria nagusituko da guregan eta zenbat eta geiago itxutu ta aztu gure ontasunen jatořia dan Jaungoikoa orduan eta bidegabekeri ta pekatu geiago ta labaňagotan jaři ta amilduko gera.

Ořegatik esaten digu, bada, Egoaři-jai auřeko Beřion onek, mendi ta muňoak, ařo ta gařenak adierazi nairik, apaldu ta beratu bitez, au da, beren almen utsez, Jaunaren laguntzik gabe noraňo eldu litezken oroitu bitez, era onetan Jesukristo'ren eřegetza ta aginpidea ezaguturik, berari biotzetan ařera ta ongietoři egokia egiteko gertu ditezen.

San Juan Ugazlariak erakusten dizkigun bide bi auei arduraz ekiten badiogu, bada, goiz-goizetik Jaungoikoaganako jaieraz berarentzat eguna eskeňi ta egun artako gure egiteak eskeňirik, gure egite oiek ez utzak, baizik gure anima egizko irabaziz bete, apaindu ta ornituko duten egiteak izateko azieratik leyatuaz, pizkanaka gure bide okeřak zuzentzen joango dira, gure oitura txarřak ezagutu ta baztařera uzten joango gera, gure pekaturako bideak dakarzkigun kalte aundiak nabaitu ta aiek oinperatzeko, aiek etetzeko geure buruarekin bořoka ta alegiňak egiten asiko gera ta egunero goiz-goizetik asmo on auetan jařaitzen degula, esmesik eta zalantzik gabe, San Juan Uguzlariak aitortzen diguna gertatuko da guregan, *et erunt prava in directa*, guregan zeuden bide okeřak zuzen biurtuko dira, gure anima erorita, lur jota, ilda zeukaten oitura galduak aienatuko dira, ta Jaunaren bidera jaso ta Jaunaren adizkidetzan bizitzera ekařiko duten oitura eder, alai ta argiz ornitu ta apainduko da gure anima.

Eta bizibide onetan auřera dijoala, gero ta geiago ezagutuko du Jaunaren eskua ta almena, bere aunditasuna, bere neufigabeko goitasun eta zorion betea ta aren edertasunari begira, len ain latza zitzaion guztia legun biurtuko zaio, bere oitura galdu ta pekaturako bideak azpiratzea ain gogor, gařatz eta zail egiten

zitzaizkionak orain bigun, pozgarri ta erazak egiten joango zaizkio ta bide goi auetan aurre antzera eldutzen danean ez du arkituko zorionik Jaunaren bidetan ezpada. Eta auxe aitortzen digu Juan Ugazlaria doneak ere itz auetan: *Et erunt aspera in vias planas*. Eta bide aldapatsuak, malkakak, zalak, ordekatu, lautu ta eraztu egingo dira.

Maia onetara eldutzen danean, bada, gizona Jaunaren bide ta agindutan, poza ta alaitasuna izaten da bere biotzaren jabe; lur onetan sortzen zaizkion poz eta nekeak Jaungoikoaren eskutik datoztela ikusirik gogo onez artu ta eramaten ditu ta pake, zintzotasun eta baretasunik ederenean bizitzen da lur onetako arantza guztien erdian. Eta au adierazten digu Juan Ugazlari doneak gaurko Beñoneko azken itzetan: *Et videbit omnis caro salutare Dei*. Neuri onetara, aldapa goi oretara, Jaunaren mendi galur oretara eldutzen danean, gorputzeko griñen galeak (gureak) berdinduaz, animako utsuneak beteaz eta buru biotzeko eragozpen eta ostopoak menderatu ta lautuaz, Jaunaren osasuna arkitzen du, biotza zerutar zorionez betetzen dion Jaunaren egizko bide ta argitasun zoriontsua arkitzen du.

Orain, bada, N. E. M., Jaunaren etofera eguna ta Egoarri-jai gozatzuak badatozkigu, egun auetan, antxiñatik datozen kristauzko oitura ederez, gure Euskaleñi onetan semeak, alabak eta etxeakoak beren jaiotetxera datoz Jaunaren etofera jaituaz batera gurasoenganako begirunea aitortu ta berakin egun gozo-atsegin batzuek igarotzera. Izan bitez, bada, egun auek egiz zoriontsuak guztiontzat, aitak sutondoan piztu duan enbor loriak zugatz moskor loriak sua ta gara dariola inguruak berotu ta ama zakak, etxeakoandak bere kimu beñien laguntzarekin eltzekari gozoak gal-gal-gal dauzkan bitartean eta gure aiton eta aurrekoengandik ainbeste bedeinkapen artutako maiaren inguruan janari gozoak janaz gurasoen erañupean atsegintzen geran bitartean egon bitez gure biotzak eta animak ere garbiak, goizean aitortza ta jaunartze doneaz garbitu ta donetuak, era onetan zar eta gazteen arteko bilera, aita-ama ta seme-alaba, aitona ta iloba inguruko

bilera au egiaz alaia ta gozatzua izan dedin eta suaren txinpaftak, eltxekarien lufunak eta keak suburuitik goiruntz bezela, gure etxeko gazien poz eta alaitasun garbi ta kristautsuak ere zeruruntz igo ditezen, lur onetan gure aurreko jaun euskaldunen oitura zerutar eta bizitza kristautsu bat igaro ondoren egunen batean Jaunak bere besotan artu gaitzan betiko eguañi ta jai zoriontzua zeruan izateko.

Ala izan bedi.

EGOARIEN ZORTZIURENPEKO

IGANDEA

Luk. Don., II bur., 33 - 40.

Aldi artan: Jose, ta Maria Jesus'en ama ariturik zeuden, Arekiko zizkiotenak entzunda. Ta Simeon'ek onetsi zituan berak, eta Aren ama Maria'ri esan zion: Begira, aur au askoren ondamen eta suspertzarako jaña dago Israel'en, ta askoren maxiagaritzat; eta Zeroren biotza espatak bañenatuko du, biotz askotako asmoak erataldu ditezen.

Eta an zegoan Ana emakume igarlea, Panuel'en alaba, Aser'en erodikoa (tribu): au urtetan oso aurreatua zan, eta zazpi urtean bizi izan zan bere senaarekin bere etzetasunetik (virginidad). Eta au alargun bizi zan larogeita lau urtekin: ta jauretxean zebilen aldentzeke, barau ta otoitzaz gau ta egun Jauna menalduaz (servir). Eta garai artantxe bertara etoririk Jauna goraltzen ekin zion; ta arekiko itzegiten zien, Isral'en berterospen (redención) zai zeuden guztiai. Ta Jaunaren lege arauz egiteko guztiak bete zituztenean, Galilea'ra itzuli ziran, beren uri Nazaret'eruntz. Aña, beriz, azi ta sendotzen zijoan zearo mendurik (senaz beterik), eta Jaunaren enargia (grazia). Arengan zegoan.

Erant Joseph, et Maria mater Jesu mirantes super his quæ dicebantur de illo. Itz auekin asten da gaurko Beñiona: Jose ta Maria Jesus'en ama, añiturik zeuden onekiko zizkiotenak entzunda.

Eta egiaz nai ta nai ez añitu bear zan Jesus aurtxoa luñera agertu zanetik egunero gertatzen ari ziran jasoerak ikusi ta entzunda. Jose donea Jesus'en ugazaita ta Maria bere amak ongi zekiten Jesus Jaungoikoa zala, Jaungoikoa zanez guztia zezakela, ta Jaungoikoa zalako agufaldirik zeenak zor zitzaizkiola, baña ala ere ¿nola sinistu ta uste izan Jose ta Maria'ren biotzak añitasun eta ikara gozorik gabe ikusi ta entzungo zituela aingeru taldeen etofaldi ta oyu gozo-alai aiek, artzai beartsu ta eñege aberats disdiratsu aien agufaldi ta eskeintza biozperak? Nork sinistu Jose ta Maria'ren biotzak gori ta pilpilka ez zirala jañiko beren seme Jesus Aita Jaungoikoaren etxera (elizara) lendabizi sartzean, (Espiritu) Donearen bitartez bidaliak izan ziran Simeon eta Ana gizon eta alargun zar eta onbidetsuak alako etofñ goitañez esaerarik añigañi ta aipagañien aiek esatean?

Ez, ez ziran bestetarako, ta ezin neurtu genezake Jose ta Maria'ren biotzak egin zituzten pilpil eztiak eta izan zituzten poz gañezkak, beste askoren artean, gaurko egunez Simeon igarlearen itz gogoangañi auek entzutean: Orain, Jauna, utzi zaiozu zure mendeko moñoi (zerbitzari) oneri pakean iltzen, ikusi bait dute nere begiak zure osasuna. Aur au, gizaldi ta gizalditan itxaroten zan eñien argi ta bidea da ta Israel eñiaren aintza ta aipamena.

Itz auek aitatu ondoren Simeon zañak beñion eta zorion gozoak eman zizkien biozperarik samuñenaz Aur Jaungoikoaren aita ta ama zorientsuai ta gero Andre Maria'gana itzuliaz onela jañaitu zuan: *Ecce possitus est hic in ruinam et resurrectionem multorum in Israel.* Oñá, Aur au askoren ondamendi ta zorionerako jañia da Israel'en.

¿Nola liteke, esango du norenbaitek, Jesus askoren ondamendia izatea. Nola liteke Jesus Jaungoiko gizon egiña, Jaun-

goiko guztiz ona, guztiz done ta santua, azkengabe efukitsua gizonen ondamenerako izatea? Ez al-zan, bada, gizadia birazkatzeko etoñi, bere eriotzaz guztiok zeruratzeko lurrera jetxi?

Bai, guzti au egia da, ta ofegatikan Jesus ez da gizonen ondamena bere naia alaxe dalako, baizik deitutako askok bere deirik entzun nai ez dutelako, guen, goiargiak baztartzen dituztelako.

¿Ez al-ziran asko izan Jesus'en bizitzan bere aotik zerutar ikasbideak entzun zituztenak? Eta guztiak jañaitu al-zioten gero? Ez, asko izan ziran gogor egin ziotenak, asko izan ziran Jesus'en jakinduri ta guzialmena ezin ikusi ta eramanik al zitusten ostopo ta eragozpenik makuñenak jañi zizkiotenak, eta auek onela Jesus'engan arkitu zuten beren buruen ondamena. Auxe dio Jesus berberak itz auetan: *Etoñi izan ez banitz eta itzegin izan ez banie ez zuten pekaturik izango, baña orain ez dute beren ogenaren aitzakirik, maratilik, igespiderik*. Eta bere mirariak ere ¿ez al-zituzten ikusi judear talde aundiak? ¿Eta zer gertatu zan Lazaro'ren piztuerako mirari añigañi artan beste asko ez aitatzeañen? Askok eta askok une berean sinistu zuten Jesus Jaungoikoa zala, baña beste asko beren bekaizkeri ta goñoto itxuan gelditu ziran sumiñez beterik. Auentzat Jesukristo gure Jauna, beren eñu uts-utsez beren buruen ondamena izan zan. Eta au Jesukristo berberak aitortzen du itz auetan: *Beren artean egin izan ez banitu beste iñork egin ez dituan erako eginkizunak, ez zuten ogenik izango; baña orain egite oiek ikusi ezkeroni ta nere Aita goñotatzen dituzte*.

Baño ez dio gaurko Beñionak, Jesus gizonen ondamenerako bakañik izango dala, baizik eta gizonen zorion eta piztuerako ere bai. Eta alaxe gertatzen da. Jesus gure birazkapenaren, gaizkapenaren (salbazionaren) oindaña, azpiaña (fundamento) da. Jesus gure betiko osasunaren ergo (causa) beaña da, ofegatik, gure betiko zorion eta osasuna ekartzeañen etoñi zan eta orixe izan zan bere bizitza guztian beregan artu zuan eginkizuna,

Jesus'ek itz auetan dion bezela: Jaunaren Semea etoñi zan galdu zana biñatu ta bifazkatzera (salbatzera).

Oña bada, nola dan Jesus askoren ondamen eta zoriona. Ondamena beragandik ufuti, bere mendetza ta agindutatik igesi ta bere esanak entzun nai ezik dabilzatenentzat, osasun eta zoriona ta piztuera, bere itza gogoz entzun, bere aginduari jañaitu ta bere sakramentuak gertamen onez artzen dituztenentzat. Gure esku, gure aukeran dago, bada, Jesukristo gure Jauna gure betiko ondamen ala zoriona izatea.

Gaurko Beñionak ufena Simeon zañaren itz auek aitatzen dizkigu: Aur au maxiañitzat izatero jañia da. *Positus est in signum cui contradicetur.*

Iragarpen (igarkizun) bakana, Simeon zañak Jesus auñarekiko gaurko Beñionean egiten duan au. Aur baten etorkizuna nork azaldu ta asmatu lezake Jaungoikozko jakinduriz ez bada? Jose ta Maria'ren bizitza ikusita begiratu batean esan zitekean aur ura arotz lau bat, langile so bat izango zala, ta lur onetan azteñen aundirik utzi gabe igaroko zala baña jañigaria! Simeon zañak zerutar argiz aur aren etorkizun eta eginkizun kidegabea somatu zuan eta goiargiz eta zerutar gañez irazekirik ao betean aitortu zuan zain goitar arek eman ziona: *Aur ura maxiañi izateko jañia zala.* Ez zan beraz aztuta, auñera ta atzera gabe, geldi egoteko sortua, gizadi guztiari beargai ta buruaustea emateko jaioa zan eta naiz etsai ala naiz aldehari izan, guztiak edo alde batera edo bestera igitu ta jeikiazi bear zituan.

Ez da sortu gizadia gizadi dan bitartean beste ofelako gizon bat luñaren gañean. Beste guztiak, danik eta argienak, jakintsuenak, aberatsenak eta mañarik goienetan ibiliak izan añen, eriotz ondoren aldi labur bat igarota aztuak izan oi dira, iñork ez dauka biotzean surik beren alde egin eta ertetzeko urtealdi baztuek igaztu ezkerro. Gizon bat bakaña da gizadia beti irazekirik gañetan daukana, gorputzez il añen gizonen biotzetan egundo ilko ez dana, jakintsu, aberats, agintari ta andizkiak bere alde ala aurka beti leyan dabilzkiana, goñotorik gori ala maitasu-

nik gartsuenaz gofotatu ala maitatua izango dana, gaurko Be-
fioneko aur onetsi au, gizon eta Jaungoikoa erabat dan Jesus aur
au da.

Orain, Simeon zafaren iragarkizunetik ogei gizaldira, begi-
ratu batean ikusi ta inguratzen badegu Jesus'en jaiotzatik orain
arteraño bitarte guztia ¿zer ikusi ta esango degu? Simeon za-
faren igarkizuna oso-osorik eta zearo bete dala.

Andik egun batzutara Herodes egege galduak Jesus aufaren
odolaz ase nairik Belen inguruko efi guzitan, esesten du ta era-
so beltz aren atzapafetatik bizirik aterako bada, igesi dijoa An-
dre Maria'ren besoetan eta Jose Donearen ardurapean landefira,
afotzefira, antxe Ejipto efi aldean luzaroan erbesteturik bizitzeko.

Eta bere ageriko bizitzan azkeneko iru urtetan begiratzen
badiogu or agertuko zaigu beti apaiz nagusiak, zuñikariak (pa-
riseoak), eskribak eta ainbeste ta ainbestek ezin ikusi dutela be-
re erakutsi, oitura ta mirariak ere ezin eramane oker eta gri-
ñaz maxiatzen dituztela ta alde guztitan etsaiak maxiafitzat art-
zen dutela, azkenez gurutze batean ilzez josirik bizia emateraño.

Baña ez zan emen amaitu Jesukristo'ren aurkako esetsaldia.
Jesukristo gure Jaunak bere bizia gurutzean eman afen, emen
lufean utzi zuan bere ondorea, lufean ezafia utzi zuan bere
izenaren alde erantzungo zuan ordetza ta oñafia, bere erakutsi,
arazo ta giradiaren alde egiñak zuzpeltu, sendotu ta lufaren lau
egalatara bareatuko zituan Eliza Ama Donea, ta au ere bere
asieratik gofotorik ikaragañienaz eraso ta esetsia izan zan, ju-
deafak, jentilak, jakintsu puztuak, eromatar agintariak, siñaus-
leak, azkenez katoliko izeneko egegeak berak ere Eliza mende-
ratu, azpiratu, ondatu ta lufaren gañetik ayenatu azi nai izan
zuten beraren erakutsiakin beren bizitza ta oitura afe ta iroak
nabarmen zetoztelako ta beren buruak garbitu nairik. Beraz Eli-
zaren bizitzako ogei gizaldi auei begiratu ezkerro garbi azaltzen
da Simeon igarle zafaren igarkizun zofotz ura zearo bete dala
azkeneko zeetasunetaraño.

Gaur egunean ere nere entzule maiteak igarkizun ura be-

teaz dijoa ta ez daukagu batere afitu beafik, Jesukristo gure Jaunak ere, Simeon igarle zafaren itz aiek zerbait geiago luzatuaz, alaxe gertatuko zaigula dio, bada, itz auetan: *Non est servus major domino suo. Si me persecuti sunt et vos persequentur* Ez da mofoia bere nagusia baño geiago; ofegatik baldin neri esetsi badidate, zuek ere esetsiak, erasoak izango zerate. Eta ofela N. E. M. Jesus'en jafailerik mamien eta bikañenak, geiena esetsiak, erasoak izan dira. Eta beren etsairik gogor eta puñukatuenak beren biotzak lur onetako irabazitan itsatsirik eta gizartean bere esku ta mendetza biuñia iru nai dutenak eta eñoturik daukatenak izan oi dira. Auek beren esku gogofetatik, beren esku eñukigabetatik mendeko oiek azkatuko diran bildur dira, beren irabazi afeak azalduko diran bildur dira, beren jauntza ta afokeritzatik eratxiak izango diran ikaraz dabiltz eta auek ez dute ezer barkatzen, guda bizia egiten diote kristo'ren adizkide ta jafaitzale zintzo, bikain eta leyatsu oiei, kristo'ren bidetan zintzo jokutzen diralako, kristo'ren zuzentasuna aufera daramatelako, kristo'ren argitasuna guztien buruetara daramatelako, kristo'ren zoriona guztien artean zabaldu ta erdibitu nai dutelako ta kristo'ren egia, bidea ta argitasuna zabalduaz bere etsaiaren eñuak azpikeriak eta akatz beltzak azaltzen diralako.

Kristo'ren izenean arazo oietan lan egiten dutenen biotzak ere samintzen eta gañazten dira, beren lanak zenbat on egitera dijoazen aditzen eta ulertzen ez dielako, beren lanak zapuzten dituztelako, ta beren eginkizun eta alegiñak alpeñikako ta askotan kaltegañitzat ere artzen dituztelako. Lan on eta aundiak egin nai izaten dituzte kristo'ren jafaitzale leyatsu ta zintzo oiek eta on eta alde oiek artzen dituztenak berak jeikitzen dira askotan nasketarik aundienak sortuaz, beren ezin ikusia azalduaz, gaizki-esakarik aundienak asmatuaz, eta ain zuzen auxe da gaurko Beñionak dionez agerkairik sendoena kristo'ren jafaitzale zintzo ofekin eta bere lanetan Jaungoikoaren eskua dabilela ezagutzeko *Positus est in signum cui contradicetur*.

Geiago ta geiago minzatu ninteke gai onetan, baña aufera,

jafai dezagun geiegi ez luzatzeaŕen. *Et tuam ipsius animam pertransibit gladius*, dio ur̕ena gaurko Beŕionak. Lengo bi esaldiak zuzenean Jesus'i zegozkionak ziran, baña irugaŕengo au Andre Maria berberantzat da. Eta zure anima ezpata zoŕotzak zulatu, zatzatuko du. Itz gaŕatzak, itz samiñak Andre Maria'rentzat Simeon Igarle zafak (Espiritu) Donearen argitasunez aiatu zizkion itz aiek; zenbat minberatu ote zuten Andre Maria'ren biotza pozaldi aien artean. Ikusten dezuten bezela Simeon zafaren itz aiek Ama Samintsuak eraman bear zituan nekeen iragarkizun izan ziran. Jakiñik au ongi Andre Maria'k, jakiñik Simeon Igarlearen itz aiek aintziñako Igarleen igarkizun aiek berak, orain garaiari regokion bezela, argitasun geiagoz azalduak zirala, gogoz artu ta leku eman zien bere biotz baŕuan, eta ordutik ezafia gelditu zan bere biotz eta animan ezpata zoŕotz ura ta gogoan euki zuan beti bere bizitza guztian, beronegatik Ziñopen (martirien) Eŕegiña ta Ama Samintsuaren izen aipatua merezi izanaz. ¡Zenbat aldiz bere bekoki zerutaŕean eta eskutxo samur aietan muin gozoak egitean, arantzazko buruntza min eta batetik bestera zulatuko zizkien iltze zoŕotz aiekiko gogoratu ote zan! ¡Zenbat aldiz pekatarien biŕa ibiltzera zetozen oin onetsi aiek eta maitasun ituŕi zan biotz ura zatzada gogoŕez zauritua irudituko ote zituan. Eta bere zerutar begi ta arpegi gozatsu aiek ikustean, zenbat aldiz bere biotz kupitsua eztenkada minberaz zauritu ta mingoztuko ote zan, egunen batean eriotz ankeŕaz ilundu ta margoilduta geldituko ziralako. Baŕu-ur̕akoia izan zan benetan igarkizun ura Amaren biotzarentzat. Igarkizun gogor eta ankeŕa. Baña bere biotz samur-bera Jaungoikozko indaŕez ornituak, neuriz berdintzen ditu atsekabe oiek, Aita Jaungoikoaren bide ta agindutzat gogo osoaz arturik.

Oŕa Andre Maria'k ematen digun ikasbide bikaña neke, samiñaldi, gaŕaztasun eta naigabeak etortzen zaizkigunerako. Lur onetan ezin bizi giñezke noizean bein eta onenean saŕitan naigaberen batek minkortu gabe ta auxe da garairik egokiena Jaungoikoaganako daukagun maitasun eta adizkidetasunaren neufi

ta maña ezagutzeko, gañaztasun auek, bada, Jaunaren eskuak bide emanda datozkigu eta zenbat eta otzanago ta gogo onagoz neke auek eraman ainbat geiago Jaunaren gogoarekin batu ta berdinen gera ta beraz Jaungoikoaren antzekoago ta Andre Maria'ren seme ta alaba kutunagoak izatera eldutzen gera.

Beñion Doneak jañaitzen du esanaz, une aietan antxe arkitzen zala, Eliza artan gau ta egun bizi oi zan. Ana Andre Igarlemea bere gaztearoan zazpi urtean eskonduta bizi ondoren, larogeta laugarfen urtean alargun bizi zana.

Milan'go gongotzai aundi, Ambrosio Doneak, gertaera au adieraziaz dio, oso egoki etofñ zala alargun onek iragartzea. Entzun eliz-aita onen itzak: *«Simeon zañak iragañi zuan, emakume eskondu Elisabet Doneak iragañi zuan, emakume etzeak (birjiñak), Andre Maria (birjiñak) iragañi zuan, bide zan bada alargun batek ere iragartzea, era onetan Jesus'ganako gorapenetan bizikera guztitakoak leku artu zezaten.*

Jerusalen'go Elizara maña guztitako gizadiak etofñ oi ziran. Zurikariak (pariseotañak) sañi zebiltzan bertan bere biozperatasuna agerian zutela; lege-gizonak askotan egiten zituzten itzaldiak eñiari erakustero; apaizak eguneo zebiltzan Jaungoikoari opariak eskeintzen. Eta ala ere ez du Jaungoikoak gizon nabari aietakorik aukeratzen, bere lenengo elizan sartzean iragar-kizun eta gorapenak bere izenean esateko. Auen orde, gizon eta emakume zar oso gutxi ezagun eta gañenak aukeratzen ditu bere ixilpeko aunditasunak agertu ditzaten. ¿Eta zergatik egiten du aukerapen au? ¿Zer onbide, donetasun eta goitasun zeuzkan Ana alargun zañak Jaungoikoagandik onelako autapen bereziz aukeratua izateko?

Lendabizi dio Beñion doneak, alargun gelditu zala artean gaztea zalarik, eta bizikera onetan iraun zuala, beñiro eskontzeko asmorik gabe. Ez da, egiaz, Jaunaren agindua eskonduentzat, baten eriotzaz eskontzako batasuna ta lotura austen danean, gañontzeko bizitzaldi guztian alarguntzan irauteko, baña bai Jaunaren onu, esan on edo kontzeju bat; ez da alargunaren egin-

beafa, baña bai egokitasun bat. Pablo Bidali Doneak bizikera bakoitzari dagozkion eginbeafak azaltzean, garbi adierazten digu. Berak, bada, onela esaten die gizon alargunai: *Onalde bat da berentzat bizikera ofetan irautea, baña zala ta neketsua bazaie garbitasuna zaitzea biziera ofetan, ondo egingo dute eskontzeaz*; senafaren eriotzaz alargun gelditu dan emakumeari ere onela dio: *eskondur liteke beñiro berari derizkionarekin, baña bere zoriona, alarguntzan irautea da*, bere onuz edo konsejuz, eta bere iritziz Jaunaren Espirituak adierazten duan bidea au da; ta gero onu edo kontzeju onen argitasun edo ergoa era onetan azaltzen du: Eskontzaron loturaz batuta daudenak, alkafi eder izatera beartuak daude ta ofegatik luferko eginkizunetan leku artu beafean daude; lotura ofetatik azkaturik daudenak, ordea, Jaungoikoari eder izaten bakafik daude beartuak, Jaungoikoari dagozkion gaietan bakafik burua darabilte beren gorputz eta animak donetu ta santutzeko.

Kide onetakoa zan gaurko Beñonean aitatzen dan alarguna; bertan dio, bada, gau ta egun Jaungoikoaren eginkizunetan bizi zala barau ta otoitz egiñaz. Gaurko Beñoneko alargun zintzoak erakusten dizkigun iru onbide oiek, garbitasun, ildura ta otoitza alkar txit egoki oratzen dira. Irurak bañu-bañuko alkartasunaz batutzen dira. Otoitzak neke ta ilduraren (mortifikazioaren) minberak bigundu ta gozaten ditu; norik bere burua ilduratzen duanak, beñiz, otoitzean atsegin zerutafak arkitzen ditu. Ildura edo mortifikazio au, ordea, ez da bakafik ulertzen gorputza esnabaña (diziplina) ta zurdatzakin (zilizio) zigorkatzea, laztutzea; ildura da, bada, baita ere gauza debekatuetatik igestea, berez debekatu gabeak daudenetatik zerbaiten galbide ta gaitzerako labaintasuna dagolako aldentzea, jolasketa, irakurgai, ikuskizun eta beste egokiera, erorbide ta gaitzikara iriztatsuetatik bere gogoz aldegitea, uruntzea, gaiztakeri ta pekatura labaindu ta jausi ez dedin. Au da egiaz bere buruari uko egin, gogor egin eta ilduratzea ta otoitzalea izan eta onela bere burua ilduratzen duana garbitasunari sendo eutsi ta txukun irauteko bidean

jartzen da. Ildurari otoitzaren gozagafia kentzen bazaio latza ta gogaikafia egiten da; otoitzari, beñiz, ilduraren laguntza atzeratzen bazaio legoña ta aspergafia biurtzen da; ta garbitasunari, azkenez, otoitz eta ilduraren oindafia (zimendua) kendu ezkeror ifizpidea labaintzen zaio ta luzaroan laguntza auek ukatu ezkeror galbide ta loikerian jausten da. Jaunaren adizkidetzan, garbitasunean, grazian irauteko beañekoak dira, beraz, Jaunaren guena, goiargia ta gure alegiña. Jaunaren guen, goiargirik gabe ezin ezer egin genezake ta ezin bere adizkidetzan iraun genezake ta au irizteko da gure aldetik alegiña egitea eginkizun oietan. Ilduraren bidez gure zentzuak, gure izolak ezi ta otzanduko ditugu ta atoitzaren bidez gure biotza irazekiko degu Jaunaren maitasun eta adizkidetzan ta bien bitartez irabaztera elduko gera eginkizun auen ondorea dan garbitasun eta zintzotasunaren sari bikaña, amaigabeko zoriona.

Gaurko Beñionak alargun donearen beste gorapen bat ere azaltzen digu, esatean: Elizatik ez zala ateratzen, itz auekin adierazi nairik elizan oso sañi izan oi zala otoitzean eta era onetan gure eredu edo ikaspidetzat jartzen digu. Elizara ta elizkizunetara sañitan joatea eginkizunik ajolatsuenetakoa da noski. Jaungoikoa omendu, goratu ta Berari otoitz egin ere egin genezaioke, noski, elizara bildu gabe, nunnaitik entzuten ditu, bada, Jaunak gure añen, dei ta eskariak; baña ala ere elizan egindako otoitzak dira berarentzat atsegiñenak, era berezi batean bere izen doneari eskeñi ta onetsitako jauregia dalako. Emen dago Jaunaren gorputz agurgafia zerutar ogi donean, emen Jaungoiko ta gure artean laguntzale ta bitarteko diranen irudi doneak, emen oyuz eta otoitzez jaso ta goratzen ditugu gure biotzetan dauden gogo ta naiak sail eta taldeka Jaunari azalduaz, emen piztutzen dizkiogu argiak, bere izenean intsentsu usaitsua edatzen degu ta abesti ta kantu zerutafak oyukatzen ditugu, Berak guregana bere argitasun eta laguntzak ixuri ditzan, gure pekatu ta gaiztakerien efuki izan dezan eta Bere gurekiko asefea bigundu ta itzaldu dedin. Eta Jaunak berak esaten digunez: *Ubi enim sunt duo vel*

tres congregati in nomine meo, ibi sum in medio eorum. Nere izenean bi ala iru alkartzen diran lekuan, ni ere an izango naiz aien artean, oregatik kristauen biltegia dan Elizara sañitan etortzea ta bertan bildu ta alkaturik egiten dan otoitza da Jaungoikoarentzat atsegiñena ta gogo ta añetarik onenaz entzuten duana.

Onela egiten zuan gaurko Beñioneko Ana alargun zintzoak eta elizkoi ta otoitzalea izanik sañitan Elizara bere eskari, gurari ta biotz pilpirak Jaunari eskeintzera joan oi zalako artu zuan Jaungoikoagandik ainbesterañoko esker aundia. Andre alargun done onek ardurarik izan ez balu Elizan Jaunari bere otoitz eta eskeinzak egiteko, ez zuan, noski, alako esker eta onalderik iritxiko. ¡Ay! gogamen eta burutapen auek geuregan maiz egingo bagiñu! ¡Zenbat eta zenbat utsune ta zabarkeri arkitu ta nabaituko giñuzken! ¡Zenbat ontarte galdu ote ditugu Elizara joateko nagiak izan geralako! ¡Zenbat jakinbide ta argitasun gure gaiztakeri ta eñuetatik alderaziko giñuzenak! zenbat oarkizun eta zurialdi gure biotzaren gogorkeria bigundu ta beratuko zutenak; zenbat ikasbide on gure aulkeria zuzpeltu ta sendotuko zutenak, zenbat otoitz, zeruetako esker eta laguntzak guregana ixuriko ziztuztenak, zenbat onalde, itz batean, Jaunak eskua zabaldurik emateko zeuzkanak galdu ditugu Berari Elizan eskatzera joateko añetarik izan ez degulako. Begira dezagun bakoitzak geure bañunera ta ar dezagun asmo erabakia Ana alargun zintzoak gaur begitaratzen digun bide osasungafi oni kemen eta ardura bizi ta beroagoaz jañaitzeko, Jaunaren esku eñukitsuetatik gure animaren beañetarako on zaizkigun laguntzak iritxi ditzagun.

Azken itz auekin amaitzen da gaurko Beñion done au: Eta Jaunaren legeak agintzen zuanez eginkizun guztiak bete zitueanean, galilea'ra itzuli ziran, Nazaret eñiruntz. Bitartean aña azi ta sendotzen zijoan jakinduri ta Jaunaren guenez, goiargiz beterik.

Ikusgafia izango zan, noski, sendi edo pamili done aren Nazaretoko bizitza. Andre Maria, ogen kutsurik gabea, Jose

donea, Befionak dionez, *vir justus* gizon zintzoa ta aúa, befiz, Jaungoikoa bera. ¡Zer zoriona etxe artan bizitzea! ¡An bai otoitz beroak ertengo zirala Maria ta Jose'ren biotzetatik Jesus aúfagantuntz! ¡An bai Andre Maria'k aur Jaungoikoa zaitzen eta Jose doneak arotzegian kopetako izerdiaz sendi donearentzat ogia irabazten aurtxo Jaungoikoa erdian zutela, neke ta lanak Aita Betikoari eraman onez, biozperaz eta pozik ere eskeñiko zizkielela.

Ikasi dezagun, bada, gaurko Befion onetatik Simeon eta Ana agurgafiak bezela gure animen onerako egiten diran elizkizunetara sañitan joaten, ikasi dezagun sendi donearegandik elizlegeak zintzo betetzen eta onela bertan entzun eta ikasiko ditugu gure betiko osasunaren bideak, bertan indartuko da gure biotza egizko bide oietan sendo ibiltzeko ta gure otoitz eta alegiñaren bidez irabaziko degu azkenik izango ez duan zorion betea.

Ala izan bedi.

EPIFANI ONDORE'KO

I IGANDEA

Luk. Don. 41-52.

Jesus amabi urteko egin zanean, aiek Jerusalem'a igo ziran, jai egunean oi zanez: eta egunak igarota, osterakoan, Jesus aúa Jerusalem'en gelditu zan gurasoak oartzeko. Lagunartean zetoñela uste izanik, egun osoa bidean egin ondoren, aide ta ezagunen artean bere bila asi ziran: bañan ezin arkitu izanik, Jerusalem'a itzuli ziran, bere bila. Eta iru egunen buruan, jauretxean arkitu zuten, irakasleen erdian exerita, berai entzun eta galderak egiñik. Berari entzuten zeuden guztiak, befiz, sor eta lor zeuden bere jakintza ta erantzuerakaz. Oñela ikusi zutenean aritu ziran ta amak esan zion: Seme, zergatik ori egin diguzu? aita ta biok atsekabez zure bila genebiltzan. Ta berai esan zien:

Zertarako ibili, ordea, nere bila, ez al zenekiten, bada, nere Aitarenetan egon beara neukala? Aiek, ordea, ez zuten aren esana ulertu. Eta berakin jetxi zan, eta Nazaret'a itzuli zan eta beren mendean bizi izan zan. Aren amak, ordea, esan guzti auek biotzean, gogoan zeuzkan. Eta Jesus jakinduriz eta urtez eta enargiz Jaungoiko ta gizonen aurrean azitzen zijoan.

Garai artan Judaefi guztian Eliza bakara zan. Judear gizonetakoak, amairu urtetik berogeta amarañoko guztiak beartuak zeuden Jerusalem'go Eliza Nagusi artara joatera urtean jaiak zeuden iru jai aunditan, bertan egiten ziran elizkizun ospetsutara izan eta urteko opariak Jaungoikoari eskeintzera. Emakumeak ez zeuden legez jai auetara joatera beartuak, baina geienak joaten ziran beren jaiak eramanda beren senar ala etxeakoakin batera. Urteko iru jai aundi auek Paskua, Pentekostes eta Leizatilen jaiak izena zuten eta jai auetako bakoitzak egun askotan irauten zuan.

Sendi edo famili donea Nazaret'en bizi zan eta urteoro oi zutenez, Paskua jai aundirako Jerusalem'eruntz abiatu zan Jose ta Maria'k Jesus amabi urtekoa berekin zutela ta lau egun bidean egin ondoren bertara eldu ziran.

Paskua'ko jai aundiak zazpi egunean irauten zuan, Joaila'ren amalauaren aratsaldetik ageta bataren aratsalderaño; baina legez iru egun bakarik ziran Jerusalem'en egon bearekoak. Ala ere Jose ta Mariak Jesus'ekin, Beñionak dionez, *consumatisque diebus*, zazpi egunetan iraun zuten Jaungoikoari otoitz, opari ta eskeintzak egiñaz.

Sendi edo famili donearen bizitzako zati onetatik atera genezake, N. E. M. gure sendi edo familietarako ikaskizun egokiak. Bertan ikusten degu Jose ta Mariak Jerusalem'go elizara Jesus eraman zutela, bere urteak artara beartzen zuten baina lenago, ta emendik eta Beñionaren beste zati batzuetatik atera genezake baita ere Jose ta Maria ernai ibili zirala, Jesus'i Jaungoi-

koa izan afen, txiki-txikitatik bear ziran irakaspén onak erakutsi ta bere biotzean itsasteko.

Badira esaten dutenak aúfari azi arteraño ezer erakutsi bear ez zaiola, bere burua, bere adimena elizaren egiak artzeko oraindik bear bezela egokitua ez dagolako; baña esan okefa ta gaiztoa da au ezin geiago. Erljioa ez da buru ta adimenetik bakafik sartzen, biotzetik ere gureganatzen da, ta ofegatik gero gizon izango dan aúfaren biotza bere izaterik samur eta urterik bigunenetatik oitu ta ezi bear da. Aur txikiaren biotzean ezañiak dau den griña gaiztoen ari me meak unetik unera pizkanaka loritzen dijoazen bezela, gaztetasunera eldutzean lotura bikain-bikañak izateraño, era berean gurasoak beren aurtxoén biotzean ereiten duan azi ona, zintzotasun eta zuzentasuneko azi ona, beren biotz samufetan ernetzen da, pizkanaka sustraiak zabaltzen ditu, indartu ta bikaintzeraño ta griña gaiztoak erasotzen diotenean, zintzotasuneko indar ofen bidez gogor egiten dio zutik bide onean irauteko. Baña gurasoak beren eginbear au arduraz bete beañean zabarkeriz uzten badiote, atxurtu ta zaitu gabeko luía sasi ta lafak artu ta jositzen duan bezela, gaztearen biotza ere griña gaiztoen lafak artu, josi ta menderatuko du, era onetan lengo zabarkeri aren bidez lendabizi bere buruarentzat (semearentzat) aña eskafi ta gero bere gurasoentzat zigor eta ordañik gogor eta samingañiena izanik.

Seme onak ikusi nai dituen gurasoak, bada, txikitandik asi bear dute beren biotza zuzentzen eta bide onerako erakutsiak beren buru ta biotzetan ezartzen, era onetan oitura onak artu ta bide zuzenetan ezi ditezen. Gurasoak beren aúfak oeratu ta jeikitzean ur bedeinkatuaz busti bear dituzte berengan «Aitaren» eta «Gurutze santuaren» egin eta erakutsiaz. Jesus, Maria ta Jose'ren izen gozoak bein eta beñiz esan bear dizkiote pizkanaka berak ere esaten ikasi ditzaten. Aita gurea, Agur Maria ta Elizaren beste otoitz labufak itzez itz esan erazi bear dizkiote, eñazago esaten ikasi arteraño. Aziagoak egiten diranean aitortzako (konpesioko) azterketa (esamiña) egiten, damutasuna artzen eta

ondo aitortzezo (konpesatzeko) bideak eta erak³ argitzen lagundu bear die, Jose ta Maria'k gaurko Beñonean erakusten diguten bezela, Elizara berekin batean ekañi bear dituzte, Elizan begirunez eta bear dan eraz egoten eta otoitz egiten ikasi dezaten. Eta gurasoak berenez semeai ondo erakutsi ta adierazi ezin dizkien Elizaren gai batzuek argi ikasi ditzaten, apaizak umeentzat ematen duan kristau-ikasbidearen (dotriñaren) azalpenetara bialdu bear dituzte, beren bizitzan kristauzko eginbea³ak noiz eta nola bete bear dituzten jakin ditzaten.

Au ta askoz ere geiago egiten zuan Luis Done, Prantzi'ko e³gearen amak eta bere semearen gaizkapenari (salbazari) ardurik aundienaz begiraturik sañitan esaten zizkion itz gogoangañi auk: Ene seme, ondo dakizu zenbateraño maite zaitudan, ala ta guztiz ere naiago ziñuzket nere a³fean ilda ikusi, ogen (ilkor) astun batez loitua baño. Ta amaren erakutsi ta itz auk bere gogoan egotzita eukirik sendo lagundu zioten bere gaztearoan garbi ta gaizgabe irauteko bere e³indiko ainbeste loikeri, zorakeri ta bidetxa³en erdian eta gero ere e³ge izan zanean e³gezuzen eta kristautsua izaten jañaitu zuan gaur egunean Elizaren aldaretan agurtzen degun done bat izatera eldutzeraño.

Baña gertatu liteke baita ere gurasoak ongi ta oitura onetan azi a³en semea gaztearoan biuñitza, lu³eko aizekeri ta zorakizunak itxututa bide biuñitara jotzea ta orduan gurasoak ez daukate semearen biuñikeri o³en e³urik, ez daukate semearen biuñikeri o³regatik beren bañuan kezkarik izan beañik. Orduan gurasoen eginbea³a otoitz egitea da, beren seme ori atzera lenbait len bide onera itzuli dedin, Monika Doneak bere seme Agustin donearentzat egin oi zuan bezela, ta asiera ona eman bazioten, geienetan etoñiko da beñiro bide onera, era onetan gurasoentzat izanik beti baña batez ere eriotzako orduan poz, zorion eta saririk opa³añiena. Agustin Donea'ren itz aukin bada: anima bat zeruratzen, salbatzen duanak, bere anima zeruratzen, salbatzen du, esan genezake batere bildur eta zalantzik gabe, bere semeai aziera ona

eman eta zeruratzeko bidean jafi dituan gurasoak bere anima ere salbatu ta zeru bidean jafi duala.

Gaurko Beñionak jaraitzen du esanaz: Jose ta Maria jai egunak igaro ondoren, Nazaret'eruntz abiatu zirala ta eguna bidean egin ondoren Jesus gabe arkitu zirala. Ta bere bila asi ta irugarfen egunean Elizan arkitu zutela, jakintsuen ondoan exerita berai galdera afigaŕiak egiñez. Orduan Andre Maria'k itz auek esan zizkion Jesus'i: Seme, zergatik egin diguzu ori? Zure aita ta ni, atsekabez beterik, zure bila genebiltzan. Eta Jesus'ek onela erantzun zien berai: Zergatik zenebiltzaten nere bila? ez zenekiten, ordea, nere Aitarekiko gaietan egon beaŕa daukadala?

Auek dira N. E. M. idazti donetan arkitzen diran Jesus'en lenengo itzak. Itz afigaŕiak. Bere ixileko bizitzaren erdian bapateko argipafazta izugafia zabaltzen duten itz afigaŕiak.

Andre Maria ta Jose ez ziran ibili iru egunetan Jesus'en bila. Lenengo egunean Jerusalem'dik Nazaret'eruntz abiatu ziran Jesus beren artean zuten ustean; eta egun bateko bidea egin ondoren, orduan asi ziran Jesus'en bila beren ezagun eta aideen artean eta ezin arkitu izanik beŕiz itzuli ziran samiñez beterik beste egun bateko bidea egiñez Jerusalem'eruntz eta an arkitu zuten ufengo egunean egoartean jakintsuen azalpenak entzun eta galdera afigaŕiak egiñez. Orduan Andre Maria'k ez asafez, ongi zekian, bada, guztia zintzo betetzen zuan Jaungoikoa zala, baizik bera galduta ibiltzeak bere baŕuan sortu zuan samintasun ura azalduaz itz aiek esan zizkion: Seme, zergatik egin diguzu ori? Zure aita ta ni atsekabez beterik zure bila genebiltzan.› Eta Jesus'ek baita ere erantzun zizkion beste itz afigaŕi aiek: «Zergatik zenebiltzaten nere bila? ez zenekiten, ordea, nere Aitarekiko gaietan egon beaŕa dakaudala?› Itz afigaŕiak, diot, bere ixileko bizitza ilun eta lau aren erdian bere Aita Jaungoikoaren deia, bere bizibidea ta eginbeaŕa erakusten digutelako.

Jaungoikoaren esku ongilearen bedeinkapenak ez dira oraindik agortu ta zorionez asko dira gaur egunean ere Jaungoikoaren dei doneak entzuten dituztenak beren gorputz eta ani-

mak oso-osorik Berari eskeintzeko, lufeko loi ta ustelkerien artetik atera ta bere baratz esituan aldatuaz garbi-garbi bizitzeko, bere bizileku berezi artan gorputz eta anima doneaz Jaungoikolari argi egiñaz aitutzeko, ta onelako dei, ontasun guztien artean opagañiena, Jaungoikoagandik artu duanak eskubidea dauka Jaunaren deiari jaraitzeko ta ez da lufean legerik eskubiderik jator eta aundien au ausi ta loitu lezakeanik; ofegatik, bada, dei au bere bañuan entzun eta somatzen duanak bide egoki ta aña-zoizko guztitara jo ondoren gurasoen zitalkeriz beren baimena iritxi ezin badu, besterik eziñean, eskubidea dauka bere urtetara etortzean, gurasoen seta gaiztoaren gañetik, berari jañaitzeko, bere betiko zoriona iristeko bidea ta bere bafuaren gogo bizia dan ura iristeraño. Lenago da, bada, Jaungoikoa gurasoa baño, lenago Jaungoikoaren dei osasungaña gurasoaren seta okeña baño.

Gurasoak ere beren aldetik eskubidea dute, bizitzeko bear goñian arkitu ezkeru beren laguntza gabe ta baztartuak ez geditzeko; baita ere beren semetan Jaunaren dei ori aztertu (probatu), egiaz bai ote duten ikusi ta bear bada eragozpen txiki batzuek ere jartzeko beren gogo ori egiazkoa dan ezagutu dezaten; baña Jaunaren deia egiaz berengan dutela ezagutzen dutenean, Andre Maria ta Jose'k Jesus galdu zutenean bezela bere bañuan neke ta atsekabe samiña artuko badute ere beren seme eta alabak Jaungoikoaren deiari jañaitzeko bear duten baimena eman bear die ta orduan gurasoak ere leku izango dute beren semeak Jaungoikoaren deiari jañaituaz irabazten dituzten zerutar ondasunetan.

Oña zer erakutsi bikain eta jakingaña erakusten dizkigun Jesus'ek bere gaztearoko lenengo erteeran eta beragandik dakizkigun lenengo itzetan.

Zaitu ta bete ditzagun sendi edo famili done onen erakutsi guren auek bai gurasoak eta bai semeak ere, bizitza onetan Jaungoikoaren naia egiñaz bere bidetan ibili ondoren bere azkenean Jaungoikoarekin arkitu gaiztezen betiko zorionean.

Ala izan bedi.

EPIFANI ONDORE'KO

II IGANDEA

Joan. Don., II, 1-11.

Aldi artan: Ezteiak egin ziran Galilea'ko Kana'n; ta antxe zan Jesus'en ama. Jesus eta bere ikasleak ere ezteietara deituak izan ziran. Eta ardoa aitzera etoririk, amak Jesus'i esan dio: Ardorik gabe daude. Eta Jesus'ek berari dio: Emakume, zuri ta neri zer digu (ajola)? ez da oraindik nere garaia eldu. Orduan bere amak moñoiak dio: Zuei esan ala, egizute. Judearen garbiketarako oi danez, an zeuden bizpairuna uxuleko sei ari-kangil. Jesus'ek dasaie: kangilak urez bete itzazute. Ta goi-goraño bete zituzten. Jesus'ek beriz dasaie: Orain atera ta eramaiozute maizaiari. Eta eraman zioten. Maizaiak, ordea, ur ardo biurtua melatu (proatu) zuanean (eta nundik ekaña zan ez jakinik, ura atera zuten moñoiak ondo bazekiten ere) senar beñiari otsegin eta esan zion: (Nornai dala ere) Edonorek ardo ona asierako ipintzen du: ta zerbait txolintzen diranean, orduan, ateratzen du motela: zuk ordea gerorako euki dezu ardo ona. Jasoera onek eragin zuan Jesus'en mirarien asiera Galilea'ko Kana'n, eta bere aintza erakutsiaz, bere ikasleak Beragan sinistu zuten.

Gaurko Beñion Doneak aitatzen digun Kana eña, eñi polit bat da, Nazaret eta Tiberiades eñien erdi aldean arkitzen da, muño ta mendixkaz ausia dagoan eñialde batean. Muño ta mendixka aien lufetan pikoa ematen da ugari ta be aldetik sasi ta txara artean zear dijoa bertako ibaitxo bakaña, eñi artako ezteietan ardo biurtu zan ura zeraman ibaitxoa bera noski.

Eñi polit artan ziran ezteiak eta Beñionak adierazten digu-

nez Jesus ezteietara deitua izan zan ta bertara joan zan bere ikasleakin batera. Ezteietako, ta batez ere bazkari aldiko bilkura ura poz eta alaitasunezkoa zan, emengoak izan oi diran bezela, ta bertara joanaz Jesus'ek adierazten digu, jolasak eta ibilera alaiak dagozkigunak dirala ta batzutan beahezkoak ere bai.

Ez da egia Eliza Ama Donea jolasen eta atsegiñen aurka ta kontra dala. Eliza Ama Doneak ongi ezagutzen du gizonaren izaera, ongi daki gizonak bere bizitzan lan, neke ta buruauste asko ditula, ta neke auek arintzeko zerbaiten jolas eta alaitasunen bear izaten dala; badaki garai batzuek negar egiteko ta beste batzuek poztu ta alaitzeko dirala ta ofegatik Jesus ezaguera au adierazteko ezteietara joaten da ta gañera bertako alaitasunari eusten dio ta ugaltzen du, ardorik gabe gelditu ziranean ura afigañizko ardo atsegin biurturik.

Ofegatikan, bada, Eliza Ama Doneak jolasen aurka itzegiten duanean, jolas eta atsegin oietan neñiari gañezka eragiten diotelako izaten da, legea austen dutelako, jolasaren izena eman eta gaiztakerian, biñikerian eta galdukerian dabilzalako.

Eta zein atsegin zaizkan Jesukristo gure jaunari eskongai zintzoak, alkañi begirune ta eñezpetoz begiratzen diotenak, Sakramentu done ori artzera ondo ta garbitasunez gertutzen diranak eta ezteialdiak egizko alaitasun eta zintzotasunez egiteko bideak jartzen dituztenak, argi asko azaltzen du Jesus berak eskonbefien deira etofiaz, beren alaitasunean leku artuaz eta batez ere beren estuasunean leku artu ta mirari aundi baten bidez lagunduaz eta pozkidatuaz.

Jesukristo gure Jaunak ezteietara joanaz beren eskontza ontzat artu ta Jaungoikoak egokitutako biziera bidezkoa dala gogorazten digu.

Eta egiaz, «Jenesis» deritzaion lenengo idaztiak dionez, Jaungoiko gure Jaunak lenengo gizona egin zuanean itz auek esan zituan berekiko: *Non est bonum esse hominem solum, faciamus ei adiutorium simile sibi.* Ez da egoki gizona bakarik izatea, egin dezaiogun bere antzeko lagun bat. Eta Adan lozoño

aundi batean zegoala, saiats-ezur bat atera ta aren bidez Eba emakumea egin eta esnatu zanean begien aúfean jafi zion. Orduan Eba emakumea bere aúfean ikusi zuanean, Adan'i itz auek erasan zizkion: *Hoc nunc os ex ossibus meis, et caro de carne mea*. Ona emen nere ezúfen ezur eta nere aragiaren aragia. Eta Jaungoikoak beren batasun eta alkartasuna onetsi ta bedeinkatuaz esan zien: *Crescite et multiplicamini et replete terran*. Azi ta auniztu, ugaldtu zaitetze, ta bete ezazute luía.

Onez gañera Eskritura Doneak gogorazten digu beste gertaera pozgañi ta zerutar batean, eskontzaren bidetasuna ta berrari zor diogun begirunea. Tobias gazte onak eta Sara neskatxa zintzoak aingeruaren autamenez alkañekin eskontzeko erabakia artu ta biak alkañi eskua emanaz batutzera zijoazenean, Sara'ren ama Rakel andre onbidetsuak Jaungoikozko argitasunez, gaur egunean ere eskontzerakoan Eliza Ama Doneak esaten dituan itz gogoangañi auek ixuri zituan berengan: *Abraham eta Isaak eta Jakob'en Jaungoikoa izan bedi zuen artean, eta berberak batu zaitzatela ta bere bedeinkapen ugariz bete zaitzatela*, era onetan itz eder auekaz aitorturik eskontzaren gizabide egoki ta biziera onbidetsua.

Eta Jesukristo gure Jaunak eskontza sakramentu izatera jaso zuanetik batasun onek artu zuan aunditasuna adierazteko naiko ditugu Pablo Donea'ren itz auek bakañik oroiaztea: *Sacramentum hoc magnum est, ego autem dico in Christo et in Ecclesia*. Sakramentu au aundia da, Kristo'ri ta Elizari dagokioenez diot nik, ordea.

Ona, bada, garbi ikusi eskontzaren bidetasuna ta Jaungoikoak ipiñitako gizalegea dala. Beraren bidez eskongaiak sakramentu au artzen duten unetik, batuak eta alkartuak gelditzen dira bizitza guztirako ta lotura, batasun au ezin ausi ta azkatu liteke senar-emazteak bizi diran bitartean, ezta Eroma'ko Aita Doneak berak ere ezin ausi ta azkatu lezake kristauen artean legez egin eta osatutako batasun au, Jaungoikoak berak dio, bada, Matheo beñionlariaren bidez: *Quod Deus conjunxit, homo*

non separet. Jaungoikoak batu zuana, gizonak ez beza banatu, beraz bakar bakarik azkatuta uzten du batasun au senar ala emaztearen eriotzak.

Eskontzako sakramentu done onek bear dan gertueraz arturik eskontzen diranetan Jaunaren guen (grazia) ugaltzen du ta beren biziera beñian bear dituen guen grazi ta laguntza bereziak ematen dizkie, au da, beren alkarganako maitasuna donetu ta santutzen du, beren alkartasun eta batasuna sendotu ta iraunkortzen du ta guraso bezela izango dituzten eginbeñak betetzeko (gogoa) leia bizitzen du. Sakramentu au pekatu lañian artu duanak, bizkortu ta bereganatu lezazke, akatz ofegatik atzeratuak, eragotziak eta ilda bezela dauzkan Jaunaren laguntza oiek, aitor-tza on baten bidez Jaunaren grazi ta adizkidetzara biurturik.

Eta aúfena esan det alkarganako maitasuna donetu ta santutzen duala; lufeko ta berezko maitasun utsa dana, bada, sakramentuko graziaren bitartez donetua gelditzen da, ta ofegatik gurasoak alkar maitatuaz eta beren alkarganako maitasuna ta leyaltasun zintzoa agertuaz beren animetan zeruko irabaziak auferatzen dituzte. Ta onela sakramentu done onek alkarganako maitasun leyal oni ematen dion grazi onen bidez beren batasuna sendo ta iraunkofago egiten du.

Eta bear ere bai N. E. M. alkarganako maitasun au sendotu ta iraunkortzea, urteak auferatzen dijoazen bezela, bada, itzaltzen joaten da sañitan, asierako berotasun ura. Nekeak, asperaldiak, asafeak, maiteari arkitzen zaizkan akatz eta utsuneak, beren osasun eta gaztetasuna galtzeak eta beste ainbat gertaerak, sañitan aztutzen dute lenbiziko maitasun irazekia, baña lenbiziko maitasun irazeki ura epeltzen joaten danean Jesukristo gure Jaunak sakramentu ofen bitartez gogorazten dizkigu gurasoak dituen eginbeñak, beren artean daukaten batasuna, alkañi bear dioten leyaltasuna ta era onetako beste gogorapenaz indarbeñitu, sendotu, iraunkortu ta garbiagotzen du lendabiziko maitasunaren iñentia.

Sakramentu onek ematen die baita ere gurasoai gizatasu-

naren iraupenerako jafia danez, Jaungoikoak agintzen duan bezela semeak asitzeko bear duten grazia ta indaia. Lan neketsu, luze ta zaia ongi betetzen, baña erabat baita ere pozaldi gozo ta edefak ematen dituana. Gurasoak beartuak daude beren semeak gorputzaren aldetik, elikatu, jantzi ta beren bizitzari txikiak diran bitartean eutsi ta iraunazten alegintzera. Garaia eldutzean, befiz, beren gaitasun eta joerari begiratuaz berai bizibide edo opizio bat, al dan neufian, erakustera beartuak daude, gero beren estadu edo biziera artzen dutenean beren buruak elikatzeko ta beren beafak bete ta estaltzeko aña berenez izan ditezen. Ajola aundiko eginbeafia da au gurasoentzat, eta beren semeak egunen batean danik eta aberatsenak izan eta bizitzarik erosoenaz biziko badira ere gurasoak egin bear dutena, era onetan ezpeafik gogoafena etoafita ere beti bizitzari arpegi emateko gertuak egon ditezen.

Animaren aldetik, befiz, semeak bide on eta zitzoan ezitzeko ardura euki beafean daude gurasoak. Ofetarako, ezer ikasteko gai egiten diranetik Jaungoikoaren izen eta bide doneak, otoitzik beafenak eta siniskintzan (kredoan) dauden Elizaren egirik nagusienak pizkanaka erakutsi bear dizkie, semeak ikastetxe onetara joateko lain egiten diranerako kristauaren oitura on eta egirik beafenak jakin ditzaten.

Umeak zugatz landare askoren antzera dira. Zugatz landare oiei jabeak nai duan zuzenbidea artu erazten dien bezela, gurasoak ere aur gaizgabe ta jakinduririk gabeai nai duan ezikera ta jakintza itsasten die ta umetan artzen duten ezikera ura izan oi da nagusi ta garaile berak gizontzen diranean ere. Ofegatik gurasoak ardura aundia euki bear dute beren semeen joerak aztertuz, beren semeen okerbideak zuzendu ta beren onbidetan jafaitzeko arnasa emanaz; okerbidetatik ateratzeko leun, baña sendo ta iraunkor jardun bear du gurasoak bere semearekin eta ainbeste aldiz esan eta esanik egin nai ez duanean bakaafik jo bear du bide zuzenera ekaafi erazteko.

Jaungoiko gure Jaunak luafaren asieran jafi ta Jesukristo

gure Jaunak sakramentura igo zuan eskontzako biziera onetan, danik eta eskontzarik zoriontsuena izanda ere, ez da arantzaren bat gabe izaten; beren argitasuna ta alaitasuna noizean bein ilundu ta goibelduko duten odeizka ta laño aizeak sañitan azaldu oi dira. Badira beste batzuek, beti ekaitz artean bezela, iya beti asafe ta alkañi bizia gañazu, gazitu ta saminduaz bizi diranak ere. ¿Nork gozatu lezazke gañaztasun auek eta nork legundu laztasun minkor auek? Gaurko Beñioneko ardo gozo miraritsuak. Ain ongi eta atsegiñez asitako ezteiak, ordurarte poz eta alaitasun artean iraun zuan bilera ura, ardoa agortzearekin batera epeltzera zetofen, ur lela ta gezaarekin batera asiko zan oztasun eta mukertasuna, eskonbeñien biotzetan somatzera zijoan arantza minkoña ta beren arpegietan litsatu zan lotsaren goñitasun izpia, baña Jesukristo gure Jaunak bere esku ongileaz itzuli zuan beren biotz kezkatuetara zorionaren zuzpeña.

¿Zer egin, bada, guraso mindu, gañazu, asafe ta zorionik gabeen artean pakea, batasuna, gozotasuna alkañentzat erakartzeko, ta lengo alaitasun eta zorion betera biurtzeko? Barkatu, alkañi barkatu, senañak emazteari ta emazteak senañari, ta ez bein, ez zazpitan, baizik zazpi amañeko zazpitan, au da, biotz argalak bere txarkeria, bere eroriaren egizko damua bere alderdiari agertu ta barkapena eskatzen dion guztian. Belzkeririk aundiena eginda ere, au da, leyalitasuna zearo ausi afen ere, badaukagu gai onetan Agustin Donearen oar osasungañi bat, Eñoma' tar kristau-Ikasbideak dionez, pañokuak beren mendeko kristauai gogorazi bear dien oar osasungañi bat, *hoc loco prætermittenda non erit pastoribus sancti Augustini salutaris admonitio*. (Cat. Rom. cap. 27.) ¿Zeintsu da oar au? Ufengo auxe: Jaungoikoak eta Elizak barkatzen dituzte ogenik ikaragañienak, pekatirik izengabekoenak... Jaungoikoak eta Elizak barkatzen die pekataririk aundienai. Irakufi, bestela, urteko barautearen (gari-zumaren) irugañen igandean etortzen dan emazte galduaren Beñiona ta an ikusiko degu garbi Jaungoikoaren eñuki zabal eta azkengabea. ¿Zergatik ez, bada, orduan guk ere barkatu iraupen

onaren itz sendoa eman ezker? Eskonduen lenengo bearkizuna alkafentzako onginaia da, Jaungoikoaren lenengo eñopidea (atributua) eñukia dan bezela. Jaungoikoak pekatari gizajo-eñukafiari barkatzean ez du bere izenik beztutzen, bestera, bere argitasuna geitu ta ditzikoñago egiten du gizadiaren erdian, era berean zeruko Aita eñukitsuaren antzera, eskondiak bere alderdiari barkatzen dionean bere izena garbitu, goratu ta bikaindu egiten du ta betiko zorionerako irabazi aundiak ugaltzen dizkio-bere buru ta animari.

Begira, bada, zer erakutsi eder eta bikañak erakusten dizkigun Jesukristo gure Jaunaren Beñion zoriontsu onek. Berak ontzat artzen ditu, gizonak bere poza azaltzeko bear dituan alaialdi ta jolasak eta beren asieratik amaira arte arantzik, kezkarik eta añik gabe irauteko bide egoki ta osasuntsua agertzen digu, berak ipintzen digu begien auñean guraso ta seme ta etxe zoriontsu bat egiteko bidea, ta berak eskeintzen digu azkenez, ezteialdi zoriontsu aietan, ura ardo biurtuaz bezela, eskonduen arteko arantza, mindura ta negañak gozatzeko atea, eztei aietan ura ardo biurtu zuan antzera, gaur egunean luñeko ardoa bere odol eta aingeruen ogi dan bere gorputz izatera biurtzen da, goazen bada gure negar eta samiñalditan ituñi bizi ta garbi ortarra bertan indartu ta ase gaitezen eta Jesukristo'ren izenean alkafen argaltasunak gogo onez barkatu ditzagun, andik auñera leyaltasun bikañagoaz bizitzeko erabaki sendoak artuaz eta era onetan, ezteitan azkenengo ardoa gozo ta atsegiñagoa izan zan bezela kristo'ren pake, kristo'ren batasun eta maitasuneko zoriona askoz ere gozo, asegañi ta beteagoa izango da lur onetan eta bere bidez are neuñigabe geiago zeruan betiko ezteietan.

Ala izan bedi.

EPIFANI ONDORE'KO

III IGANDEA

Mat. Don, VIII, 1-13.

Aldi artan: Jesus menditik jetxi zanean, gizatalde aundiak jaraitu zioten: eta oña legenardun bat etofita gur egin zion, esanaz: «Jauna, nai badezu, garbi nazazuke». Eta Jesus'ek eskua luzatuaz ikutu zion esanaz: «Nai det, garbi zaite». Eta bapatean bere legenar guztia garbitu zan. Orduan Jesus'ek esan zion: «Begira, ez iñori esan; baña zoaz, erakutsi zaiozu zere burua apaizari ta Moises'ek legez agindutako oparia eskeñi zaiozu berai agiritzat. Kaparnaun'en sartu zanean, beñiz, euntari bat beragana uñeratu zan añeneka esanaz: Jauna, nere mutila elbaritata dago etxean oñazez ausi beañean. Eta Jesus'ek esan zion: Neu joan eta sendatuko det. Eta euntariak erantzunaz, esan zion: Jauna, ez naiz ni iñor, nere etxera Zu etortzeko; itzez bakarik esazu, ordea, ta nere mofoia sendatuko da. Neu ere, bada, aldun gizona naiz, nere mende gudamutilak dauzkatena; ta bati «oa» diot eta joaten da, «ator» besteari ta etortzen da, nere mofoiari beñiz: «Au egik» ta badagi. Entzunaz, ordea, Jesus aritu zan, eta jafaileai esan zien: Egi-egitan ditzuet, ez det Israel'en idoro, arkitu onenbesteko sinispenik. Zuei, beñiz, dizuet: Egutera ta Sarkaldetik asko etofiri ta Abraham, Isaak eta Jakob'ekin etzango dira zeruetako eñeindian; seme jatofak, oster, atadiko ilunpetara jaurtiak izango dira. ¡An izango da negafa ta ortz-kafaska! Eta Jesus'ek euntariari esan zion: «Zoaz, eta gerta bekizu, sinistu dezunez». Eta ordu artan mutila sendatu zan.

Kaparnaun deritzaion eñiko ingurumaitan zebilēn, noski,

Jesukristo gure Jauna, legenardun au bere aufera osasun eske etofi zitzaionean.

Legenaia eritasun jikaragafia da; efaz kutsutzen dana ta gizonen sendakaiz orain artean senda-eziia. Lendabizi arpegi-antz guzia itxusitu ta naskagafi jartzen du. Gorputzaren soiñak ubeldu ta malatuaz aunditu egiten ditu: azala zartatu ta zaurietatik sorne zikiia dariola uzten du; legenaiez eri dagonari begietatik malko kiraztuna (sundatsua) jausten zaio; estafia gafaztu ta karankatzen zaio; azkazalak erortzen zaizkio, ta azkenez gorputz guztia ustelkeri bat egiñik gelditzen zaio, bere soiñak zatika zatika lufera jausirik.

Ez dago esan beafik zenbateko oñazeak eta naigabeak izaten dituan legenardunak il bear gofi artan bere burua ikusirik.

Legenaia eritasun beltz eta itsusia izanik, lege ta neuñi estu ta bereziak artuak zeuden bera lenbait len galdu ta ayenatzeafen. Bere sendakintza apaizen esku bakañik jafia zegoan eta ofegatik eritasun onek relijioarekin zerbait ikusi beafia bazuan. Legenardunak efitik ufuti ta bakartasunean bizi bear zuan, gizartean artu-emanik ezin euki zezakean eta bera ikusten zuan edozeñek efaz igartzeko soñeko bakan batez jantzirik ibili bear zuan.

Onela bizi zan gaurko Beñionak adierazten digun legenarduna. Ala ere bere bakartasun artan nolabait eldu ziran bere belaitara Jesukristo gure Jaunaren almen eta ontasun afigafiaren beñiak eta berak egiten zituan mirari aundien otsa ta egun artan bere bakartasun artatik nabaitu zuanean gizatalde aundi bat Jesus'i jafiaika zetofela, biozkada aundi batek emanda ekiten dio bcrealaxe laisterka ta legearen agindua alde batera utziaz, ez da gelditzen gizataldearen erditik Jesus'en oñetara eldu arte. Antxe belauniko ta auzpez jafirik deadarka otoitz au egiten dio: Jauna, nai badezu senda (garbi) nazazuke.

Oh bai otoitz eder eta egokia legenardun onena ta bai ikasbide bikaia, ematen diguna, otoitz egiten ikasteko. Aufen-afena belauniko jartzen da Jesukristo gure Jaunaren afean bere

burua auzpezturik eta bere, Jaungoikotasun eta guzialmena ezaguturik beragan jartzen du bere sinismen eta itxaropen guztia, itz mardul aietan biziro adierazten digun bezela: Jauna, nai badezu, senda (garbi) nazazuke.

Itz auetan ezagutu ta aitortzen du Jesukristo'ren guzialmena ta ala ere bere esku uzten du bere osasun eta sendakizuna. ¿Jesukristo gure Jaunak sendatu nai izango duan esmes (duda) edo zalantza daukalako ote da? Ez. Ongi ezagutzen du Jesukristo'ren ontasun eta efuki neufigabea, baña ez daki zeatz bere buruari geiago komeni ote zaion osasun orí edo bere buruaren gaitz eta kalterako izango ote dan eta ofegatik ez da ausartzen osasuna eskatzen eskaera osoaz eta ofela Jesus'en eskuetan uzten-du erabakia, berak egin dezan bere buruari ongiena dagokiona.

Domine si vis potes me mundare. Oía gure biotzak otoitz egitean Jaungoikoarekin euki bear duan era. ¿Zer da gure gogoa danik eta zuzen eta zintzoena ere, Jaungoikoaren gogo ta naiaren aldean? ¿guk geure buruarentzat opa ote genezazke, Jaungoikoak opa gentzazken baño ondasun obeak eta aundiagoak? Jakinduriari begiratzen badiogu ¿zer da gure jakinduri motz eta ezerez au, Jaungoikoaren jakinduri ondogabearen aldean? ¿Nork obeto jakin lezake gure egiazko zorion eta osasunari zer dagokion? Onginaiari beginatzen badiogu ¿nork geiago maite ta nai gaitu, etsai beltzaren atzapar gogofen mendetik azkatu ta ateratzeaen, bere zañetako adolaren azkeneko tantoraño gure alde ixuri zuan Jesukristo gure Jaunak baño? ¿Zer dira guk opa ditugun ontasunik aundienak, Jesukristo gure Jaunak betirako guri opa dizkigunen aldean? Ofegatikan, bada, gure otoitzik onena Jaungoikoaren naia ta gogoa bete dedila eskatzea da; zerbait eskatzen degunean beti Jaungoikoaren naia ta gogoa ala baldin bada eskatzea, gure animaren onerako baldin bada eskatzea ta ofetarako, oía legenardunak erakusten digun era edeña. *Domine si vis potes me mundare.* Jauna, nai badezu, garbi nazazuke, nai badezu iritxi ta bete zaidazuke nere eskaera, nere nai, nere gogo au,

era onetan aitortuaz otoitzean Jaungoikoaren nagusitasun eta guzialmena ta erabat azalduaz gure uztasun, txikitasun eta mendetasuna bere afean.

Jesukristo gure Jaunak itz auek entzutean eta legenardunaren egoera efukafia ikustean kupidatu zan eta beraren sinismen eta itxaropen sendoak eramanda ikutu bat egin eta itz bi auek esan zizkion: «*Nai det, garbi zaite*», ta bapatean zearo sendatua ta garbitua gelditu zan, garai berean legenardunak aitortzen zuan Jesukristo'ren Jaungoikotasuna ageri-agerian agerturik, gizonak inola ere beren sendabide guztiaz sendatu ezin lezaketen eritasun ikaragafi ura ikutu bat eta bi itzez sendaturik, au da, gizonen indafai gañez eragiten dion Jaungoikozko almen eta indafez sendatu ta garbiturik.

Jesukristo gure Jaunak legenarduna sendatu ondoren bi agindu eman zizkion; «*zuaz, esan zion, Jerusalem'go apaizen aufera, ta Moises'en legeak agintzen duan eskeintza eraman eta egin zaiezu, zure sendatze ta garbitzearen agiritzat izan dedin.*»

Legenardunaren sendatzearen aitormena era onetan egiten zan. Uritik kanpora zegoan toki berezi batean txori bateri lepua mozten zitzaion, txori aren odola an ufean zegoan uraskan bertako urakin nastutzen zan, gero ur nastu artara beste txori bizi bat botatzen zan eta egan igesten uzten zitzaion. Andik (efi) uri bafura sartu ta Elizara eramaten zan eta an legenardunak arkume bat eskeintzen zuan; eta gero arkume aren odol eta olioaz igurtzia izaten zan, era onetan adieraziaz, israeldafak bilebakiak izatean apaiz izateko artzen zuten gaitasun eta eskubidea, ta legenafaren bidez galdu zuana, atzera berari biurtzen zitzaiola.

Eta ¿zergatik agintzen dio Jesukristo gure Jaunak au egiteko? Legeak agintzen duanari euki bear diogun itzal eta begirunea erakusteko.

Irakaspén afigafi asko ikusten ditugu Jesukristo'gan, eta auetatik bat da, Jaungoiko ta gizon egiazkoa izanik, lufeko gizon eta izaki guztien Jaun eta Jabe izanik, ala ere efietako lege ta gizarteko aginduai bere mendetasuna erakutsi ta beren agindu-

pean leyal bizitzea. Eta izan ere Jesukristo gure Jaunak lege ta agindu auei bere Aita Jaungoikoagandik baletorke bezela begiratzan zien. Ez zuan begiratzan agintzen zuana aundia ala txikia zan, jakintsua ala ez jakiña ote zan, zintzoa ala galdua zanik, zana zala, berak agintari arengan Jaungoikoaren ordekoa ikusten zuan eta bere agindu guztiak Jaungoikoagandik baletoz bezela artzen zituan, agintari jator guztiak Jaungoikoagandik bere almen eta agintaritza duala gogoraturik.

Pablo doneak ere gai onetan itzegiñaz eta Jesukristo'ren ikasbideai jafaituaz onela dio: *Non est enim potestas nisi a Deo; quæ autem sunt, a Deo ordinatæ sunt.* Ez da agintaritzarik Jaungoikoagandik ez datoñenik, eta gertatzen diran guztiak, Jaungoikoak ala zuzentzen ditualako dira; gero jafaitzen du onela esanaz: *Itaque qui resistit potestati, Dei ordinationi resistit.* Oregatik, bada, agintariari gogor egiten dionak, Jaungoikoari berari gogor eta aurka egiten dio.

Auxegatik, bada, Jesukristo gure Jaunak legenardunari agindu zion apaizengana joateko. Apaiz oiek, Moises'ek jafi zituan legeen erabakiz, legenardunen garbierakiko agintzen zutena, bere Aita Betikoaren ordeaz eta izenean agintzen zutela ikusten zuan eta oregatik nai zuan agindu aiek zeatz eta osoro betetzea, legenañetik sendatua apaizengana joanaz.

Ikasi dezagun, bada, Jesukristo gure Jaunagan gauza auetan egin bear deguna, ikusi dezagun gure zañagotan, guraso, nagusi, eriko ta elizako egintaritan Jaungoikoaren ordekoa ta bete ditzagun azalez ez ezik, biotzez, gogoz eta naiaz ere berengandik datozkigun aginduak, Jaungoikoagandik baletoz bezela arturik.

Onez gañera Jesukristo gure Jaunak beste agindu bat ere eman zion legenardunari, beragan egin zuan miraria, zabaldu gabe ixilik euki zezala, esanaz. Agindu au sañitan ematen zuan Jesukristo gure Jaunak miraria egin ondorean, eta oregatik aztertu bear degu pizka bat zergatik Jesus'ek baldintza au jartzen zuan.

Judeafen Buru egiten zutenak beren buru ta izenak argi ta ditzikor azaltzen alegintzen ziran, era onetan gizataldeak beren aldera ekartzeko; Jesukristo gure Jaunak, ordea, bere erakuspen biziak, bere mirari ta egite onak bakañik azaltzen zituan gizonen aurrean, bere burua alik ixilena ta apalena eukiaz, gaurko Beñionean adierazten zaigun bezela. Oñekin Jesus'ek bere ikasleai ta guri adierazten digu gure on egitetan ixiltasuna ta apaltasuna euki bear degula. Ez degula on egin bear besteen begietan eder azaltzeko ta gure izena goratu ta omentzeko, asmo onekin egiten duanak, bada, lur onetan artzen du bere egite onaren saria, *recepisti mercedem tuam*, eta ez dauka zer arturik Jaungoikoagandik bere animaren betiko zorionerako.

Artu ditzagun, bada, gogoan gaurko Beñion doneak ematen dizkigun erakuspen bikañak gure bizitza bideratzeko.

Joan gaitezen gure otoitzetan Jaungoikoagana sinismen osoaz eta gure ezereza ta bere guzialmena ezagutu ta aitorturik; ikusi dezagun gure agintaritan naiz luñeko ta naiz elizakotan Jaungoikoaren eskua ta ordekoa ta egin ditzagun gure egite onak ixil eta apaltasunez, era oñetan gure anima zeruko irabazi edeñez ornitu ondoren, artu dezagun beti-betiko zorion gozoa.

Ala izan bedi.

EPIFANI ONDORE'KO

IV IGANDEA

Mat. Don. VIII, 23-27.

Aldi artan: Jesus ontzizka batean sartu zan eta bere ikasleak berari jaraitu zioten: eta onetan itsasaldi kaskaña jeiki zan, uñnen pañastadak ontzizka estaltzeraño; Bera, beñiz, lo zegoan. Ikasleak, orduan, beragana urbildurik, zioten: Jauna, jagon, salba gaitzazu, gureak egin du-ta. Eta Jesus'ek esan zien: «Zergatik bildur zerate, sinipen uñiko oiek? Orduan zutituaz, aize-

itsasoai agindu egin zien, eta barealdi galanta etoñi zan. Eta guztiak aritu ziran, eta zioten: Nor ote degu au, aize ta itxasoa iztinbera egiten zaizkion au?

Entzun dezuten gertaera ori, N. E. M., Tiberiades zeritzaion eñiaren ertzean zegoan aintziran (lagoan) gertatu zan. Egun guztian Jesukristo gure Jauna, bere ikaslez inguratua zegola, berari entzuteko gogoz etoñi ziran gizataldeai, zeruko argia, zeruko ikasbideak erakusten jardun zan; ta erakuskizuna amaitu zuanean, iluntzaldean, Jesus bere ikasleakin txalupan sartu zan ta aintziraren beste alderuntz añaunean ekiteko agindu zien. Jesukristo gure Jauna egun guztiko lanaz nekatua zegoan eta atsedean beañean arkitzen zan, ainbesteko gizatalde aundiak eskatzen zioten Jaungoikozko lanai ufengo egunean jañaitzeko.

Goia ozkarbi zegoan, iñon ez zan ageri odeirik, eguzkia itsas atzean ostentzen zijoan bere azkeneko eñañu motelak bialduaz eta aintzira bare-bare arkitzen zan bere ertzeko ur-palasta txikiak ondartzari mui egiten ziotela. Txalupa itsas gañetik lerdan zijoan eta Jesukristo gure Jauna egun guztiko lanaz nekatua, panela (ol) gañean burua jañita lo kuluxka bat egiten asi zan eta berealaxe loak artu zuan.

Jesukristo gure Jauna loak artu zuanakin batean, zeru goia goibeltzen asi zan, aintzira bizkortu ta olaskatzen zijoan, aizea bizitu ta nastu zan eta itsaso guztia gero ta kaskañago jartzen ari zan. Onetan ekaitz aundia jeiki zan eta itsaso aunditu-nastuan an zebilēn txalupa zabuka, aren joalditan ur pañazta galantak bere bañura sartzen zirala.

¿Zer egiten dute bitartean bidaliak (apostoluak)? Alegin guztiak egiten dituzte ontzizka alik ondoena zuzentzeko, txalupa ta guzti ondora ez joateañen. Baña itsasoa unetik unera kaskartzen eta aunditzen zijoan, itsaso gain guztia apar bat egiñik ageri zan eta gora ta bera ikaragañien erdian ikara otzaz txigorturik zebiltzan. ¿Zer egiten dute orduan? Iñondik beren buruak ate-

atzerik ez daukatela ikusi zutenean, beren biziarekin etsi zutenean, Jaunagana jotzen dute, esanaz: Jauna gaizka, salba gaitzazu, bestela gureak egin du.

Jesukristo gure Jaunak lotan iraun zuan ekaitza bitartean. Neka-neka egiña zegoan egun guztiko lanaz eta txaluparen zabuketa gogorren erdian ere ez zan esnatu. Eta bidaliak beren lafitasun gofiaren erdian esnatu zutenean, jeikitzen da ta esaten die: ¿Zeren bildur zerate, sinismen uriko gizajo oiek? Eta bereala ekaitzari begiratu ta aize ta itsasoari dio: ixildu ta baretu zaite ta bapatean guztia otzandu zan, atzera lengo baretasunera itzuliaz.

¿Zeren irudi bikaña da N. E. M., gertaera eder eta afigari au? Lur onetan Jesukristo gure Jaunak ezari zuan gure Eliza Ama Donea ta bere etsaien irudi berdingabea. Itsasoaren erdian dabilen txalupa lerdan eta yayo ori Eliza Ama Donea da, berari erasoaz txistu ta ofuka dabilen aize, itsaso ta ekaitza, beñiz, Eliza Ama Donearen etsai uzkur eta ageriak, Elizaren gofotatzale geldo guztiak dira.

Itsasoaren erdian dijoan txalupa ori Elizaren irudia da, bere bañuan daude Jesus eta bere bidaliak (apostoluak), au da, Eliza Ama Donearen bañuan daude Jesus, bere irabazi, erakutsi ta sakramentuak eta batez ere Jesukristo gure Jauna berbera Eukaristi'ko Sakramentuan; bertan daude baita ere bidaliak (apostoluak) eta beren ondorengoak diran gotzaiak (obispoak) eta batez ere Erroma'ko Aita Santua. ¿Zer gauza edefagorik Jesus'en Biotzaren maitasun, irabazi ta erakutsiak beregan daramazkian Jaungoikozko txalupa au baño? Ezer ez guretzat maitagafiagorik lufetik zerura bideratzen gaituan jaungoikozko txalupa au baño, lufeko neke ta gañaztasunetatik betiko zorionera garamazkian Kristo'ren Eliza Done au baño.

Ala ere, ekaitz aundia jeiki zala, dio, bere aurka ta ur pañaztak sartzen zirala bere bañura.

¿Zer esan nai dute aizearen txistu, itsasoaren joaldi ta ur pañaztak eta ekaitz gogor ofen ofuak? Jesukristo gure Jaunak

auféaldez adierazi bezela, Eliza Ama Donea gizadi ta mundua-
ren erdian izango zituan etsai ta erasoak esan nai dute. Eliza
Ama Donea ta gizateriaren arteko auzi auek beren efaietan, beren
barutan dauzkaten zuztefaren emanak dira. Eliza Ama Doneak
zeruko bidea, zintzotasuna, jakinduria, argitasuna zabaltzen
ditu lur zabalean, gizateri gaiztoak, befiz, gaiztakeria, griña txafen
nagusitza ta iluntasuna edatzen ditu bere lekuan eta ilunpeak
argitasuna, gaiztoak zintzoa ta loiak garbiaren argi edefa ezin
kusi ta eraman izaten duan bezela, Eliza zintzoaren eta gizon
lurkoiaren indafak auzez auzer alkar gofotatuaz eta ezin ikusirik
arkitzen dira, ta onetan gaiztoak bere griña txafen eskabideak
eta galeak iritxi nairik Elizaren erakutsiak ausi nai ditu, beren
gaiztakeri ta okerkerian bizitzeko Elizaren bide ta neufiak aye-
natu azi nai ditu ta Elizaren argitasun eta eta donetasunak bere ar-
pegira lotsa gofia dakartelako Eliza Ama Donea zuztefetik atera
ta ondatu nai du, era ofetan bere seta ta griña gaiztoen eskae-
rak, egundaño lur onetako zorionez osorik ezin bete diranak,
bide ta agindurik gabeko ilunpetan ase al izateko. Auxen da ta
besterik ez, Elizaren aurka jeiki izan diran etsayak nai izan du-
tena.

Begiratu besterik ez daukagu geure begiakaz Elizaren bizi-
tzari ta laister ikusiko degu, bere azieratik itsaso kaskar eta era-
so gogor-etengabeen artean bizi izan dala orain arte. Ain zuzen
Elizaren lenengo aldi aietan aitatu zituan Pablo bidali doneak
itz auek: *Ubique ei contradicitur*. Alde guztitan gogor egiten dio-
te Elizari; ta itz auek orduan egiaz esanak, gaur ere alaxe izanik
jafaitzen dute ta alaxe iraungo dute lur onetako gizaldien amai-
ra arte.

Elizaren lenengo urtetara begiratzen badegu, laister etofi-
ko zaikigu begi ta oroimenera Neron, Domiziano, Marko Aure-
lio, Septimio Sebero, Aureliano, Valeriano, Dioclesiano ta Ma-
ximiano agintaririk ikaragafien izen gaitzak. Bakoitzaren izenak
Elizarentzat urte luzetako esetsaldi ikaragafiak eta milaka ta mi-
lõoika martirien eriotz samin eta gogofak gogeratzen dizkigute

Aufera jafaitzen badegu Añio, Nestorio ta Eutikes gizaldi batzutan, Alemani'ko IV'fen eta V'kañen Enrike ta Ingletefako VII'gañen Enrike ufena ta Lutero, Kalbino, Volter, Rusó ta beste ainbestek beren jakinduri, indar eta alegin guztian ekin eta jafaitu zioten beren bizitzan, batzuek Jesukristo gure Jaunaren Jaungoikotasuna ukatuaz, besteak Andre Maria'ri Jaungoikoren ama izatea ukatu nairik eta guztiak Eliza amaren eustafiak, oindefiak ausi ta berari lur jo erazi nairik, baña ez dute egundafio iritxi ta ez dute iritxiko ere, esana dauka, bada, Kristo gure Jaunak: *Ego vobiscum sum omnibus diebus husque ad consumptionem sæculi*. Ni zuekin egongo naiz egunoro gizaldien amaira arte. *Et portæ inferi non prævalcbunt adversus eam*, dio beste leku baean. Leizbeltzeko atepak, inpernuko atepak ez dira nagusituko, ez dira gurenduko, ez dute aginduko Elizaren afean.

Eta zer egiten du Jesukristo gure Jaunak esetsaldi, gogor auen erdian? gaurko Berionak ederki erantzuten digu. *Jesus autem dormiebat*. Jesus lo zegoan. Jesukristo gure Jaunak bere jaungoikozko jakinduriaz bazekian ekaitzaren erdian zegoala, bazekian bere ikasle ta bidaliak estu ta lafi zalbiltzala, baña baita ere bazekian ekaitz gogor arek bere eskuaren aurka ta bere kaltean ezer ezin zezakeala ta ofegatik lo zegoan eta ezeren bildufik gabe lotan iraun zuan bere bidaliak ikara lañiaz esnatu azi zuten arterafio. Auxen bera egiten du, bada, lur onetan ere Eliza Ama Donea erasotzen dutenean. Ikusten ditu itsasoaren uin (olatu) afoak bezela jeikitzen dirala Elizaren etsaiak bere eskubideen aurka ta geldi dago, ikusten ditu bere agintaritza ta erakutsien aurka (kaltez) jeikitzen dirala ta geldi jafaitzen du, ikusten ditu bere aberastasunak lapurtu, eriotz gogofak egin eta Elizaren zifioa, martiri askoen odolaz luía gofitzen dutela, baña ala ere lotan irauten du, baña ez du beti onela iraungo aldi (denbora) neurtua dauka, garai burua jafia dauka, ta era au eldutzen danean aizealdi batek ke zefenda bat bapatean ayenazten duan bezela, alderazi ta kenduko ditu Elizaren era-

gozpen guztiak eta azpiratuko ditu bere etsaiak, Elizaren nagusitasun, jakinduri ta argitasuna len baño ere ageriago ta ditzikofoago guztien aurrean ezañiaz.

¿Zer zioten gaurko Berioneko ikasleak Jesukristo'ren mirari ura ikustean, aizearen txistua ta itsaso kaskaña bapatean baretzen ikustean? galdera autxe zioten alkañi: ¿Nor da au, itsaso ta aizeari agintzen dien au? era onetan adieraziaz kristo'ren jaungoikotasuna. Auxe bera da, guk ere atera bear deguna gaur, Elizaren aunditasunaren aurrean.

Jesukristo gure Jauna da luñean Eliza Ama Donea ezañi zuana, ta itza emana dauka Bere aurka etsai asko ta gogoñak jeiki añen egundaño menderatua izango ez dala. Oregatik, bada, Elizaren garaipena, Elizaren aunditasuna ta argitasuna ta Eliza luñaren lau egaletan zabaldua ikustean Jesukristo'ren eskua, Jesukristo'ren almena ta Jesukristo gure Jaunaren jaungoikotasuna ezagutu ta aitortu bear degu, bere Eliza Ama Donearen semeak izateaz pozturik.

Begire dezaiogun, bada, sinismen sendoaz Eliza Ama Doneari, maite dezagun eta bere alde itzegin dezagun beti alde guztitan eta batez ere bizi gaitezen beti bere aginduai jañaituaz, era onetan gure bizitzan Eliza Ama Donearen seme zintzoak izan ondoren irabazi dezagun beste bizitzan Jaungoikoaren seme zoriontsuak izatea.

Ala izan bedi.

EPIFANI ONDORE'KO

V IGANDEA

Mat. Don. XIII, 24-30.

Aldi artan: Jesus'ek gizataldeai iruli (parabola) au esan zien: Zeru-efeindiak, azi ona bere soroan erein zuan gizonaren

antza du. Moñoiak lo zeuden bitartean, ordea, aren etsaia etofita galartean iraka parastadan erein zuan. Baña galizpia (garibelafá) azi zanean ta burutu zan artan, iraka ere ageri izan zan. Orduan moñoiak txandañarengana (etxeko jaunarengana) urbildurik, esan zioten: Jauna, ez al-zenuan azi ona zure soroan erein (erein azi)? ¿Nundik sortu zaio, bada iraka? Ta esan zien: Etsaiak egia du ori. Orduan moñoiak esan zioten: ¿Nai al-dezu joan eta iraka biltzea? Esan zien: Ez: baezpadan ere iraka biltzen ari zeratela, berakin erabat garia ere mastrakatu ez zazuten. Utzi zaiozute biai uztaroraño azitzen, eta uzta aldian uztagileai esango diet: Bildu zazute lenen iraka ta lotu itzazute xortetan surtarako, garia, beriz, pilatu zazute nere mandioan.

Gaurko Beñonean aitatzen dan zeruetako efeindiak Eliza Ama Donea esan nai du. Garbi adierazten-digu au Gregorio done, aita-santuak. Bertan itzegiten zaigu, bada, azi ona ta azi txafá erein zala, ereile onak eta ereile gaiztoak erein zutela ta uzta eldultzean azi txafaren emana eskumenetan bildu ta surtara jaurti bear zala, garia, beñiz, mandiora jaso. Eñaz ateratzen degu, bada, emendik zeruetako efeindiak ez duala esan nai emen betiko zoriondegia, an ontasun utsa, gozamen eta zoriona besterik ez dagolako, ta erabat ateratzen degu Eliza donea esan nai duala, berau betiko efeindiaren afealdeia izanik, bertaratu ta bere aginduak eta erakutsiak bete gabe betiko zorionean sartu ezin giñezkelako.

Azi ona erein zuan gizona Jesukristo gure Jauna da ta orain bere jafaile zintzo guztiak dira.

Azi ona, Jesukristo gure Jaunaren itz, ikasbide ta erakutsiak dira. Orain, beñiz, Jesukristo gure Jaunaren ordeko ta jafaile zintzoak erakusten dizkiguten bide ta erakuspen onak dira.

Gure umetan gure aitak eta amak gure biotzetan sinismena ezafi ta bide onak erakusteko esandako itzak azi onak dira. Gure umearoan, onbidean eta zintzotasunean oitu ta jafaitzeko elizan

eta ikastetxean erakutsitako ikaskizun egokiak azi onak dira. Igandero ta beste askotan apaizaren aotik entzuten ditugun zeruko erakutsiak Jaungoiko gure Jaunak gure biotzetan ereiten dituan azi onak dira. Elizaren jaiak, bere elizkizunak, doneen bizitzak, notin, persona onen ikasbideak eta beste onelako asko gure biotzera sartu ta ernetzen diran azi onak dira.

Azi txafaren ereilea, beriz, deabrua da, gure etsaibeltza ta baita bere jafaile gaiztoak ere.

Ereile gaiztoak ereindako azi txafak erakuspen eta bide gaizto ta galduak esan nai dute ta ez au bakarik, baita erakusteko beargaia ta obligazioa daukatenak, bear dan bide ta erakutsi onak erakutsi gabe uztea ere, onela zabarkeriz utzi ezkerro, bada aur eta umeak beren buruz bizi bear duten garaira eldutzean, nola bizi bear duten ez dakitela ta egizko bidearen argirik gabe ta berari jafaitzeko oiturarik gabe arkitzen dira-ta. Ofegatik sayatu ta alegintzen da ainbeste deabrua gurasoak zabartu ditezen eta beren ume ta auñetan bear dan erakutsi ta ikasbide onak erein ez ditezen.

Azi txar au dira gurasoak aur eta umeen auñean esaten dituzten itz gaiztoak eta batez ere birao galduak. ¡Zenbat auñek beztu ote dute lenbizikoz bere animaren jantzi garbia beren gurasoai entzundako birao galduen bidez! ¡Zenbat ume, beren anima elufa baño zuriago zutenak ondatu, kondenatu ote dira betiko, beren gurasoai entzundako biraoak esan eta gero aitortzaleari aitutzen, konpesatzen lotsatu ziralako! Oña deabruak eta bere jafaileak aur eta umeen biotzetan ereiten duan azi txafa. Azi txafa da baita ere Elizaren aurka itsegiten dutenai bide ematea, elizaren lege, agindu ta egi iraunkorak bere itz ergel edo nastuaz ausi nai ditunai leku eman eta onez entzutea, Elizaren erakutsiak egiak izango ote diran edo ez diran askoren burutan zalan-tzan jafiaz, berari egoki erantzuteko jakintzarik ez duten bezela, bear dan neurian ezin erantzun lezaioketelako. Azi txafa dira baita ere irakurgai gaizto, erderaz «novela» deitzen dien irakurgai lizunak ere; azi txafak dira ta txafen txafenetakoak subearen

miztoa baño eden kaltegañagoaz gure buru ta biotzak nastutzen dituen egunkari edo periodiko galduak, Eliza ta agintariai zor zaien begirune ta itzala oñazpian eta loñean sañi dabilzkiten egunkari zital oiek; azi txaña dira neska ta emakume zabarnabarmenak erdi-bilotsik, beso, bular eta geiago ere agerian dituela zabaltzen diran rebista loi-galdu ta arotz oiek ikusi ta irakurtzea ere; ta azi txaña dira, azkenez, geiago gai onetan ez zabaltzearen, zine gaiztoak, gure etxe, kale ta alde guztitan ikusten diran baño jazkera, ibilera ta ikaskizun loi ta gaiztoagoak bertan ikusi ta ikasten diralako ta asieran berak ikusten diranean beren satarkeriak izua ematen badute ere, gero loikeri itsusi aiek ikusten oituaz, oitura lizun, bizitza loi ta ibilera nabarmenai bidea eñaztu ta zabaltzen die, kristau eraz eta gizabidez begiramen aundiaz begiratu bear genioken gauzai batere lotsarik gabe ta zabarkeririk aundienaz ikusi ta begiratzera jañiaz.

Oña bada erakutsi ta begien añañean jañi gaurko Beñion doneak azi ona ta txañaren bidez ematen dizkigun erakutsiak, bide on oiek artu ta jañaitu ditzagun eta bide txar oiek albora utzi, ta beratatik aldegin eta igesi dezagun.

Uñena adierazten digu Beñionak: Moñoiak joan zirala nagusiagana ta esan ziotela: Jauna, nai aldezu joan eta belar txañakentzea. Ez, erantzun zien, baezpadan ere belar txañakin batera, garia ere atera ez dezazuten.

Erantzupen onetan ematen digu Jesukrisño gure Jaunak erabakita, guk kristauok askotan geure buruari egiten diogun galdera au ¿Nola uzten die Jaungoikoak gizon pekatari aundi askori ainbeste aberastasun, atsegin, jolas eta luñeko poz eta zorakeritan ibiltzen eta bere seme leyal eta kristau zintzo diranak ainbeste ezbear, neke ta negañetan. Oña zein ederki erantzuten dion gaurko Beñionak: Utzi zaiozute biai azitzen uztaroa eldu arte. Orduan aginduko diet bitzaleai: Bildu zazute añañena belar txaña ta eskumenetan lotu zazute surtarako.

Jaungoiko gure Jaunak luzapena ematen die pekatariai, beren bizitzai eusten dio ta luzatzen du beragana biurtu ditezen.

Jaungoiko gure Jaunak ez du nai pekatariaren eriotzarik, bere nekerik gogofen erdian beren animak erosiak dauzka, bere odolaren azkeneko tantoraño ixuri zuan berak zeruratzeko ta berak garbi adierazten digu Idazti Doneko itz auetan: *Nolo mortem peccatoris, sed ut convertatur et vivat*. Ez det nai pekatariaren eriotzik, baizik neregana biurtu ta bizi dedila. ¡Eta zenbat ote dira Jaungoikoaren eñuki aundi onegatik zeruratu ta santu aundiak egin ere diranak! Agustin Donea gaztetan gaiztoa izan zan eta ainbeste urtetan bere ama Monika Donea'ren esanik ez zuan entzun nai izan, baña azkenean bere negar eta otoitzen bidez ekañi zuan Jaungoikoaren bidera ta Elizaren done ta jakintsurik aundienetakoa izan zan. María Magdalena Donea neskatxa pekataria zan, eñi guztian dei ematen zuan neskatxa nabarmenpekataria, baña Jesukristo gure Jaunak bere pekatuak barkatu, bere biotzera egiazko pakea ekañi ta santutasunezko zoriona ezagutu zuanetik, birjiñik garbiena ta Jaungoikoaren maitalerik sutsuena izanaz iraun zuan bere bizitza guztian, santa izatera eldutzeraño. Kortona'tar Margarita donea neskatxa pekatari oso nabarmena zan eta egun batean, egunero oi zuan bezela, bere txakur txikiarekin egurazten zijoala, txakufa zaunkaz eta zaunkaz eta kuñixka naigabeak emanaz asi zitzaion, eta bide ertzeko adar eta zikin pila azpian txakufak zer somatzen ote zuan ikusteko begiratzen asi ziranean bere senargai loia arkitu zuten ezpataz ila ta añak egiten eta ikuskizun ikaragañi arek bere biotza aldatu ta une artatik Jaungoikoagana biurtu zan eta gaur aldaretan dagoan donerik garbi ta añigañinetako bat da. ¿Zer izango ziran gaur santu aundi auek, baldin Jaungoiko gure Jaunak bere eñuki ondogabeaz itxaro izan ez bazien? ¿Nun egongo ziran orain, lenengo pekatua egin zutenean, oriotza bialdu izan balie? Baña ez zagun bestearekiko itzegin. Begiratu dezaiogun geure bañuari. ¿Nor ausartuko da esaten ni eñugabea naiz, nik ez det batere pekaturik egin? Beraz Jaungoiko gure Jauna gure eñuki izan ez bazan ¿zer gertatuko zan guregan? Eta Jaungoikoak oñelako eñukia izan badu guregan ¿gaizki eramango al degu, guk ikus-

ten ditugun pekatari oiei luzapena ta beta ematea, egiaz damutu ta Beragana biurtzeko?

Onez gañera Jaungoiko gure Jaunak itxaroten dio pekatariari bere ontasunak ordaintzeko. Pekatariak, danik eta gaiztoenak ere, eginkizun onen batzuek egiten ditu ta bere ontasun oien ordaña lur onetan ematen die bere gogo ta setak beteaz, osasun ona emanaz, irabaziren batzuek bialduaz eta beste era batzutara, baña erukaña beren ontasunen saria Jaungoikoagandik lur onetan artzen ari dan pekatari itxua.

Azkenez, Jaungoiko gure Jaunak bizitza luzatzen die pekatariari, kristau zintzoen onerako izan ditezen. Ala dio Agustin Doniak itz auetan: *Omnis malus aut ideo vivit ut corrigatur aut ideo vivit ut per eum bonus exerceatur*. Pekatari dana edo bere burua zuzendu dezan bizi da edo bere bidez zintzoa auferatu dedin bizi da, kristau zintzoak lufean, onak izan afen, akatzen batzuek izaten dituzte, ta Jaunaren legitan zearo atsegiñak izan nai badute, beahezkoa da akatz oiek gutxitzen eta ayenatzen joatea. ¿Nola ordea ori iritxi? Ofetara eraman eta leyatzen dituzte beren afean ikusten dituzten pekatari maltzuñak, griña txafetara emanak, pekaturako zirikaldi ta gaitzikara, eskandalo labañak damazkitenak, berangandik iges eragiñaz.

Beste aldetik, Jaungoiko gure Jaunak eskubidea du bere kristau onen leyaltasuna ikusi ta probatzeko. Eta ¿nola obeto probatu gaiztoz inguratuak daudela baño? Gudari batek leyal irautea gudaritalde leyalen artean ez da batere afitzekoa, baña gudate gogofean bere ingurukoak saldukeria egiñaz igesari ematen dioten bitartean gudari ofek leyal irautea afigaña da noski ta onek ongi azaltzen du bere leyaltasun sendoa.

Orobat kristau zintzo bat leyal irautea beste kristau on eta elizkoien artean ez da afitzekoa, baña leyal irautea eskubi-ezkefetan eta atze-afetan gaiztoz inguraturik dabilenean, gaizki itzegitera, loikerira, pekatura bere ingurukoak daramatenean, egiaz au leyal agertzea da, au sari ta ordain berezien aingafi izatea

da ta onetarako ain zuzen uzten die beste ergo, afaioi askoren artean Jaungoiko gure Jaunak pekatariak bizitza.

Eliza Ama Donearen argitasunik afaia ta ederen bat, zino-pak, martiriak beren etsaien afaian leial irautea da, berak eraman bear izan zituzten ikaragafizko mindura ta eriotzen afaian sinismenari sendo eustea leial irautea ta Jaungoiko gure Jaunak utzi izan ez balie gaiztoak bizitzen ez zan egundano zino-parik, martiririk izango.

Baia Jaungoiko gure Jaunak pekatariak bizitza luzatzen badie ere, ez dira beti biziko, egunen batean beteko dute beren pekatuen neua ta orduan esango die bere mofoiak Jaungoikoak gaurko Beiaonak diona: *Colligite primum zizania, et alligate ea in fasciculos ad comburendum*. Bildu ezazute afaia belar txafia ta eskumenetan lotu ezazute surtarako.

Orduan beteko dira Salomon jakintsuak Idazti Donean ipia zituan itz aiek: *Vocavi et renuisti*. Deitu nizuten eta eroskor egin zinaaten. *Ego in interitu vestro ridebo*. Orain nik zuen eriotzan pafe egingo det, zuen ondamenean gozartuko naiz. Bai, deitu nizuten, *vocabi*, ainbeste itzaldi, ainbeste oarpen eta kontsejuen bidez, deitu nizuten gaxoaldiak bialduaz, auzokoaren eriotzaz, zeruko egi donearen bidez zuen biotza ikutuaz, baia zuen gaiztakeritan eroskor jafaitu zenuten.

Atoz orain, garaia da, uztaroa eldu da, atoz orain zeure egiteen saria artzera, zeure gaiztakerien ondorena (irabazia) artzera, betiko sutan ondatua izatera. ¡Ura bai izango dana sua, egundano itzalduko ez dana, Jaungoikoaren zuzentasunak piztutzen duana ta beti kizkaltzen eta beti bizirik iraun aziko duana. Pekatari arloteak, orduan, amoz eta etsipenez beterik, eta bere etsipenean ortz kifizka aundiak ateraaz ez du Jaungoiko zuzenaren erantzupen au besterik entzungo: Deitu nizuten eta eroskor iraun zenduten zuen gaiztakeritan.

Eta azkenez gaurko Beiaona esaera pozfaia batez amaitzen da: gara beiz bildu ezazute nere mandiora, nere garadira. Zer mandio, zer garadi da ori? Betiko zoriondegira, aingeru ta zo-

rionekoak Jauna goratzen eta maitatzen dauden goietako jauregi aberatsera, egundano negar, oñaze ta naigabearen kutsurik izango ez dan leku alai artara, Jaungoiko gure Jaunak bere alegin eta almen guztiaz bere seme leyal eta zintzoak saritzeko egiñik daukan jauregirik eta zoriondegirik edefenera. Jaunak nai dezala, guztiok egun batean antxe arkitzea.

Ala izan bedi.

EPIFANI ONDORE'KO

VI IGANDEA

Mat. Don. XIII, 31-35.

Aldi artan: Jesus'ek gizataldeai iruli au esan zien: «Zeru-efeindiak norbaitek eskuan artu ta bere soroan erein zuan yebenaziaren antza du. (Azi) au txeena, txikafena da noski; ziltzen danean, ordea, ortzilarik (legumbre) aundiena da, ta zugatz egiten da, eguratseko egaztiak etori ta bere adaretan abi egiteko alain izateraño.» Beste iruli bat ere mintza zien: «Zeru-efeindiak, iru lakari iriñen bean, guztia legamitu arteraño, emakumeak artuta jari zuan legamiaren antza du. Guzti auek irulitan esan zizkien Jesus'ek gizataldeai: ta irulirik gabe ez zien mintzatzen: igarleak itz auetan esana bete zedin: «Nere aoa irulitan irikiko det, luñaren erakuntzatic sakapean egonak aupatuko ditut.

Gaurko Ebanjelioaren adierazleak diotenez Beñionean aitatzen dan zeruetako efeinuak, Eliza Ama Donea' esan nai du. Berionak dio zeruetako efeindia, au da, Eliza Ama Donea zerba aziaren antzekoa dala. ¿Zertan dauka Eliza Ama Doneak zerba aziaren antza? Bi berezitasun azaltzen dizkio gaurko Beñionak zerba aziari, esanaz lendabizi: azi guztietan txikiena dala, ta

uřena: azi au erne ta azitzen danean barazki guztiak bařo aundiago egiten dala ta zugatz galanta egitera eldutzen dala. Eta ain zuzen Beřionak azaltzen dituan bi berezitasun auetan du Eliza Ama Doneak zerba aziaren antza, Eliza Ama Doneak, bada, aziera oso txiki ta apala izan zuan, bařa zerbait indartzen asi zanean luřaren lau egaletara zabaldu zan, bere babesean artuaz norbere anima zeruratu ta salbatu nai zuan guztia.

Ikusi ditzagun, bada, zerbait geiago argituta zerba aziak Eliza Ama Donearekin dituan antza auek, bertatik ateratzeko Jesukristo gure Jaunak bere irudiki ta itzaldi onetatik ateratzea nai zituan ikaskizunak.

Minimum quidem est omnibus seminibus. Lendabizi dio: Eliza Ama Donearen antzekoa dan zerba azia txikiena dala azi ale guztien artean.

Eta egiaz Eliza Ama Donea ere bere antzera, izan zitekeanik ezerez eta arloteena azaldu zan bere asieran.

Jesukristo gure Jaunak bere Eliza Donea zabaltzeko, amabi bidali edo apostoluak aukeratzen ditu; bidali auek jatorřiz lauak ziran, aberastasunik gabeak, ařantzatik bizi ziranak (ařantzaleak) buru motzekoak, gizarte gutxikoak, agintarien laguntza ta bitartekorik ez zutenak. Ala ere Jesukristo gure Jaunak auek bialtzen ditu Eliza Ama Donea luřean zabaltzera esanaz: *Euntes, ergo, docete omnes gentes, baptizantes eos in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti: docentes eos servare omnia quaecumque mandavi vobis.* Joanez, bada, beren artera, erakusi zaiozute gizadi guztiari, bataiatuaz berak Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean: erakutsi zaiezute betetzen nik emandako agindu guztiak.

Aundia izan zan Jesukristo gure Jaunak bidaliai, apostoluai ema zien agindu ta lanbidea, eřialde guztiak bere erakutsien bidez zuzendu ta bideratzera joateko esanaz, bařa ez da makalagoa Jesukristo gure Jaunak ořela bialtzean agindu zien laguntza itz auekaz: *Et ecce egovobiscum sum omnibus diebus, usque ad consumationem sæculi.* Eta ni zuekin egongo naiz egunoro

lufaren azkena arte, au da, zuen zabalkunde ofetan garaile ertengo zerate ta aufera joango dira nere erakutsiak lur guztian zabaldu arte.

Itz auek nere N. E. M. (nere entzule maiteak) afigariak ziran, Jaungoiko batek bere jaungoikozko jakinduriz bakarik esan zezazkean itzak ziran Elizaren asiera artan, baña orduan afigariak baldin baziran, ez dira gutxiago afitzekoak gaur ogei gizaldiren ondoren, ainbeste etsai ta gofotatzale azpiratu ondoren, Jesukristo gure Jaunak esan eta agindu bezela lur guztian zabaldua ta ainbeste on egiten ikusten degunean.

¿Zer lagun eta bitarteko ematen dizkie Jesus'ek bere nai au iristeko? Berdiñik ez duan lanbide oneri buru emateko, gizonak, gizon burutsu ta menak jaun aberats, argi, bitartekotsu eta asko lezaketenen laguntza eske joango ziran, baña Jesukristo gure Jaunak ez, berekin iru urtean ibili zituan gizon beartsu, motz auek, iru urtean eman zizkien erakutsietatik ia batere ulertu (entenditu) ez zien gizon auek berak bakarik bialtzen ditu. Eta ¿nora bialtzen ditu bere Eliza Ama Done au zabaltzera? Berai afera pozgari ta atsegiña egingo zien gizartera bialduko ote ditu? Ez, iñola ere ez. Berentzat eraso, gaiztakeri, zitalkeri ta gogortasuna besterik izango ez zan efitara bialtzen ditu. Berak aitortzen die gañera, bialdu baño len itz auetan: *Ecce ego mitto vos sicut oves in medio luporum*. Begira, ardiak otso artera bezela bialtzen zaituztet. Eta berak zitalkeri ta gogortasunez erasotzen badizute ere, zuek otzantasun eta eratasunez erantzun bear diozute. Eta alaxe egin ere egin zuten, kristo gure Jaunaren Beñona zabaldu ta eñialde aiek gezur eta gaiztakeriaren ilunpe beltzetatik atera ta bertan oitura zintzoak erein naian asi ziranean gofoto bizian jeiki ziran beren aurka; beren gezuñezko jaungoiko izun edo paltsoak kendu ta azpiratu ta Jaungoiko egiatzko bakara agurtu bear zala adierazten asi ziranean gezuñezko jaungoikoen apaiz eta aztiak izugarizko sua piztu zuten eñi guztitan beren aurka; afokeria, loikeria ta berekoitasunaren orde z apaltasuna, garbitasuna ta alkar-maitasunaren onbideak

adierazi ta azaltzen asi ziranean, ez zuten entzun nai, ez zuten ikusi nai egiaren argirik, beren griña galduen ilunpetan naiago zuten bizi ta ofela gogorkeririk aundienaz eraso ta gizonik kaltegarrienak balira bezela gaitzetsi, zauritu ta il ere egin zituzten.

Baña elur, erauntsi ta aize gogoak zugatza (landarea) obeto sustraitu ta luñean sendoago itsasteko izan oi diran bezela, era berean Eliza Ama Doneari bere etsaiak jaso zizkioten erasoaldi gogoak sustrai sendo ta bikañagoa artzeko bide izan ziran. Garbi adierazi zuan egi au Tertuliano jakintsuak itz aietan: *Sanguis martyrum est semen chistianorum*; martirien odola, kristauen azia, kristau beñien azia da; kristauak, bada, Eliza Ama Donearen alde beren biziak ematen ikusten zituztenean, beren eriotza zintzo ta sinismenez beteak ikustean, beste askoren biotzak ikutzen ziran eta eundaka etortzen ziran Eliza Ama Donearen besoetara lengo semeen utsuneak betetzera ta geiago ere ugaltzera. Eta era onetan joan zan zabaltzen luñean Eliza Ama Donea, gaur egunean, kristo gure Jaunaren itza beteaz, lur guztian bere besoak zabaldu ta leku artzeraño.

Major est omnibus oieribus. Eta orain Eliza Ama Donea, azi txiki ura, ain kemen gutxiko gizon aiek erein eta ain lur eta efi nastu aietan aldatutako ura, ainbeste aizealdi, ekaitz eta erasoz astindutako ura aunditu, bikaindu ta lur guztian zabaldu da, bere adar eta babespean gizadi guztia artuaz. Begira luñaren egal guztietara ta alde guztitan arkituko dezute Eliza Ama Donearen adar sustraitua. Eguteran egunaren argieran eguzkia jaiotzen danean Eliza Ama Donearen semeak argituaz sortzen dan bezela, iluntzean ere bere saferan bere eñañu motelak bialduaz eskutatzen danean, Eliza Ama Donearen semeai bere azkeneko argi izpiak bialduaz iltzen da, ta gu ilunpean utziaz guregandik aldegin eta gure beste aldeko lur beñiak argitzen dijoanean ere beti Eliza Ama Donearen seme egiñakin arkitzen da beñiro goiz-goizean bere argi txifintakin guregana azaldu ta eldu arteraño.

Aprika'ko bastar etze, gizon beltzak bizi diranetan, Txina'

ko lufalde aundi aietan, Ameriketa'ko lur beñietan, Ozeani'ko basabeltz ikañagañietan, gizonak bere oña ezañi duan alde guztietan Eliza Ama Doneak ere bere argia ta sinismena ezañi du egundaño geiago ez itzaltzeko.

Izan ditu, N. E. M. Eliza Ama Doneak erasoaldi gogoñak, izan ditu eñege ta emperadoreak beren indar guztiaz Eliza Ama Donea lertu ta ondatu nai izan dutenak, izan ditu Eñoma'ko Aita Santuak giltzape tzañetan (kartzelatan) sartu ta euki dituztenak, izan ditu eñegeak bere eñeinditik Eliza Ama Donea ezezik bere aztañen guztiak ere ayenatu nai izan dituztenak, izan ditu, oraindik aldi asko ez dala Mejiko'n bezela, Eliza Ama Donearen aberastusun eta bizilege guztiak ostu ta lapurtu dizkiotenak, baña ez dio ajolik, begira andik amar, ogei, beñogei urtera an ingurura ta eñege ta enperadore año aiek galdu ziran, agintari gaizto aiek il ziran, eñialde ta eñeindi aundi aiek goikoz bera erori, luña jo ta ondatu ziran eta bitartean Eliza Ama Donea or dago zutik, lerdan eta ditzikor eta auñera dijoa lurtzabal guztian pakea, alkartasuna, garbitasuna ta jakinduria zabalduaz.

¿Quid timidi estis modicæ fidei? esango nieke Eliza Ama Donearen alde beren arpegia azaltzen lotsatzen diranai, ¿zergatik bildur zerate sinismen gutxiko kristau oiek? Zergatik bildur zerate, esango nieke baita ere eñege ta agintari gaiztoen erasoaldien bildur diranai ere? Eliza Ama Doneak Jesukristo gure Jauñaren indar neuñigabea asieratik berekin du ta Espiritu Santuaren laguntza beti berekin darama, beraz egundaño ta iñola ere ezin grakatu, ezin ukatu lezake lufeko gizonen alegiñen auñean, auek txikiak eta ezerezak diralako Jaungoikoaren esku guzialdunaren aldean.

Eskeñak eman genezaizkioke, bada, Jaungoikoari guraso kristau ta katolikoetatik jaio ta Eliza Ama Donearen babespean artu giñuzelako. Maitatu dezagun gogoz eta biotzez beti Eliza Ama Donea, bere Buruan, bere erakutsitan, bere ikasbide-tan, bere sakramentu ta jañaitzañetan. Euki dezagun beti bear degun begirune ta eñespetua bere artzai ta apaizentzat eta batez

ere Aita Santuarentzat eta gure alegin eta indahez lagun dezagun Eliza Ama Donearen alde, era onetan egunen batean Eliza Ama Donearen seme leyalak bezela, betiko efeindi zoriontsuan artuak izan gaitezten.

Ala izan bedi.

IRUROGETA AMAREN

IGANDEA

Mat. Don. XX, 1-16.

Aldi artan: Jesus'ek bere ikasleai iruli au esan zien: Goizean goiz bere mastirako langile bila erten zan uguzabaren antza du zeru-efeindiak. Eguneko denari banan ituntza langileakin egin ondoren, mastiruntz bialdu zituan. Eta lanaldiko irugaŕen ordu aldean ertenda, beste (langile) batzuek zeian alper egonean ikusi zituan, eta esan zien: Zoazte zuek ere nere mastira, ta bidezkoa dana emango dizutet. Berak orduan joan ziran. Beŕiro ere seigaŕen eta bederatzigaŕen orduan erten zan, eta berdintsu egin zuan. Amaikagaŕen ordu aldean ere erten zan, eta beste batzuek arkitu zituan egonean, eta esan zien: ¿Zergatik zaudete emen nagiketan egun osoan? Iñork ez gaitu arungatu-ta, esan zioten. Zuazte zuek ere nere mastira, esan zien. Ilunabaŕeratu zanean, bada, mastandaŕak aztergiñari esan zion: Dei zaiezu langileai ta itzul zaiezu abergoa (jornal) azkenengandik asi ta aŕnenenganaño. Amaikak aldean laneratuak etoŕi ziranean, bada, denari bana artu zuten. Aŕnenak ere etoŕi ziranean, geiago artu bear zutela uste zuten. Eta artzaleak maxiatzen zuten ugazabaren aurka esanaz: Azken oiek ordu betean (bakaŕik) lan egin dute, ta oien berdiñak egin gaituzu, gu egun osoan nekatu ta izerdituta. Baña ark erantzunaz aieta-ko bati, esan zion: adizkide, ez diat bidegaberik egiten: Ez al-

aiz, bada, denari batean nerekin itundu? Ar zak (bada) eurea ta oa: gogoak eman ziak, bada, azken oni ere iri bezelaxe ematea. Ala eskurik ez ote zeukat neure gogoa egiteko? ¿Ire begia gaitzaz joa ote zio, ni ona naizelako? Onelaxe izango dituk azkenak auren, eta aurenak azken. Azko dituk deituak, gutxi, orde, autetsiak.

Aita onak beti bere seme ta alabak gogoan dauzka bide zuzenetik eraman eta onbidean ezitzeko, ta onegatik Aitarik onena dan zeruko Aita Betikoak gu bere semetzat gauzkanak beti ta une guztitan gure onari begira dago. Seme galdu ta ondatzalearen Aita egunero muño tontofera jua eta bere seme galdua beragana itzultzen noiz ikusiko zuan begira egoten zan bezela, Jaungoiko gure Jauna ere guri jafrika dabil unerik une gure bizitza guztian, eta gure biotzaren atean dago beti, deika, guk biotza noiz irikiko diogun zai, gure biotzaren bafuan bizi naian, gure biotza berenganatu naian eta betiko zoriondun izateko bidetik eraman naian.

Langileak, lufean bizi dan gizadi guztia adierazten dute, afaak, umeak, gazteak, aziak eta zafak, guzti-guztiak, bat-batetik utsegin gabe; guztiok gera Aita Jaungoikoaren semeak eta ofegatik guztioi deitzen digu lanera ta denari dirua ta berak irudikatzen duan (dirudin) betiko zoriona irabaztera.

Mastiak gure anima esan nai du, ta mastia atxurtu ta ongaritzen ezpada, aldakaitzak moztu ta txermenduak inhausten ez bazaizkio ez du matsik ematen eta belar txafak, lafak eta sasiak ito ta aldakaitzak eta txermenduak bere izerdia ta ezakia jaten diote. Era berean gure anima ere jatofizko pekatua ezkeru beti belar txafa ematen dago, beti gaitakerira garamazki ta bide okefera makurtua dago; ofegatik beti lanean eta ekiñean jardun bear degu gogo ta naikeri txar oiek moztu ta menderatzen, elizkizun, sakramentu ta egite onen bidez gure anima ongaritu ta indartuaz.

Orduak gizonaren bizitzako garai ta urtearoak dira. Aur-tzaroa, umetzaroa, gaztearoa, gizaroa ta zartzaroa ta Jaungoi-koak urte auetan guztitan deitzen digu beregana, gure animako lan eta arazotan ekin eta jardutera gure betiko zoriona, gure sari bikain eta berdingabe ura irabaztera.

Denaria, azkenez, iru efialeko dirua zan eta orain ogei urte langile onak iru peseta irabazten, zituan bezela, Jesukristo, ren garaian iru efial irabazten zituan eta janaria orduan merke izaten zalako, naikoa izaten zan irabazi ura sendi edo familiko bizitza legea egiteko; baña gaurko Beñion'eko denari onek, gure anima bide onetik eramaten, bide zintzotik erabiltzen egi-ten degun lanaren sari, ordaña, abergoa esan nai du, au da, be-tiko zoriona.

Onela, bada, gaurko Beñionak dio sendi edo familiko aita goizean goiz mastirako langile bila erten zala, eta onek adieraz-ten digu jaiotza unetik deitzen digula Jaungoikoak beragana, baña gu gerenez ezer egiteko gauza ez geralako gurasoak bear-tzen ditu gu Ugutza (Bataio) donera eramateko eta ofela Ugutz (Bataio) donearen bidez jatorrizko ogena kentzen zaigu, Eliza Ama Donearen bañuan sartzen gera, gure anima aingeruzko jantzi edefez apaintzen da ta zeruko goiargi, esker eta lagun-tzak irabazteko gaian jartzen gera.

Beñionak adierazten digu irugañen orduan atera zala beñiro langile bila, ta irugañen orduan au umetzaroko garaia da. Garai onetan deitzen die Jaungoikoak umeai beren gurasoak erakusten dizkien gauza onen bidez, aitaren, gurutze santuaren, Aita Gu-rea, Agur Maria ta Elizaren beste otoitzak ikasiaz beren bañuan somatzen duen kristau bizitzaren bidez, kristau-bidea edo do-triña ikasiaz, beren burua argitzen duten lege ta eliz egien bidez eta batez ere lenengo Jaunartzea egiten dutenean; orduan Jesu-kristo gure Jauna, kristauaren bizitza, argitasuna ta guztia dana jeisten da lenengo aldiz bere gorputz, odol eta anima Jaungoiko tasunarekin baturik umearen biotzera ta ixurtzen ditu ugari ta-sunez bere onespen edo bendeinkapen, bere esker, goiargi ta

laguntzak eta animaren bizitza indartzen du zeruko argitasunik ederen eta bizienaz, eta ofela egun ura izaten da askotan bere bizitzako egunik pozkafi ta alaiena, bere biotza, bere gurasoak, bere anaiak eta etxe guztia poz eta alaitasunez betetzen duana, eta Jaungoikoaren deia gozoroena entzuten duana.

Beñion doneak dio, langile bila atera zala beñiro seigañen orduan eta mastira, bialdu zituala arkitu zituanak. Seigañen orduko dei onek gazteai egiten dien deia esan nai du. Garai onetan egiten ditu Jaungoiko gure Jaunak deirik bikañenak, eta ikuturik bizienak gure biotzetan. Gaztearen griñak piztuak daude garai onetan, indařak bikañak, ta osasuna ta bizia eskeñiaz bezela bizi dan gazteak bere griña oiek, bere indar oiek, bere osasun eta naiera ori obeto bete ta zorionduko duan zerbaiten bila dabil, zorionez ase nai luke ta berealaxe ta bertan arkitu ta eskuratu nai du bete-betean zorion ori ta ofetarako jolas, atsegin, aizekeri ta zirimita guzitara jotzen dute ez da gelditzen askotan bere indar, osasun eta egiazko zoriona galdu arte.

Orduan gaztea etxeratzen danean; biraukerian, izketa lizunetan, loikerian, moskorkerian eta beste ibilera biuritan lagundu dioten adizkide gaiztoak utzi ta etxeratzen danean eta bakartasunean arkitzen danean, ¿zer ibili naiz? galdatzen dio bere buari, ¿zer egin det nik gaur? ¿nola ibili naiz ainbesteraño itxutu ta zoratua? ta bere bakartasun artan damutzen zaio, biotza garazten zaio ta ořa or Jaungoiko gure Jaunak egiten dion dei bizia, dei zofotza, bere ibilera, bere adizkide biuri ta bide galdu aiek utzi ta Jaungoikoaren deira etortzeko.

Beste batzutan gazte ofen guraso, anai ala adizkideren bat bapateko eriotzaz iltzen da, edo automobilak jota, edo itxasoan itota edo erori gogofen baten bidez eta bere gorputz ilotza ikustean, onenean atzo berakin izketan alai ta gozaro ibilia, ikaritzen da ta ikusten du bere gaztetasun, bikaintasun eta bizitzaren uskeria Jaungoikoaren deia sendo asko bere bařuan somatuaz, bide zintzo ta zuzenera deituaz.

Bestetan Jaungoikoak beretzat deitzen dio gazteari, ordura

arte zearo garbi ta zintzo iraun badu bere bizitzako zintzosun osoa berari eskeintzea eskatzen dio ta beragana bakartasunera ta bere adizkidetza ixil eta gozora deitzen dio, ta gaiztoa ta pekataria izan bada, beñiz, bere donetasun eta garbitasunaren edertasuna erakutsi ta beren gogoa ta zaletasuna sarturik, ogen eta zitalkeri aiek garbitu, txukundu ta Jaungoikoikoaren maitasun beñian bere anima zuzpeltu ta irazekitzera deitzen dio. ¡Eta bai zoriontsua dei oneri gogoz entzun eta jañaitzen diona! Zoriontsua luñean, bertako arantz eta laztasunen artean biotzeko ta animako pake ta egiazko alaitasun gozoan bizi dalako ta zoriontsua batez ere zeruan egundo amaituko ez dan egun argi artan sari aundia, sari bikaña artuko dualako. *Merces tua magna nimis*, Zure saria, zure irabazia aundia neufigabe ta aunditasunez gañezka izango da.

Beñionak jañaitzen du esanaz ugazaba beñiro bederatzigañen orduan atera zala ta langileak mastira bialdu zituala. Bederatzigañen ordu au garai artan añatsaldeko irurak aldeia izan oi zan. ¿Eta nor dira bederatzigañen orduko langile auek? Lengoa baño auñeratuagoak, aziagoak dira, bizikera edo estadua artu dutenak, eskontzako sakramentuaz alkartu diranak. Orain artean otz samar, Jaungoikoaren bidetatik uruti samar ibili badi-ra ere Jaungoikoak orain beñiz sakramentu done oñetan senar-emazteai ematen dien grazi ta goiargi bereziaz beregana deitzen die, ta laguna ematen die lur onetako beañetan alkañi lagunduaz gañera, beren anima zeruratzeko alkar leyatu ditezen. Bederatzigañen ordu onetan Jaungoiko gure Jaunak eskonduai deitzen die beren bizikerako eginbeañak bear bezela bete ditzaten, beren arteko alkartasuna bizitza guztirako Jaungoikoari eskeñi ta santifikatu dezaten, sañitan Jauna arturik beren biotzak garbitu ditzaten eta batez ere beren semeak zintzo azteari ajola ta ardura aundiaz begiratu dezaioten. Idazlari jakintsu batek onelako ide-tasun (konparazio) bat jartzen du gai onetan: Upel bateri bere bañuan lenengo aldiz egotzitzen zaion ardoaren sunda luzaroan, eta esate baterako, betiko gelditzen zaioan bezelaxe, aur eta

umeai ere beren biotz garbi ta ezer ikusi gabetan betiko ezafirik gelditzen zaizkiela aufeneko urtetan beren gurasotan ikusi, entzun eta ikasi dituzten erakustaldiak, eta onenean gaztealdian beren griñak eramanda ekerbidera jotzen badute, etofiko dala iya beti eguna, txikitako ikasbide oiek zintzotu ta beñiro bide zuzenera ekañiko dutena. Ofegatik, bada, ardura ta añeta aundia jañi bear dute gurasoak lenengo urte oietan beren semeak azitzen, gero onako zintzoak eta zoriontsuak ikusi nai badituzte ta ofetarako ez da bide bat besterik, Eliza Ama donearen bidea.

Badira gurasoak il da bizi luñeko ondasunai bakañik begira bizi diranak, bere anima ta beren semeen azimen onari begiratzeko betarik gabe luñeko auñerapenetan lotuak dabiltzanak, bañña onelakoak ondasun ugariak egiten badituzte ere beren buruai ta semeai kalte ikaragañia egiten ari dira, laister beren irabazi aiek beren eskutatik zearo utzi bear dituzten ondasun oien ordezt, bada, beren anima betiko ondamenaren amildegira daramate ta beren semeai bear dan garaian ezimen arduratsua ematen leyatzen ez diralako beren irabazi guztiak, beren bizitza guztian ler egiñez eta lanean puñukatuaz auñekatu dituzten ondasun oiek semeak beren biziera txañakin aldi gutxi bañu pañaztadan eralkitzeko eloñioan jartzen dituzte.

Eguzkiaren eroñeran, amaikagañen orduan erten zan azkenez ugazaba ta langileak besoak gurutzetuta ikustean, esan zien: Zertan zaudete emen egun guztian utzean. Zuazte zuek ere nere mastia atxurtzera.

Egunaren amaieran lanik gabe dauden langile auen bidez, beren animen alde zartzarora arte ezer egin gabe, beti geroko geroan egiteko, beti gerorako ames eta asmo utzetan igaro duten zañak adierazten zaizkigu.

¡Zenbat dira ofelakoak, beren gaztearoan, beren gizaroan luñeko zeregin, arazo ta atsegiñetan bakañik dabiltzanak, urtearen zatirik aundiena ogen lañian igarotzen dutenak, aitorzaren bidez garbitzera leyatu gabe, ta animaren osasuna, betiko zorionaren irabazia zartzarorako ta azkeneko ordurako ere uzten du-

tenak! ¡Ay onelakoak, bai benetan efukafiak eta zorigabeak dirala! Baña betiko leizbeltzera, inpernuara ondatzen diranean ez dute izpiderik izango, ainbeste aldiz eta ainbeste eratarra Jaungoikoaren deia entzun eta beste ainbestetan beren biotza itxi ta erantzuna ukatu ziotelako.

Asko dira zartzarorako uzten dutenak beren animaren zerurapena ta zartzarora eldutzean; ¡ay zein gogofa egiten zaien bide zuzeneratzea, len gaiztakerian eta pekatuan bizi izan diranai!

Eta zartzarorako uzten duten auetako geienak urte oietara eldu baño lenago iltzen dira, bizien eta ilen zenbaketak garbi erakusten digute, bada, eunetik bost bakañik eldutzen dirala irurogei urtetaraño, ta bizirik irauten duten auetako askok lengo griñetan jafaitzen dute, biotza lengo oituraz gogorturik eta lengo asmo, lei ta zaletasunak beren biotzetan itsatsiak eukirik, aien loturak ausi ta etetzen zaia zaielako.

Onela eldutzen da, bada, iluntza edo gaua, gaurko Beñionak dionez denari edo eguneko lanaren saria artzeko garaia. Onela eldutzen da gure bizitzaren gaua ta gure egiteen epaia artuko degun une lafia. Beti, unetik unera, etengabe ibaia itsasora bezela gau ortara goaz ta igarotzen degun une bakoitza moztutzen, laburtzen dijoa gure bizitzaren aria; gaua geldialdirik gabe gañera dator beti, ta gure bizitzaren gau au eldutzen danean ezin iñork geiago lanik egin al izango du gure betiko sari ofen alde, ordurarte egiñak bakañik aintzakotzat artuko dira. Une onetan gure anima gorputzagandik banatzean, berealako batean Jaungoikoaren epaitegian aúfean arkituko da betiko sari bikaña ala zigorkada beltza artzeko.

Une ikaragafi onetarako gertutzeko gure esku dauzkagu bizitzako urtearo guztiak. Arduratu ta alegindu gaitezen, bada, guztiok bakoitzari dagokigun mañan, ernai ibili gaitezen gerorako utzi gabe gure gaiztakeri ta pekatuak egizko damu ta aitortza on batez garbitzen, alegindu gaitezen Jaunaren adizkidetza ta grazian bizitzen eta beñiz erortzen bagera pekatuan jeiki gaitezen

lenbait len sakramentuen bidez, era onetan gure nagikeria garaituaz, gure zabartasuna ausiaz ta gure alegiña ipintzen arduratuaz gure bizitzaren gaua eldutzen danean Jaunak eman dagigun gure bizitza onetako alegin, lan eta leyaketen sari bikaña, zeruko atetik betiko zorionera sartzeko eskubidea emango digun denari zoriontsu pozgafia.

Ala izan bedi.

IRUROGEI - URENA

Luk. Don. VIII, 4-15.

Aldi artan: Gizatalde aundiak bildu ta urietatik Jesus'gana eldu ziranean, anzpide au esan zien: Efeilea erten zan bere azia ereitera: ta ereitaldian eskukada bat bide ertzera jausi zan eta iztikatua izan zan eta eguratzeko egaztiak bera jan zuten. Beste bat, beñiz, ari artera erori zan eta erne ondoren igartu egin zan ezakirik ez zulako. Ufengo bat lar artera jausi zan eta zuzpeltu ziran lafak bera ito zuten. Beste bat lur onean jausi zan eta ernetakoan bateko eun eman zituan. Au esanaz, otsegiten zuan: Belari entzunkoiak dituanak, entzun beza. Bere ikasleak, beñiz, galdezka zeuzkan zer izan liteken iruli au. Ta berak esan zien: Jaungoaren efeindiko mirarien beñi zuei dagokizue jakitea, gañerakoai, beñiz, irulitan, dakustela ikusi ez dezaten eta dantzutela (entzuten dutela) adi ez dezaten. Irulia, bada, au da. Azia Jaungoikoaren itza da. Bide ertzekoak, beñiz, (Jaungoikoaren itza) entzuten dutenak dira: (baña) gero etsai beltza etofi ta beren biotzetik itza kentzen du, sinistuz gaizkatu (salbatu) ez ditezen. Ari artekoak, beñiz, itza entzutean, pozik artzen dutenak dira, baña eforik ez eukirik, labur sinisten dute ta zirikaldean ukatu egiten dute. Lar artera jausitakoa: entzun zutenak dira baña bizitzako arazo ta aberastasun eta atseginkeritara biribilduz ito

egiten dira, ta ez dute arnaririk (alerik) pikortzen (ekartzen), Lur onean jausiak, beřiz, biotz on eta zintzoan itza entzunda eukitzen dutenak dira, ta eramanean arnariz ornitzen diranak.

Gaurko beřioneko ereilea, Jesukristo gure Jauna da ta lur-bira onetan ezarri ta utzi zuan bere Eleiza Ama Donea. Eleiza Ama Done onetan leku artzen dute Kristo'ren ondorengo ta bi-tarteko bezela Eleiza'ren buru dan Eřoma'ko Aita Doneak, Go-tzai edo Obispoak eta Apaizak, beren gain ereile lana artuaz Kristo gure Jaunak bere aoz itz auetan agindu zien bezela: *Ite et prædicate Evangelium omni creaturæ*. Zuazte ta izaki guztiai Beřiona bařeatu zaiezute.

Beřion onetako ereileak ereiten duan aziak, beřiz, Jaun-goikoaren itza esan nai du. Azia N. E. M. ale txiki bat da, ia begiaz ikusten ez dana azkotan, bařa azi ura lur gozoan, lur gizenean erein eta irotu ondoren pizkanaka erne, azi ta landare galen eta zugaitz bikařa ere egiten da, bere beso ta adarretan lore atsegin eta usaindunez apaintzen da ta lore zerenda eder auek bere garaian burutu ta zilur (frutu) gozo-ezti biurtzen dira.

Era onetan Jaungoikoaren itza ere gure belarřiak jo ta biotzera eraizten da, ta biotz mintzetan bařura sartu ta gizonaren biotz mintzari pilpil (dardar) eragiten dio ta biotza beraskatzen du ta itz onek Jaunaren goiargi edo graziarekin baturik dagoalako gizonagan sinismena sortzen du, Pablo Bidali Doneak adierazten digun bezela: *Fides ex auditu*, sinismena entzumenetik, belarřitik, *auditus autem per verbun Dei*, bařa ez edozein itz entzutetik, baizik Jaungoikoaren itzetik.

Aziak beraz, lufean erein gabe, sustrairik, landarerik, lorerik eta zilurik (fruturik) ezin eman lezazken bezela, Jaungoikoaren itzak ere gizonaren biotzean ereiten ez bada ezin ondoren onik eman lezake, ta aziak lur zakarfean, itoan, sarean eta gizenean zilur ezberdiřak eta gutxiago ala geiago ematen duan erara,

Jaungoikoaren itzak ere belafi ertzera, biotz azalera. ala sakonera eldu, baita ere ondoren lausoagoak ala bikañagoak eman oi ditu; ta ofegatik aitatzen dizkigu, bada, gaurko Beñionak ainsteste lur sail, beren bidez Jaungoikoaren itza entzuteko gizonaren biotzean oi diran gertuerak mañaz mail adierazi nairik, eta azi on ori erne, kelmendu ta zilurtzeko biotzean euki oi diutgun eragozpenak lautu ta berdintzeko bide egin eta gureganatu bear ditugun laguntzapide ta ongafien befi emanik.

Onela, bada, Beñionak dio lenengo eskukada edo azi pila bide^oondoan erori zala. Galsoro ta edozein azi erein oi dan soro ertzean sañitan bidetxior bat, bide medar, estu bat igaro oi da ta bidez kari ta ibiltariak andik bañuna dabiltzanean, batzutan lokaztua ta txistildua dagolako ta bestetan bidean bi alkar arkitzean batak besteari leku uzteafen, galsoro edo erein soroaren espanetik igarotzen dira ta onegatik galsoroaren ertz asko zanpatuak, gogortuak egon oi dira. Bide ondcan zegoan onelako ertz batera erori zan, bada, gaurko Beñionean aitatzen dan lenengo eskukada azia.

Soro ertzeko lur zanpatu au gizon biotz gogofen irudi bizia da, gizonak Jaungoikoaren bideak oñazpiratzen ditunean, Jaungoikoaren legeak bastartzen ditunean bere zetak, bere nakeriak iristeko, bere biotza gogortu ta gortu egiten da Jaungoikoaren aginduak eta esanak entzuteko ta bere asmo bidegabea bete naian bastar utzitzen ditu Jaungoikoaren itz eta deiak.

Orduan, dio Beñionak, txoriak etofi ta zanpatutako lur azalean gelditu ziran aziak jan zitusten. Au gertatzen zaio gizon gaizto, Jaungoikoaren itz eta aginduak zapalduaz bizi danari; bañuko utsunea zerbaitez bete nairik lufeko jakinduri aize ta azaleko gorapenak iristen leyatzen da ta lufeko aunditasunen txoriak buruan dabilzkin bitartean etsaiak, txefenak biotza, anima bere mende, bere esku eukitzen dio ta beretzat atxitzen dio.

Onelako gizon galdu ta pekataria batere ez ala gutxitan eleizan sartzen da ta bein edo bein eleiz itzaldiren bat entzun eta Jaungoikoaren egi mardul eta sakonak biotzeratzen bazaiz-

kio al bait lenen kentzen eta sakabanatzen ditu bere biotzetik, oroipen mikatz aiek, egi argi aiek bere bañuan daukan azaleko poza kezkatu, gañaztu ez dezaten eta etsaia, txefena bera ere alik bare ta paketsuen bizitzen da berea duan anima beltz ofetan.

Bigañen eskukada azia añi gañera erori zala, dio Beñionak. Luña atxurtu ta lantzen ari diranean luñean arkitzen dituzten añiak albo batean pilatzen dituzte ta onelako añi pila baten gañera erori zan, noski, bigañen eskukada azia ta añi arteko zulo ta txiñikitutik luñeraño eldu zan ta bertan erne zan.

Onek idurikatzen ditu Jaungoikoaren legea betetzeañen eleizara etortzen diranak, igande ta jai egunetan meza entzutera etortzen diranak eta Jaungoikoaren itza entzuteko gogo aundirik gabe, berdiñean onenean entzun gabe gelditu naiago lutekela entzuten dutenak; eta añi pilak aziari luñera eldutzeko eragoz pena jartzen dion bezela, kristau auek ere beren bañua, beren biotza itxi ta otz jartzen diote Jaunaren itzari, baña ala ere Jaungoikoaren itzak indar aundia dualako eta danik eta biotzik gogor eta legofena ere biguntzeko lain badalako, Jaungoikoaren itza añi txiñikitutik azia bezela, beren bañura sartzen da ta egiaren argitan beren bizitzaren bidegabekeria somatzean, galbide oiek utzi ta bide onera etofñi naia bañuan sortzen zaie, baña pekatu ta bide gaizto oiek zearo utzi ta eten eta bide zuzenera etortzeko egizko gogo ta indar garairik ez daukatelako, gaiztakeri ta bide gaizto oiek zerbait zuzendu ta Jaungoikoaren bideari jafaitzeko asmoak artzen dituzte, baña eleizatik erten eta beren eginkizunetan jafaitu ta lengo galbideak, egokiera gaiztoak sortzen zaizkienean biotza aultzen zaie, lengo asmo on oiek legortzen dira ta lengo gaiztakeri ta pekatuetara jausten dira, beren biotza Jaungoikoari eskeintzeko, eragozpen aundiagoaz beren buruak lotuaz.

Beste eskukada lar artera erori zala dio Beñionak. Lur geienetan izan oi dira bastertxo batzuek sasi, lar, kardo ta belar gaiztoak sortzeko berakor diranak. Lur auen bañuan, atxurtu ta

garbitu aŕen, nekez zearo ayenatzen dira belar zakar auen azi eta suster gaitzak. Onela arkitzen zan luŕera erori zan noski, irugaŕen eskukada ta landare onekin batera azi ziran belar txar eta arantzak ere ta landare onari burutzen galerazo ta beren artean ito zuten.

Ereitaldi onek, gogo onez eta leyaz Jaungoikoaren itza entzun duan eta bere baŕuan aŕetaz artu duan kristaua irudikatzen digu. Baña bere biotzean azi ta belar txarŕen susterak zearo kendu gabeak daude, luŕeko aberastasunen zaletasun geiegia dago, luŕeko jolas eta apainkerien gale bidegabea dago, luŕeko maña goitara iritxi naiaren egaŕiz dabil, bere burua jakintsu aizez azaldu nairik irakurgai debekatu eta pozoi, eden utsa diran gaiak ikasten dabil eta jakiña, Jaungoikoaren itzarekin batean deabruaren, txeŕenaren itza nastutzen du, Jaungoikoaren itzaren argitasunakin galbideko iŕistaŕi ta irakurgaien iluntasunak, azalez bakaŕik argiak diranak batu ta alkartzen ditu ta azkenez txarbidetik oiek nagusitzen dira ta beren zarpetan itotzen dute Jaungoikoaren itza ta beraren argitasun zuzenkoia. Zaletasun eta maitasun auek beren biotzetan geiegi itsatsirik dauzkaten auek ez diote Kristo gure Jaunak bezela esaera eu: ¿Zer auferatzen du gizonak lur guztiko aberastasun eta aunditasunak bereganatuta ere, azkenean bere anima galtzen badu? Baizik beren amesa ta zoriona luŕeko ondasunetan jaŕirik onela diote itzez ez bada ere beñepein egitez: ¿Zertarako beti zerubidetik ibili, bertatik ibili ezkerok irabazpide debekatuak dirala-ta, aberasteko egokiera galdu erazten badute? ¿Zertarako zeru bidean beti ibili, nor bere burua edeŕago azaldu ta goi-maletan andiki aizez, zerbait nabarmendu ezkerok, ibili al baliteke? Ta era onetan luŕeko zorion egaŕia nagusitzen da beren biotzetan eta itotzen du zeruko zorionbidea.

Eta egoki deitzen die Jesukristo gure Jaunak arantzak luŕeko ontasun oiei, iritxi artean, bada, berak eskuratzeko galea, leia, egaŕia eman oi dutela ta iritxitakoan asko ta askotan

len ustetako zorionik eskuratu ez eta safitan biotza kezka, miñez, arantzaz gañazten dutelako

Lur gozoan erori zan azkenez ufengo eskukada azia ta bateko eun eman zituan. Lur onean, au da, ez zapalduan baizik samufean, sarean. ez afiz josian baizik lur utsean, ez azi nastu ta suster txafak josiak zeuden lufean baizik lur garbi ta ongi simaurtu ta ongañituan eta emen azia eferez erne, mardul azi, bikain burutu ta zilur (frutu) ugaría eman zuan. Era berean gizonak gogo onez eleizara joan, Jaungoikoaren itza afetaz eta asmo garaiz entzun eta galbidera ta gaiztakerira len eramane oi zuan egokiera ta labainbide aiek utzi, eten eta kristauak bere bidetan sendotzeko Jaungoikoak bere Eleiza Ama Donean jañi zituan sakramentu ta bide onetan ibiltzera erabakitzen bada, ez dago baezpadarik, gizon, kristau au eragozpen guztien aufean garaile ertengoda, Jaungoikoaren eskua, laguntza ta bedeinkapena berekin izango ditu ta berak egiten duan bateko eun emango dio Jaunak lur onetan eta batez ere zeruan; baliteke aldi, urte batzutan Jaungoikoak kristau au aztertzeko, probatzeko zailtasun, neke ta estuasun gogor samafak bialtzea, baña bere bidetan eramane onez, zintzo irauten badu lur onetan bertan bedeinkatuko du kristau au ta bere etxea ere erosotasun oparoz inguratu ko du ta batez ere betiko zorionean bere eskuz leku bikain eta gañena jaso ta egokituko dio.

Oaña, bada, zein erakutsi gozoak eta argiak ematen dizkigun Jesukristo gure Jaunaren gaurko Beñion doneak. Berai jañaitzen askotan zail izango zaigu, baña ez degu batere afitu bear, berak dio, bada, Idazteunean: *Regnum cælorum vim patitur*, indafez irabasten da zerua. Saiatu, alegindu ta indar egin dezagun, bada, bere bidetan zintzo jokatu ta ibiltzeko, bein edo beñiz jausten bagera jeiki gaitezen beñiro ta azkar indar edo gogoak beñitu ta sendotuz eta onela egiñaz egun batean nagusi izango gera, aberats, andizki, ikusgañi ta zeruko zoriondegian goi-goi ko mañen jabe izango gera betikotasun guztian.

Ala izan bedi.

BEROGETAMAR - URENA

Luk. Don. XVIII, 31-43.

Aldi artan: Jesus'ek amabi (bidali) berekin artu zituan eta esan zien: Begira, Jerusalem'era igotzera goaz eta Igarleak gizonaren Semeagan idatzitako guztiak beteko dira. Beltzen (jentilen) eskuetan jafia izango da, ta txoska ibili, azonatu ta lixtukatuko dute; ta azonatua izan ondoren, il egingo dute ta irugañen egunean piztuko da. Aiek, ordea, ez zuten ezertxo ere ulertu, ta itz auek berentzat arotzak ziran, eta ez zien igartzen zer zienik (adierazten zuten). Jeriko'ra uferatu zanean, itxu bat bide zearñean exerita zegoan, eskean. Eta aurretik zihoan gizataldearen ota entzutean, zer gertatzen zan galdezka zegoan. Eta esan zioten, Jesus Nazarekoa andik zijoala. Orduan deadar egin zuan, esanaz: Jesus, Dabid'en seme oñek, izan nere eñuki. Eta aurretik igarotzen ziranak, gogor erasaten zioten ixil zedin. Berak, ordea, orduan eta gorago deadar egiten zuan: Dabid'en seme oñek izan nere eñuki. Gelditurik, orduan, Jesus, Beragana ekar zezaiotela agindu zuan. Eta uferatu zanean, berari itandu (galdetu) zion esanaz: Zer nai zenduke. Ta ark erantzun zion: Jauna, ikustea. Eta Jesus'ek esan zion: Ikus zazu, zure sinismenak gaizkatu zaitu. Eta bapatean ikusi zuan, eta ari jafaika joan zan, Jaungoikoa goratuaz. Eta eñi guztiak ikusi zuanean, Jaungoikoari irintzi zegion.

Barautearen (Garizumaren) saferako atetara uferatu gera ta Eleiza Ama Doneak igande onetan Nekaldiaren (Pasioaren) gogorakizun labur bat egiten digu Jesus'en aotik erten ziran itz auek esanaz: Idazleak aspalditik idatzia daukatenez, gizonaren semea «Jentilai saldua izango da, isekatua, azonatua, (zigorkatua)

ta txistuz betea izango da, ta zigorkatu ondoren il egingo dute, baña irugañen egunean piztuko da».

Eleiza Ama Doneak jakinduri aundiaz gogorazten digu gaurko egunean Jesukristoren Nekaldia, bere oroipenaren bidez obeto gertu gaitezen garizuma (baraute) aldirako ta Iñauteritako egun labain auetan gogoz arduratu gaitezen geiegizkeriko lekuetatik urutiratu ta Kristo'ren bidetan sendo irauten.

Pablo Bidali Doneak dio: Ogen (pekatu) lañi bat egitea, Kristo gure Jauna beñiro gurutzilzatzea bezela dala, ta au ala izanik, zenbateko naigabea ez dio emango Jesus'en Biotzari ez pekatu batek bakañik, baizik Iñauteritako egun zabar auetan egiten diran ainbeste ta ainbeste pekatuk. Onegatik Eleiz Ama Doneak Jesus'en Biotz iraindua zerbait pozkidatzeko, bere biotza bigundu ta berak zigorkada edo azona gogofik bialdu ez deigun eta pekatarien gaiztakeri ordañez eginkizun onak eskeñi ditzaizkiogun eleizkizun bikañak egiten ditu Eukaristi Donean Jauna agirian jañirik. Joan gaitezen, bada, eleizkizun oietara jai-erarik aundienaz Jesus'en Biotz gurenak bere esku zofotzaren ordezt, esku kupidatsu ta efukitsua gurekin izan dezan, gure lengo ogenen barkamena sendotu ta egun auetan pekatu artean dabilzan pekatari gizajoen begiak iriki ta damutasunez beterik Jaunagana biurtu ditezen.

Gaurko Beñionak adierazten dizkigun Nekaldi'ko gertaera auek ain argi bidaliai aitatu añen auek ez zioten ulertu, entenditu Jesus'i itz aiekaz zer esan nai zien. ¿Zergatik? gizona zer dan pizka bat buruan erabiltzen badegu, pizka bat gogoratzen badegu laister jausiko gera zergatik bidaliak Jesukristo'ren aita-men lau ori ulertu, entenditu ez zuten. Izan ere gizonari egiegia dan zerbait esaten bazaio ta egi ori bere biotzaren leyarekin, bere naiarekin egoki ez badator nekez ulertzen, entenditzen du bere biotzaren griña okefak berea iristeañen, berea auñera ateratzeañen egia bastertu ta aspiratzen dualako. Auxe gertatu zitzaien, bada, gaurko gertaldi onetan Bidaliai. Bidaliak (apostoluak) ondo zekiten Jesukristo gure Jauna, Israel'go eñiari agin-

dutako Mesias zala, baña Mesias'enkiko zeukaten buru-bidea ez zan Jesus'ek itz aietan aitortu zienaren erakoa. Beren irudimenean eta Israel'dar guztien irudimenean zegoan, Mesias efege bikain-indartsu bat izango zala, efomatafen uztarpetik eta afotz guztien mendetik Israel eña aterako zuan efege nagusi bat izango zala, ta Israel eñiaz irazi edo fundatuko zuan sortefi edo aberian, uste zuten, berak agintari ta maña aunditako buru izango zirala, ofegatik bada, Jesus'en oraingo itz auek beren biotzetako asmo ta leikeri aiekin batera ta naierara ez zetozelako ez zituzten ulertu, entenditu ta itz aien esan-nai ilun, adikaitz eta ajolarik gabe izan zitzaien

¿Zergatik orduan Jesukristo gure Jaunak azaldu zizkien bere eriotzaldiko mindura, iseka ta nekeak, jakiñik gizon lau aiek ulertzen ez zizkiela? Jesukristo gure Jaunak ikusten zuan befi aiek bidaliak une aietan ez ulertu (atenditu) afen, gero bere eriotza ta piztuera gertatzen ziranean indar aundia izango zutela bere Jaungoikotasunean sinisteko ta ofetarako, beren sinismenean sendotzeko ta bikaintzeko aitortu zizkien afealdez befi aiek.

Beñion Doneak jafaitzen du esanaz: Jesukristo gure Jauna Jeriko zeritzaion eñira uferatu zanean, itxu bat bide ertzean exerita zegola, eskean.

Eleizaren gurasoak diote, bide ertzean exerita dagoan itxu au pekatu lañian bizi oi dan kristau pekatariaren irudi bizia dala; itxuak eguna argitzean ikusten ez duan antzera, pekatariak ere ez du egia ta egiaren bidea ikusten afeko aldean azaltzen bazaio ere ta safitan ez du ikusi ere egin nai; betiko egi mardul eta iraunkofak, eriotzak, azken epaiak, azkenik gabeko ondamen-diak ez dute beraren biotz gogortua ikutu ta biguntzen; Jaungoikoaren efukiak, neufigabeko ontasunak, betiaroko sari bikañak ez du bere biotz zetatsua aldatzen eta bere itsukeri gaiztoan, bere gorkeri galduan mañarik maña, amilik amel ondora, sakonera dijoa ta gero ta sare gogofagoaz lotzen dijoa bere bu-rua, batez ere aitorpen eta jaunartze txafak egiñaz eta loikeriz-

ko pekatutan dabilenak, eta era onetan amildegia-
ren ondar-
eraño eldutzen danean, pekatuzko sare gogofez bere bizitza
josi duanean, orduan eldutzen da bereziro itxumen ilunera, be-
re salbazioaren etsipenera ta bein izaera onetaraño eldu ezker-
o zala, txit zala da biotz gizajo, biotz efukañiro gogortu au bide
onera ekartzen, amildegi sakon ofetatik bere poz eta zorion be-
tea izango litzaken Jaunaren efukizko barkamen bidera ekartzen.
¿Zer egin ofenbesteko ondamendian sakon-sakoneraño eldu ez-
kero? Gaurko Beñionak argi erakusten digu sendabidea. Jauna-
ren esku efukitsua azkengabea, amairik gabea da ta Jeriko efi-
ko itxuak bezela guk ere Jesus'ena, Eleizara, Jaungoikoarena joan
bear degu itxu gizajo aren itz aiekin: Jesus, David'en semea,
izan nere efuki. Ofa itxu gizajo aren itzak, eta auek berak izan
bear dute pekatuan zearo lotua ta ertenbiderik gabe, auferape-
nik gabe, etsipenez ilda arkitzen dan pekatari guziz efukañi-
aren biotzeko deiak.

Gure aurtzaroan, gure umearoan gurasoak biotz mamian
ezañi ziguten sinismenaren aztafenik, sinismenaren izpirik ba-
dago, sinismen ori irazeki ta berotu bear degu gure bañuan, eta
onbideak edo birtuteak egintza batekin iristen ez diralako, bai-
zik bein eta beñiz jardunaz eta jardunaren jardunaz, ofegatik
egintza oiek sañitu bear ditugu itxaropenaren argia guregan piz-
tu dedin eta onetan alegintzen bagera Jaungoiko gure Jauna
guregana etofiko da, bere esku zabalaz bere efukizko bede-
in-
kapenak ugaritasunez guregan ixuriko ditu ta ala bear bada gaur-
ko Beñionean bezela, miraria gure alde egingo du, gure leyaketa,
afeta ta alegiñak Jaungoikozko ugaritasunez sarituaz.

Beñionak dio, Jesus'en auñean zijozenak gogor egiten zio-
tela ixildu azitzeko. Baña berak orduan eta indar aundiagoaz
deadar egiten zuala esanaz: Dabid'en Semea izan nere efuki,
(efuki nazazu). Jesus'en inguruan zijozenak gogaiturik zeuden
itxuaren etengabeko deadafak entzuten, ta onek gero ta dea-
dar aundiagoak egiten zituan Jesus'en belafietara bere dei efu-
kañiak eldu zitezen. Ingurukoak, ordea, itxu eskale beartsuaren

deadar gogaikañiak ezin eramanez ito nai zituzten bere deiak ixildu eraziaz, baña itxuak bere begien argitasuna iritxiko zuan sinismenez orduan eta areago deadar egiñez jafaitzen zuan.

Ona emen pekatariari pekatuzko bizitzatik jeiki ta atera nai duanean sortuko zaizkion eragozpenak, lendabizi lagunartekoen eragozpenak, bigañen bere buruaren, bere bafuko griñen eragozpenak. Bere adizkideak, bere lagunartekoak, bizitza beñi, zintzo bateri ekin diola ikusten dutenean estemintza, enbidia sortuko zaie beren bafuan, aren aldaketa, auferapenari jafai itzeko beren bafuan indañik eta erabakirik ezin arturik, aren bizitza beñiko zoriona, adizkidean biotzen salatzañe ta gofotagañi biurtuko da, ta au ezin ikusi ta eramanez alegin guztiak jafiko dituzte ta ez diote ezeri barkatuko beren asmo zintzoak auldu, ausi ta lengo bizikerara erakartzeko, (erakañi arte).

¡Zenbat anima Jaungoikoagana biurtuak galdu ote dira ofelaxe, lagunenen maxiaketa, zer esan, pañe ta isekaren bilduf txepelaz!

Baña ez da au bakañik. Beste eragozpen bat ere aitatu det. Nor bere burua, bere griñak, zaletasunak, oiturak ez dira eragozpen txikiena izango bere nai osasuntsua iristeko. Berak zuen jaiera elizkoñai pekatuzko atsegiñak añañe jafiko dizkio, gogo zintzoai oroipen zitalak, erabaki zuzenai egokiera labañak, zuen garbaizko egintzai jolaseko zirimidak ta bizitza ona egiteko asmo ta erabaki leyalai guda gogofa jafiko die bafutik eta azaletik eragozpen oiekin.

¿Zer egin ainbeste eragozpen eta eragoztañeren añañe? Gaurko Beñionak bialtzen digu pañastara aundian argia. Itxuak gero ta areago deadar egiten zuala, dio, ta Jesus'ek, entzun zuanean, gelditu ta beragana eramateko agindu zuala. Ta bere añañe eramanez zutenean galdetu zion: ¿Zer nai zenduke? Eta ark erantzun zion: Ikustea. Orduan Jesus'ek esan zion: Ikusi zazu; zure sinismenez salbatu zaitu. Ta une berean begi-argitu zan.

Ona emen guk ere ainbeste eragozpenen añañe egin bear

deguna, Jaunaren indaia, Jaunaren laguntza eskatu sinismen bikain eta sendoaz, Jaunaganako sinismena ta itxaropena ez degu egundano galdu bear eta sinismen au izango da gure gaizkapenaren (salbazioaren) argia. Ofegatik bein eta beiz eta safitan eskatu bear degu gaurko itxuak bezela: Jauna ikusi dezadala nere zorakerien uskeria ta ezereza, ikusi dezadala lufeko atsegin debekatuen ondoren gaitza, ikusi dezadala nere pekatuen bidez neregantzen detan amildegi beltzaren ondo ikaragafia, Jauna ikusi dezadala zure bizitza ta legeari jafaituaz iristen dan gozamen ezta, ikusi dezadala zure betiko zorionaren pozezko asea, ofela zure bideari ekiteko ta jafaitzeko indaia ta azkartasuna izan dezadan.

Pekatoriaren biurpena gaizakerian ondoraño eldu danean zaia da, baia ez eziia. Ta pekatariak gogo osoaz artzen duanean bere biurpen onaren bidea, zailtasunak efazten zaizkio, eragozpenak lautu ta aldapak ordekatzen zaizkio ta gaitzasun eta estuasunak zeruko gozamen biurtzen zaizkio, era onetan lufeko atsegiñetatik bere biotza uztutzen dijoan neufian zeruko gozamen bizi ta eztiz aseaz.

Erten gaitezen, bada, pekatariak ogenaren bide ta egoeratik, goazen itxua bezela Jesukristo gure Jauna igaroko dan bidera, goazen gure animaren gaizkapena, salbazioa efaztu ta iritxi lezaken Jesus'en itza entzuten dan bidera, ta gure aldetik leia ta afeta jartzen degula gaitontzekoa Jaunaren argi ta laguntzak egingo du, itxuari mirariz argia eman zion bezela, guri ere egundo amaituko ez dan egunaren argi zoriontsua ikusteko.

Ala izan bedi.

BULDA DONEA

Bulda, Aita Santuak eginkizun baterako ematen duan agiri bat da. Gaur edatzen, zabaltzen dan Bulda edo Gurutze-Bulda Aita Santuak España lateñiko eñege katolikoai eman zien Bulda berezia da. Antxiñako urtetan gudate aundiak egin ziran mahomatar eta sinisgabeen aurka, Kristo gure Jauna bizi izan zan leku donetan berak nagusiturik eta beren mende eukirik, kristauai joateko bear zan bide ta azkatasunik ematen ez zitzaielako. Guruzkundeak, kruzadak izena ezañi zitzaien gudate aiei, eleizaren gudariak beren soñekotan gurutzea eramaten zuelako. Guruzkunde auetarako beren gogoz kristautzaren gudataldetan izenpetzen ziranai Aita Santuak esker eta alderdi bereziak ematen zizkien eta esker eta alderdi auek irabazten zituzten baita ere beren alde diruz eta bestelako laguntzaz lan egiten zutenak.

Aro, garaialdi aiek aldatu ziran; lengo gudate aiek amaitu ziran eta ez zan geiago alako gudatean asteko asmorik. Baña gudate aietan izan ziranai orduko esker eta alderdi on aiek zero galtzea gogor egiten zitzaien eta ofegatik eñege katolikoak bitarteko jañita Eñoma'ko Aita Santuari eskatu zien gudate aietan egindako lan aundi aien ezaugañitzat, lengo esker eta alderdi aiek luzatu zitzala beste urte batzuetarako, len gudataldeai laguntzeko bezela, orain laguntza on eta eñukioñetarako ukartxo bat (limonatxo) ezañiaz eman lezakenai, gudate aietara beñiro joatea ezin ziteken ezkerro. Aita Santuak ontzat emanaz eskaera ura urte batzuetarako luzatu zuan eskeñaldi ura ta uñengo Aita Santuak ere luzatzen joan dira gure egunetaraño ta onegatik gaur egunean ere asmo onetan ematen dan Agiria'ri guruzkunde'ko (kruzada'ko) Bulda deitzen zaio.

Eta ¿zer alderdi ematen ditu Bulda done onek? ¿Zer grazi, esker dauzka Bulda doneak? ¿Zer baldintza, kondizio bete bear dira berak iristeko? Orain ikusiko ditugu N. E. M.

Buldaren bidez iristen ditugun esker, laguntza ta alderdiak zazpi aizkapidetan (indultoetan) daude sartuak. Lenengoa barkamen edo induljentzien aizkapidea da: beraren bidez bi barkamen oso irabazi genezazke geuk aukeratzen ditugun egunetan, eta asmo eřetarako aitortu edo konpesatu ta jaunartuta irabazten dira. Beste barkamen oso bat irabazten da eriotzako unerako, Jesus izen gozoa aoakin esanaz, eta onela ezin bada, biotzez esan naiaz, aurrealdeaz aitortu ta jaunarturik eta au ere ezin bada ogenen, pekatuen damutasuna aurretik arturik. Beste barkapen osoa irabazi genezake ildakoentzat, beren izenean lur eman baño len ilen-bula artu ta eskeñiaz eta gero nor berak aukeratzen duan egunean barkamen ori irabazteko asmoan aitortu ta jaunartuta. Irabazi genezazke baita ere amabost urte ta amabost berogeirengo barkamenak, eleizaren legeaz beartuak ez gauden egun batean barau egiñaz. Azkenez Eřoma'ko geldialdiak egiñaz irabazten diran barkamen guztiak irabazten dira asmo onetan eleiza baten ikustaldia egin eta Aita Santuaren asmoetarako otoitz egiñaz. Barkamen auek, eriotzako unerako irabazten dan barkamen osoa ez beste guztiak, animen alde eskeñi litezkenak dira. Egiaz N. E. M.^{ak} barkamen auekin ez degu ezer aufferatzen bízitza onen erosotasunerako, baña irabazi aundiak dira Jauugoikoaren aufferako, gure ogenen zofak arindu, barkatu ta zearo garbitu ere egiten dituztelako, ta garbitokian su ta gařetan eřetzen eta oñazez geure buruak ikustean, orduantxe onduena ezagutuko degu Bulda donearen bidez ain eřaz irabazi genezazken barkamenen ontasun eta bitartekotza.

Bulda doneak ematen duan beste aizkapidea, Aita Santuak eta Gotzaiak bakařik barkatu lezazken ogen aundi batzuek, Bulda donearen bitartez beste edozein apaiz aitortzak entzuteko baimena daukanak barkatu al izatekoa da. Adibidez, Gazteiz'ko (Bitoria'ko) gotzaitegi onetan, lagun urkoaren bekaitzez, gořotoz sagasti ta basoak zuritzea, masti ta zugaztiak eřetzea, gizona gaiztakeriz iltzea ta zinkeria edo zuzentazun gabe epaitegian zin (juramentu) egitea, gotzaiaren esku egonik, berak bakařik bar-

katu lezazke bere aginpide berezirik gabe; Bulda donearen aizkapidez, ordea, edozein apaiz aitortzak entzuteko baimenaz orrituak barkatu lezazke, urtean artzen duan buldarekin bein eta urte-buru artan beste bein bakañik, ofetarako bereziro beñiz bulda arturik.

Baita ere aitortzañeak badauka eskubidea Bulda donea artu duanari, berak egin dituan autuntza (botoa) ala ituntza (promesa) beste garbai edo penitentzi batez ordezteko ta aldatzeko, bakar-bakañik ez izan enean betiko gatespeneko (kastidadeko) autuntza (botoa) ta lekaitzara (religioso) sartzeko autuntza (botoa), auek aldatzeko ta barkatzeko eskubidea Aita Santuak bereganatua dauka-ta.

Bulda doneak ematen duan beste aizkapidea, baña baldintzapean, kondiziopean, bide txañez egiten diran aberastasun eta zoñen barkapena da. Baña onetarako esan bezela lendabizi bi baldintza, kondizio bear dira: lenenengoa, ez dedilla lapuñeta ala zoña egin gero Bulda donearen bidez arauketa (añegloa) egiteko asmoan; bigañen: alegin guztia egin dedilla aberastasun eta diru oien jabea bilatzen eta iñola idoro, arkitu ezin balitz orduan dago Bulda donearen aizkapideak ematen duan arauketa egiteko bidea. Baña jakin ezkerro nori egin zaion lapuñeta, ta nor dan bide txañez egindako diru aien nagusi ta jabea ezin liteke arauketarik egin Bulda donearen bitartez; orduan beartua dago, bada, nagusi jakin ari bere zor guztia ordaintzera ta gaizki egindako aberastasun aiek biurtzera.

Baña bi baldintza, kondizio oiek bete ezkerro, au da, bide txañeko diru irabazte ori gero Bulda donearekin arauketa egiteko asmoan egiña ez bada ta diru aien nagusi ta jabea bilatzen alegindu ondoren, idorotzen, arkitzen ez bada, arauketa auxe jartzen du Aita Santuak Bulda donearen aizkapidez: Bide txañez egin dituan amar pesetarako, peseta batez artzen dan Bulda'ren ukafa (limosna) egin bear du ta onela eun pesetaraño amar bulda artuaz. Eun pesetatik gora baldin, bada, berak zuzenean ala aitortzañearen bidez Aita Santuaren ordezkariagana, au da, Bul-

ba donearen bearkizunetan Espāñi'ko Buru egiten duanarengana zuzendu bear du ta ordezkari onek dauka eun peseta baño geiagoko aberastasunetan erabakia emateko eskua. Ez du amaferako bat baño geiago eskatzen eta batzutan zordunaren egoera ikusi ta gutxiago eskatzen du ta batzu-batzutan zorduna bera beartasunean dagonean baterez.

Eta ¿nundik dauka Aita Santuak eskubidea arauketa auek jartzeko? Aita Santuak Eleizako diru guztien gain agintaritza ta ornilaritza (administradoretza) dauka ta bide txafetik egindako diru oiek gaizki egin ditunak bere jabe ta nagusiari biurtzeko beargaia (obligazioa) dauka ta jaberik arkitzen ez duanak eleizarentzat eta beartsuentzat eman beafean arkitzen da ta oregatik Aita Santuak diru oien agintza daukanak arauketa ori egiten du, ukar (limosna) txiki ori bakafik ematera beartuaz.

Beste aldetik gizon askoren gaizkapena (salbazioa) efastutzen du. Askotan bide txafetatik aberaskiak egin dituzten gizon askok ez luteke biurtu naiko diru ura guztia, beren sendia, beren seme-alabak oso aberats eta eroso bizi diranak beartasunik gofienean geldituko lirakelako, egun batetik bestera, bai lengo aberastasun oparo aiek gabe ta bai dirurik irabazteko ta lan gogofik egiteko oiturik ez dutela, auferapiderik gabe geldituko lirakelako ta oregatik estuasun lafi onetan ikustean asko betiko ondatuko (kondenatuko) lirake beren aberastasun gaizki egiñak ez biurtzeafen eta estuasun lafi onetatik atera ta beren gaizkapena (salbazioa) iristeko jartzen ditu efaztasun auek; baña len esan deten bezela aberastasun aiien jaberik eta norenak diran azaltzen ez danean, jabea azaldu^zezkero bada, oso-osorik biurtu beafean arkituko litzake ta au beti ta iñolako barkapenik gabe.

Azkenez kristau lauentzat ainbeste ajola ez duten beste aizkapide batzuek utzita, Bulda doneak beste aizkapide bat ematen du barau ta aragi-uzteak (bijiliak) bigundu ta gutxitzeko.

Begira ondo zer alde dagoan. Eleizaren lege naguziz guztio^k beartuak gaude aragi-uztera (bijili egitera): urte guztiko os-

tiraletan eta Baraute edo garizuma'ko larunbatetan, Austeriegun, Laurden Alditako (Kuarta Tenporetako) asteazken eta larunbata, Pentekostes, Andre Maria'ren Jasoera (Asuntzio), Domiu-Santu ta Egoaŕi-jai aurfeko egunean. Bulda artzen degunak, beŕiz, bakafik gaude aragi-uztera beartuak: Baraute'ko (garizuma'ko) ta Laurden Alditako (Kuarta Tenporetako) ostiraletan, Pentekostes ta Andre Maria'ren Jasoera (Asuntzio) aurfeko egunean edo gabón-aurfeko larunbatean.

Eleizaren lege nagusiz guztiok gaude barau egitera beartuak: Baraute'ko (garizuma'ko) egun guztitan, igandetan izan ezik, Laurden Alditako (kuarta Tenporeta'ko) azteazken, ostiral edo larunbatetan, eta Pentekostes, Andre Maria'ren Jasoera (Asuntzio), Domin-Santu ta Egoaŕi-jai aureko egunean. Bulda doneak, beŕiz, irutik batera eraizten ditu barau egunak, Buldaren bidez bearturik egonaz bakafik: Barauteko (garizuma'ko) asteazken, ostiral eta larunbatetan Andre Maria'ren Jasoera (Asuntzio) aurfeko egun eta gabon-aurfeko larunbatean.

Beraz Bulda donearen bidez, gure aurfekoak Eleizaren alde egin zituzten lanak gogoan eukirik, Aita Santuak ematen digun Buldaren bidez esker, laguntza ta barkamen aundiak ematen zaizkigu gure ogenen zoŕak ordaintzeko ta garbitokiko animai ere laguntzeko; beraren bidez ogen aundien barkamena eŕaztuzten zaigu, ta bide txaŕez egindako aberastasunen biurketa erosotzen digu ta azkenez gure makurkeri ta gríñagatik Eleizak ezartzen dizkigunba rau ta aragi-uzteak gutxitu ta biguntzen dizkigu, ofegatik, bada, Bulda donea begirune ta itzal aundiaz artu bear degu, Eŕoma'ko gure Aita Onak eŕukizko begiratu bat guri egin eta gure laztasunak leguntzeko, biguntzeko bialtzen digun agiri bat bezela.

¿Eta zer egiten da N. E. M. Bulda donea artzeko ematen degun ukafaren (limosna) diruaz?

Diru au N. E. M. gauza onetan sautu, eralkitzen da. Buldaren bidez biltzen dan diruaz Eleizai laguntzen zaie Jaunaren argia egunero piztuta bertan egon dedin eta beste bear batzuek

estaltzeko. Baita ere gaxotetxe, erukietxe ta apaizgaidiko beaíai laguntzeko zabaltzen da.

Artu dezagun, bada, iñola aldegun guztiok Bulda Donea, era onetan Aita Santuari gure begirune ta mendetza erakutsiaz, gure esker eta zeruko laguntza ugariak irabazi ta gure lagun urkoari lagunduaz eman dezagun kristau zintzoen erakuspen edefa, egunen batean Kristo gure Jaunak bere ordañez artu gaitzan bere semeen artean betiko zorionean.

Ala izan bedi.

ANDRE MARI ERUGEA (Birjiña)

¿Quæ est ista quæ progreditur quasi aurora consurgens? Cant. 5, 9.

¿Norda au goiz argieraren antzera ditzirtuaz datoñen au? Abestien idaztian V bur. IX zerendan.

Gozoak eta pozgañiak dira beti N. E. M. Andre Mari Erugearen gorapenez txiki-txikitatik entzun eta kantatu izan ditugun itz eder auek: Zu baño geiago Maria, Jaungoikoa bakañik, Jauna bakañik, baña era berezi batean dira pozgañiak bere erugabeko soñeraren egun auetan.

Aingeruak, goiaingeruak eta maña guztitako aingeru taldeak, aitorleak, ziñopak, jetzak (birjiñak), arkabak (patriarkak), igarleak eta lur onetan bizi izan diran gizon eta emakume, gazte ta ume zintzo ta done guztiak goratzen, omentzen eta lairontzen daude zeruan Andre Maria erugabeko apainduriz sortu ta jantzia. Eta guztiak Jaungoikoaren aúfean, beren poz, zorion eta biotzikara gozoa erakutsirik, ao batez diote: Oh Maria, Zu baño geiago Jaungoikoa bakañik, Jauna bakañik.

Eta Jesus'en Ama ta gure Ama erabat dan Andre agurgañoñen aúfean, nork, bere biotzean maitasunezko txinperta bat so-

matzen badu beñepein, ez du erakutsi naiko bere pozaldi ta onikusi au bere sorera garbiagatik ta bere dei gozoari jafaituaz ez da etofiko bere anima garbi ta txukunduaz bere oñetara.

Bai N. E. M. zeruetan aingeru done guztiak bezela, luñean ere gizadi guztia biltzen da gaur Maria'ren oñetara maitasunez beterik Andre Mariari bere Soñera Garbian agur egitera ta kantu ta biotz-aguñik beroenak eskeintzera.

Baña dei, goraldi ta omen auen artean, era berezi batean entzuten dira, (Birjiñen) Eregiña zeran oñentzat gozoenak diralako, zure izen eztitsuaz beren buruak apaintzen dituen gazte oienak, izenik zoriontsuena, Maria'ren Alaba izena duten gazteen eskeintza irazekiak.

Auxen da beren eguna, auxen beren jaia; oñegatik leyatzen dira Zuri, Zeruetako Ama maite oñi, jarleku ta goyaulkirik apain, loratsu ta ikusgañiena ipintzen eta alegin eta ardurarik bizenaz beren jaiera erakutsi ta adierazten.

Gu ere, Ama Maria, emen bildu gera geran guztiok, ez da etxe bat gelditu beren izeneko bat Zuregana bialdu gabe, guztiok emen batu gera zure alaba maiteak auñean ditugula gure omenaldi, gorapen eta biotzaguñak eskeintzera; egizu bada, Andre Maria, gure eskeintza auek gozo ta pozgañiak izan ditezela zure begietan.

Oh Ama (Birjin) goitaña Adan'en Semeen artean bakan eta ikusgañiena: piztu ta argitu ezazu nere adimena zure goraldiak ezta baño gozoagoak erten ditezen nere aotik, zure egizko maitasun edeñaren zaletasuna piztu dedin zure Alaba ta entzule guztien biotzetan; bioz-biotzez eskatzen dizut Goiaingeru Gabrielen itz aiekin agurtuaz.

Agur Maria.

*¿Quæ est ista quæe progreditur quasi aurora
consurgens? Cant. 5, 9.*

¿Norda au goiz argieraren antzera ditzira-
tuaz datoñen au? Abestien V bur. IX zeren-
dan.

¿Nor da au diogu guk ere kantuen idaztiak bezela, nor da
andre afigañi ta maitagañi au, bere aúfean Eleiza guztia begiru-
nez belaunikaturik daukan au, nor da au guztien kantu gozoak,
omenaldi agurgañaik eta otoitz irazekiak arturik arkitzen dan
andre berdingabe au?

¡Jaungoikoaren Ama! itz onek betetzen ditu zeru eta luñak,
itz onek gañezka eragiten die adimen eta jakinduri guztiai, An-
dre Maria'ren izaera sakonki aztertu ondoren ere. Luñean izan
dan iztunik bikañenetako bat Maria'ren goitasunari begira asi,
ta Jaungoiko Semearen Ama zala ikustean, txunditurik gelditu
zan, ainbesteko aunditasunaren aúfean ezer esateko ain txiki ta
ezereza ikusirik bere burua.

Ala ere, uñutiko eñañuen ditzira motelak bezela nabaituko
baditugu ere Maria'ren goitasunak, begiratu dezaiogun, beste-
rik ezean, geure adimen motz onegaz Maria'ren ondogabeko
aunditasun sakon oferi, ateraaz bertatik iru gogorapen eder, gu-
re biotza bere maitasunean berotuko dutenak, eta berari jañai-
tzera leyatuko dutenak.

Auek dira, N. E. M., Maria'ren garbitasuna (Birjintasuna),
Maria'ren donetasuna bere sorkundetik eta azkenez gurekin
daukan bitartekotasuna.

Gure zorionez luñera etoñi giñan, Kristo gure Jaunaren Or-
deko IX^{ren} Pio Aita Santuak Andre Maria'ren Sorkundea, Garbia
eñugabea izan zala erabaki ta lurbira guztiaren txalo ta poz ar-
tean sinismeneko egia zala aitortu ondoren. Berak adierazi zi-
gun Agustin doneak bere itz auetan: «Maria'gan ez degu ikusi
bear ogenaren kutsurik», jatoñizko ogenakiko ere adierazi nai
zigula; ofez gañera, Idazti Doneak aitatzen duan leizbeltzeko (in-

pernuko) eraunsuge beltzari burua zapalduko zion emakume ura, Maria bere Soferaren aúfeneko unean pekatuaren lausorik txikiena gabe sortua zala.

Andre Maria bere Sorkundetik éfugabea zala beti egia izan afen, ala ere ez zan len, nai ta naiz ez sinistu bear zan sinismeneko egia, Aita Santuak alakotzat erabaki gabe zeukalako ta ofegatik kristauak Andre Maria Éfugabea zala adierazteko argibide, aázoi asko ateratzen zituzten era onetan itzegiñaz: ¿Nola liteke, zioten, Jesus, bere semeak, jakiñik Andre Maria bere Sorkundean ogenaren kutsurik gabe atera lezakeala, ta Jaungoikoaren Ama izan bear zualako pekatuaren lausorik txikiena gabe sortzea zegokiola, nola liteke zioten Jesus'ek bere Ama pekatuan kutsutzen uztea? Ez zan noski au egin balu Seme ain arduratsua izango.

Beste aldetik, Eba lur onetan éfurik gabe sortua izan zan eta aingeruak ere gaitzaren kutsurik gabe sortu zituan Jaungoikoak, eta ¿zer dira Eba ta aingeruak Jaungoiko'aren aúfean? Mirabe ta mofoiak besterik ez: Maria, befiz, Jaungoiko Berberaren Ama. ¿Eta ontzat artu liteke Jaungoikoak berak, utzezin ezin lezaken neufigabe jakintsua dan Jaungoikoak bere Amari ukatzea, mofoi ta mirabeai eman ziena?

Gañera, pekatuan egotea Jaungoikoa'ren etsai izatea da, Jaungoikoa'ren asafe ta gofotopean egotea, bere zigorkada ta azonen gai izatea; eta ¿nork ez du ikusten Jaungoikoa'ren Ama bere etsai ta gofotagañi ezin izan litekela, batez ere Idazti Doneak dionez, bere Ama izaki guztien gañetik bere maitea bada?

Ofelako aázoi, argibide ta azalpenetara jotzen zuten kristauak antziñako garaitan Andre Maria'ren Éfugabetasuna adierazteko, baña IX^{ren} Pio Aita Santuak, Maria'ren Sorkundea Éfugabea izan zala erabaki ta sinismeneko egia zala aitortu zuanetik ez daukagu batere azalpen auetara joan beañik, beañekoa degu, bada, kristau geranez gure sinismenez aitortzea: Andre Maria Éfugabe sortua dala, jatoriz batere lausorik gabea dala, lenengo unetik Garbiadala.

Ontarte bakan eta zoragaña N. E. M., Jaungoiko gure

Jaunak bere Amarentzat egokiturik zeukan au! Bestela ¿nola ulertu, entenditu lurbira guztian eta gure Euskaleñi onetan bertan ere zegoan lei ta guraria Andre Maria'ren Soferako mirari au sinismeneko egia zala, Aita Santuak erabaki zezan? ¿Nola ulertu, entenditu Eleizaren egal batetik besteraño adierazi zan pozaldia IX'ren Pio Aita Santuak sinismeneko egia zala erabaki zuanean? ¿Nola ulertu, entenditu baita ere Andre Mari Eñugabearen mirari onek urtero kristauen biotzetan piztu ta zuzper-tzen duan lei, jaiera ta berotasuna. Badirudi Andre Mari Eñugabearen egun auek eldutzean, lurbirako kristaudi guztiaren biotzetan tximistindaña igarotzen dala guztiok indartu ta Maria'ren oñetara erakartzeko, luñean ere abestu dezagun, zeru goie-tan aingeruak oyukatzen dioten zorioneko ifintzi eder ur ura: *Tota pulcra es Maria et macula non est in te*: Guztiz edeña zera Maria ta eñurik ez da zuregan.

¿Zer adierazten digu onek guztiak? Lurbira guztian, **Espi-ritu** Donearen (Espiritu Santuaren) argitasunez zuzendu, zuz-pertu ta bizkorturik bizi dan Eleizak sinistu, aitortu ta adieraz-ten duala Andre Maria'ren Eñugabetesuna goitasun eta ontarte-rik bakan, añigañi ta gain-gañekoena dala ta pozik arkitzen dala, gure bitarteko dan Jaungoikoaren Ama, grazizko jantzi ain edeñ-az apaindua ikustean.

Baña ¿nork adierazi lezake bear bezela Andre Mariak Sor-kundetik jantzi zuan grazisko apainduriaren argitasun eta eder-tasun au? ¡Oh! Jaungoikoaren Ama izatea zer dan ezagutu, ta oñetarako bear zan maitasun bereziaz begiratu zion Jaungoikoak bakañik.

Baña guk osorik ezagutu ta adierazi ezin badegu ere ikusi dezagun Eleizak zer agertzen digun gai onetan. Akino'tar To-mas Doneak, luñean izan diranetatik jakintsurik argienetakoak auxe dio: Jaungoikoak ornitzen du bakoitza, autatu ta aukera-tua izan dan bizierako bear dituan gaitasun eta yayotasun guz-tiakaz. Oñegatik bada Jaungoiko gure Jaunak Andre Maria'ren animan bere Ama izateko bear zituan gaitasun, yayotasun eta

graziak ipiñi zituan. Au da, Jaungoikoaren Ama izatea, luñean izan liteken goitasun eta mañarik garaiena izanik eta Jaungoikoaren eskuaren^o almena neufigabe ugaria izanik, Jaungoikoak Andre Maria'ren anima ia amairik eta neufirik gabeko edertasun eta graziz apaindu zuan.

Onela apaindu ta edertua ikusi zuan auealdez aspaldiko gizalditan Dabid Efegeak, eta poz eta alaitasunez beterik, onela oyu egin zuan: *Fundamenta ejus in montibus sanctis*. Bere asieran done guztien gañetik dago: bere Sorkundetik lur onetako done guztiak baño Jaungoikoaren maitagañago da. Abraham'ek bere sinismen sendoaz, Jakob'ek bere oneraman luzeaz, bidaliak beren arazo gogoñaz, ziñopak beren oñaze ta eriotz goñiaz eta jetzak beren garbitasun zoragañiaz beren bizitzaren azkenera eldutzean irabazi zituzten grazi ta goiargi ugariak Andre Mari Birjiñak gañezka zeuzkan bere Sorkunde edeñean, Jaungoiko gure Jaunak bere Amatzat aukeratu zualako.

Eta zer da guretzat bere Sorkundetik guztiz garbia, ain edeña ta begiragaña dan Andre zoriontsu au? Gure Ama ta bitartekorik onena. Egiaz Ama izatea naikoa da, bitarteko ere izateko. ¿Nork ez daki Ama, beti bere semeen zaitzañe, laguntzañe ta bitartekorik arduratsuena dala? Eta Andre Maria Jaungoikoaren Ama dan aldetik Jaungoikoaren indar eta almenez ornitua egonik izan liteken Amarik samuñena ta eskualderik aundiena duena da.

Amarik samuñena da bere neke ta samiñik gogoñen artean Jesus'ek bere semetzat eman giñuzelako. Ofegatik deitzen digu, Genesis idaztiaren bidez: *Filii doloris mei*, nere samiñen arteko semeak; bere Seme Jesus gurutzean izerdi ta odolez bustirik, zauriz josirik, egañiz ta oñazez etetzen zegoala gurutzetik gure Ama egin zualako.

Baita ere eskualderik aundiena duan gure bitartekorik onena da. Gai onetan Alpontzo Mari Ligorio doneak onela dio: Jaungoiko gure Jaunak Andre Maria guztiz garbia ta efugabea egin zuala gure bitarteko egokia izateko. Gu jatofizko pekatuan

sortuak izanik Jaungoikoaren etsai izanak gera, baña gure Ama ta Jaungoikoaren Ama ogenaren kutsurik gabe sortua izanik beti Jaungoikoaren adizkide izan da, ta ofegatik Jaungoiko Jaunak beragana joatea nai du bere eskuetan gure bear, eskaera ta naik jartzera, beraren bidez gure otoitzak eskeintzera, era onetan berak gure eskaera auek garbi-garbi Jaungoikoaren aúfean jañiaz gure onerako dagokigun guztia efazago iritxi dezagun.

Nunc auten ora pro nobis quoniam tu mulier sancta es. Orain, bada, Andre Maria Jaungoikoaren Ama guztiz garbia ta efugabea efegutu ezazu ta otoitz egiozu Jaungoikoari gure alde, *nunc*, orain, lur onetan pekatuen amildegi ertzetan gabiltzan bitartean, pekaturako dei legunak entzun eta nabaitzen ditugunean, *nunc auten ora pro nobis*, orain, bada, otoitz egizu Ama gure alde, otoitz egizu gurasoen alde beren etxeak bear bezela zuzentzeko bear duten argitasuna izan dezaten, otoitz egizu mutil gazteen alde beren biotzetan irazeki dedin zure garbitasunaren zaletasuna gero gizon osoak ta zintzoak izan ditezen, otoitz egizu, batez ere zure alaba maiteen alde, egun auetan zu apaintzen, zuri abesten eta zure izena onesten, bedeinkatzen ainbeste alegindu diran zure alaba zintzoen alde, zure grazizko jantzi ta apainduri ederez beren animak beti jantzirik iraun dezaten; otoitz egizu azkenez guztion alde—*quoniam tu mulier sancta es.*— Zu zera, bada, gure bitartekoa, zu andre guztien artean donetsia, bedeinkatua, zu Jaungoikoaren maitea ta begikoa, zu guztiz-garbia ta efugabea, ofegatik, bada, otoitz egizu guztion alde, gure anima olentzitzen eta salbatzen daukagun lanbide aundi onetan egundaño etsi ez dezagun, lur onetako itsaso naspil eta kaskar onen artean, lur onetako eraso ta zirikada labañen artean, gure anima ogenean erortzeko eloñioan dabilenean, otoitz egizu gure begiak zugana itzuli ditezen, Zure Sorkundeko argitasun edeña guregana eldu dedin, gure biotzak zure edertasunaren indaiez piztu, goratu, sendotu ta liluratu ditezen. Bai, otoitz egizu Ama lur onek ezin eman lezaken egiazko pake ta poza zure bizitza ta garbitasunari jañaituaz iritxi on-

doren betiko egun zoriontsu artan zure arpegi edera ta Jaungoikoarena ikusteko zorion betea izan dezagun.

Ala izan bedi.

AMA MARIA 'REN SORKUNDE BETARGEA

Ave gratia plena, Dominus tecum. Luk.
Don. I, 28.

Agur, graziaz betea, Jauna zurekin. Luk.
Donea'ren itzak I bur. 58 leñ.

Ene entzule maite-maiteak Kristo'ren biotzean.

Jaungoikoaren Semea gizon egingo zala Maria'ri adieraztera etofi zanean Goiaingeru Gabriel'ek ekañi zion oarkuntza gogorazten digu gaur irakurtzen degun Beñionak, eta Goiaingearuak agur egitean esan zizkion itzak amaitzean, geiago edestu gabe, ufena izan zuten izketa azaldu gabe ebakitzen du gertaera au Eleiza Ama Doneak gaurko Beñionean.

¿Badakizute N. E. M., zergatik Eleiza Ama Doneak oroiazten digun jai onetan Beñion au ta itz oietan azkentzen duan? Andre Maria'ren zearoko jeztasun eta garbitasuna Goiaingearuaren itz auetan argi agertzen dalako. Beraz, ez zait ezer egoikiagorik iruditzen gaur, Eleiza Ama Doneak gaurko Beñionean gogorazten dizkigun Agur Maria'ren itz auek azaltzea baño, Andre Maria'ren zearoko garbitasuna adierazteko ta erabat ainbeste aldiz gure mingain eta españaz aozten ditugun itz auek zein ederañak diran eta zenbateko begirunez esan bear ditugun bururazteko.

Baña au azaltzen asi baño len belaunikatu gaitezen zerutar Andre Eregiñaren auean, bere oñetan auzperturik eska dezaio-

gun bialdu dezala bere esku efukitsuetatik gure adimen eta biotzetara argi pañastada bizi ta ikutu samur bana, bere onbideak jañaitzeko gogoz irazeki ta asmo berroz ornitu gaitezen.

Agur Maria.

Ave, gratia plena, Dominus tecum. L. Don. 1, 28.

Agur, graziaz betea, Jauna zurekin. L. Don. 1, 58.

Goiaingeru Gabriel'ek ez zion agur egin guk oi degun bezela Maria izen gozoaz deiturik, baizik «Agur, graziz betea» esan zion, onela adieraziaz bere izenik egoki ta garaiena orixe dala: graziz betea. Lur onetan gauza berdin bat beste batengandik bereizteko bakoitzari zeatzago dagokion izena eanzten diogun bezela, adibidez: bi mendiri alkañengandik bereizteko bati Aizkoñi-mendi ta besteari Mendi-zoñotz deitzen diogun bezela, batek bere bizkaña aitz goñiz, aitz soñlez jantzia daukalako ta besteak zoñotz ausia edo amaitua daukalako, ta gizon artean ere Efege gudaria ta Efege jakintsua deitzen diegun bezela, bat gudate aundiak auñera eramaten eta burutzen eta bestea jakinduri gaietan nabaritu ziralako, onen antzera Goiaingeruak Andre Maria'ri «Agur, graziz betea» deitzen dio bere izate guztia graziaz ornitua zeukalako. Goiaingeruak, bada, «graziz betea» deituaz ogenaren kutsurik gabea dala adierazten digu, bere izatea graziaz betea eukirik, bada, ez zuan ogenak Andre Maria'gan sartzeko leku ta utsunerik arkitu, bere izatea graziaz zearo ornitua eukirik, bada, atzeratu azi zuan jatoñizko ogenaren eñu beltza bere izate bikañean egotzi nai izan zuanean, gelditurik Andre Maria, graziaren eta ogenaaren boñoka onen ondoren len bezin eder, len bezin argi ta graziaren utsunerik gabea.

Oñegatik Eleizaren guraso ta jakintsuak itz auen esan naia azaltzen alegintzen diranean ezin itz zearo egokirik arkitu al izaten dute ta esaera añañiak esaten dituzte Andre Maria'ren grazizko edertasuna azaltzera zerbait eldu naian. *Tota lucis fulgoribus concreta.* Argi irazeki ditzikoñez irargia, deitzen dio An-

tzira'tar Teodoto doneak, itz auekaz esan nairik, mendi gañeta-ko elur estalki zuria, bana-banaka jausten diran elur maluta garbiz iruten dan bezela, Andre Maria'ren izatea ere, grazizko argi ta ditziramen apañez eder eta zoragafi josia dagola.

Goiaingeruak Andre Maria'ri agur egitean esan zion bigaf-en esaera, *Dominus tecum*, Jauna zurekin, esaera onen gaien ere beste ainbeste esan genezake. Ez zuan esan Jauna da zurekin, orduan Jauna Maria'gan balego bezela, baizik Jauna zurekin, au da, Maria izan zan unetik Jauna berekin zala, Andre Maria ta Jaungoikoa ezin alkařengandik aldendu litezkela, beti alkařekin egon dirala, beti Andre Maria Jaungoikoaren pozgafi, adizkide ta adur onean izan dala.

Onegatik Eleiza Ama Doneak Andre Maria'ri egokitzen dizkio Idazti Done'ko itz eder aiek: *Dominus possedit me in initio viarum suarum*. Jaunak beregan euki ninduan zeru-luřak egiteko asmotan asi zanetik... *Nondum erant abyssi et ego jam concepta eram...* Ez ziran artean amildegi ta goi-aizetegiak eta ni Jaunaren buruan sortua nintzan... *quando preparabat cœlos aderam...* zeruak egiteko abiatu zanean ni bere auřean nengoan... *cum eo eram cuncta componens, ludens coram eo omni tempore...* zeru ta luřean, aizetegian, itsasoan eta legořean izakiak egiten ari zanean ni berekin negoan beti, jolasean bezela nebiñ-en bere auřean, bere pozgafi, bere begietako atsegin eta zoriona nitzan, bere eskuetatik erten bear nuan izakirik bikain eta zoragařiena nitzalako. (Prob. 8).

Eta Jaungoikoaren Ama izan bear zuan izaki eder eta ikusgafi au, luřa ta zeruak sortu baño len Jaungoikoaren gogoan eta buruan zegoana, Jaungoiko guzieldunaren atsegin eta pozgafi zana, bere eřai garbietan bere Seme Jaungoikoa eraman eta Seme Jaungoikoaren bizia izan bear zuana ħizan zitekean une batean ere pekatu beltzaren sunda kirastunaz kutsutzea, etsaiaren atzapařetan erortzea, Jaungoikoarekin asaře ta etsaibeltzarekin adizkide izatea ta onen mirabe ta mořontzapean gelditzea?

Burura datorkit emen antziñako gertaera gogoangafi bat.

Abeñiaren kaltez zaldukeri beltza egin zuan zaldun bat igesi joan zan atzeñira, landeñira epaileen aurrean gogor zigorkatua izan ez zedin; baña urte batzuek igaro ondoren eñegearekin pakeak egin zituan eta ikustaldia egitera etortzeko baimena berari eman zion. Zaldun au eñegegana etoñi zanean, eta berari ikustaldia egin eta bere adikuntza bete zuanean, eñegek jaun aundizki bateri bere jauregian ostatu eman zezaiola agindu zion. Jaun aundizki onek, ordea, beñi au ekañi ziotenean ukatu zion ostatua bere jauregian, esanaz, ez zuala bere izena beztu ta itsusitu nai zaldun irargitsuen bizileku izan zan bere jauregi artan bere abeñi ta eñegearen itz ausle ta saldukerigile izan zanari ostatu emanaz. Ala ta guztiz ere, gero bere burua ta gogoa makurtuaz bete bear izan zuan eñegeren agindua; baña zaldun arek bere ikustaldia amaitu ta eñetik erten zanakin batean jaun aundizki aren jauregia lau egaletatik sutan agertu zan ta zearo eñe ta kizkaldu zan. Ezin eraman zuan bait zion bere gizontazun eta izenak jauregi artan bere oñik sartu ta bere estalpean geiago bizitzerik saldukeri egile aren oñak bein kutsatu zuan ezkeru.

Jaun aundizki onek, bada, ain zindo begiratzen bazion bere izenaren garbitasunari, nola begiratu ote zion Jaungoikoak ere bere amaigabeko donetasunari zegokion kutxa done ura, jauregi done ura gertutzeko. ¿Ontzat artu ote zezakean jatoñizko eñuaz kutsatutako eñaietan bizitzea ta etsaiak jatoñizko ogenaren aztañenetan utzi zuan sunda kirastuna usmatuaz irautea, nazi eta arez gain zerutar goiargiz apaindua izan bazan ere?

Ezin burutatu liteke Jaungoikoaren Semeak bere izena eraxi zezakeanik ogenean sortutako Amagandik jaiotzera, argiak ilunpea baño geiago ogena goñotatzen duan Jaungoikoak, grazi ta goiargi guztien suster eta asiera dan Jaungoikoak ogenez kutsatutako eñaietara jeistea, bere eskuan eukirik Ama jetz eta eñugabeagandik sortzea.

¿Nork ukatu ta zalantzan jañi ere lezake Jaungoikoak au bere eskuan zeukala? Iñork ere ez. Oñegatik dio, bada, Eleiza Ama Doneak Eskoto jakintsuarekin. *Potuit, decuit, ergo fecit.*

Potuit. Betitandik almen oso ta zearoaz bizi izan dan Jaungoiko guzieldunak, ezer ezetik zeru-lufak sortu zituanak, zeruetan aingeru talde aundiak ogenaren kutsurik gabe egin zituanak eta lufean ere gure lenengo guraso Adan eta Eba ogenaren malurik gabe egin zituanak eta bere izate betikoaz ogena bakarik gofotatzen duanak ondo dakigu, zalantzaren izpirik gabe dakigu beretzat efurik gabeko ama aukeratu ta sortu zeza-keala.

Decuit. Egoki zan, Jaungoikoaren Ama guztiz eder eta garbia izatea. Dabid efégeak, garaialdi aietan zan efegerik aberatsenak, Jaungoikoari Eleiz eder eta bikain eta garaiena jasotzeko asmoa artu zuan, baña bere buruari pekataria zala iritzirik, bere Seme Solomon'i, aberastasunez gañezka ta Jaungoikoagandik bereziro artutako jakinduriz orniturik bizi izan zan bere seme Salomon'i utzi zizkion ufetza amaigabeak, zilar eta ariargi pila aundiak eta orduan ziran baso galantetako zurarik berezi ta bakanenak eta gai auekin jaso ta apaindu zuan, gaur egunean ere lurbiran izan diranetatik jauregi edo Eleizik afigarie netzat jotzen dan Eleiz aberats eta guzizko ura.

Onelako jauregi bikain eta zoragarria ta orenbeste zotiltazun, apainduri ta pitxiz ornitu ta edertua izan bazan, gizonak Jaungoikoari eskeintzak egiteko jaso zuan Eleiz garai ura; zenbat edefago ta garaiago izatea ote zegokion eta zegokion bezela egin ote zuan Jaungoiko guzieldunak, guziz jakintsu ta zeru lufak egiten asterako bere buru ta gogamenean zeukanak, bere Seme Jaungoikoa artu ta soindu bear bear zuan Andre Maria'ren efai garbietako Eleiz bizia.

Ergo fecit. Ofegatik lurbirako gizadi guztiak egun auetan goratzen eta zoriontzen dute Andre Maria jaierarik bizienaz, efi guztiak bere onetan auzpezten dira bere edertasun lausorik gabea goratuaz, egunkaritan irakurtzen degunez, efi guztiak leya-zen dira batak eta besteak eleizkizun, abesti, apainduri, lore ta biotz erakutsirik garaienak eskeñi ta opaltzen, era onetan lurbi-

ra guztiak ao batez eta ífintzi batez aitortu ta omendurik Andre Mariaren Sorkunde Eífugabea.

Guk ere geure alegintxoa eskeñi diogu egun auetan guztitan, Maria'ren alaba zintzoak eder ipiñi duta bere jargoi zotilean gure Ama ta Eíegin berdingabearen irudi lerdena, lore ta pitxi usaintzuz eta ikusgariz apaindu dute, abesti gozo ta biozkoñak eskeñi dizkiote beren Ama guztiz garbiaren izena goien-goienara jasoaz. Etxekoandreak ere argi ugariak piztu dizkiote bere edertasunak oraindik eta areago dirdiratu dezan eta ordan ez beren etxetan argi egin dezan, eta bere esku eífukitsua gure alde zabaldu ta bedeinkapen ugariok guregana ixuri ditzan. Guztiok, auñak eta aitonak, gazteak eta adiñekoak Eleiza betean etofi gera zure oñetara, Andre María guztiz garbia ta zerutar Eíegin gozoa; entzun itzazu, bada, Ama erukitsu ta ongílea gure deiak eta gure eskariak eta bialdu egizkiguzu bear ditugun laguntzak, zure jaiera, maitasun eta zaletasun gartsuaz lur onetan bizi ondoren, zure arpegi edera ikusteko zoriona izan dezagun betiko zoriondegian.

Ala izan bedi.

EGUARÍ JAIA

LENENGO BERIONA

Luk. Don. II, 1-14

Egun aietan Zesar Augusto'ren agintza bat atera zan gizadi guzria izauritu (izenperatu) zedin. Lenbiziko izaurikuntza (izanperatze) au Siri'ko buruzagi Kirin'ek egiñarazi zuan: guztiak, beraz, bazijoazten, beren buruak norbere eítan izauritzeko. Jose ere, bada, Galilea'ko Nazaret uritik Belen zeritzaion Juda'ko Dabid'en urira igo zan izauritzera bere emazte aur-

dun Maria'kin. Eta an zeudela, erdibitzeko egunak eldu zitzaizkion. Eta bere seme lenbizia izan zuan eta oyaletan bildu ta a'askan etzan zuan: a'oztegian berentzat tokirik ez zegolako. Ta lu'alde artan artzaiak ernai zeuden, gauez izar argitan artzantzan. Eta onetan Jaunaren aingerua bertaratu zitzaien, eta Jaunaren argitasunak inguratu zituan, eta ikara aundiaz bildur-tu ziran. Bañan aingeruak esan zien: Ez bildur izan, o'ra zuei berion dizutet, gizadi guztiarentzat poz gurena izango dana: Kristo Jauna dan Gaizkatzalea (Salbatzalea) gaur jaio zaizute, Dabid'en e'rian. Eta ona zuentzat ezagupidea: Aurtxoa oyaletan bildua ta a'askan etzana idoroko (arkituko) dezute. Ta bapatean zerutar gudari samalda Aingeruakin batu zan, Jainkoa go-retsi ta esanaz: Aintza goienetan Jainkoari ta barandia, pakea lu'ean gogo oneko gizonai. Aingeruak beragandik zerura aldegin zutenean: artzaiak alkari ziotzaten: «Goazen Belen'año, ta Jaunak agertu nai izan digun gertari au dakusagun». Eta joan ziran laisterka: ta Maria, ta Jose ta Aurtxoa a'askan (añaskan) ja'ria idoro zitusten. Ikustean, bada, berai aur one-kiko itzez esanak azaldu zitusten. Eta entzun zuten guztiak a'ri-tu ziran, baita artzaiak berberai zesaizkienaz ere. Mariak, beriz, aritz (esan) auek guztiak osatzen zituan, bere biotzean oratuaz. Eta Artzaiak, berai esan zitzaienez, entzun eta ikusi zitusten oro-en gandik, Jainkoari goreska ta aintzuzka itzuli ziran.

Egun aietan Zesar Augusto'ren agintza bat azaldu zan, guztiak e'fi-agiritan beren izena ezartzera beartuaz. Egun aie-tan, au da, Daniel igarleak esan bezela, Jesukristo'ren jaiotza au'etik igaro bear ziran irurogei asteak igaztu ziranean, Juda-e'fiko eskualde ta aginpidea erbestear eta a'rotzen mende zegoa-nean, Zakarias igarleak au'ez adierazitako pakea gizadira eto'fi zanean eta azkenik Andre Mari (Birgiña) aur-egiteko ze-goan egunetan, orduantxe azaldu zan Zesar Augusto'ren agin-tza, guztiak beren izena e'fi-agiritan ezartzera beartuaz.

Zesar Augusto'ren asmoa ta gogoa zan zenbat gudamutil bere mendean zeuzkan jakitea ta zenbateko zerga edo kontribuzioa bere mendekoai ezafi lezaieken jakitea; baña Jaungoikoaren bideak besteak ziran, eta Jaungoiko gure Jaunak agintza onen bidez tajutu zuan aspalditik, gizaldi askoz auferik erabaki ta esana zeukan gertakizuna. Mikeas igarleak idatzia zeukan, bada, antziñatik: «*Et tu Bethleen Ephrata parvulus es in millibus Juda; ex te mihi egredietur qui sit dominator in Israel.*» Eta zu Belen'go eña txikia zera Juda'ko eñien artean; baña zuregandik ertengo zait Israel'go Jaun agintaria.

Guztiak, bada, Zesar Augusto'ren agintza betetzeko egun jakiñak eldu ziranean, nor bere jaioteñira bidean jañi ziran, agintariai beren mendetasuna erakutsi ta beren izena eñi-agirtan ezartzeko.

Jose ta Maria Dabid'en jatoñikoak izanik Belen'era joatea zegokien eta besteak beren jaioteñira bezela, Maria ta Jose Belen eñiruntz abiatu ziran. Iru egun eta erdiko bidea zeukaten bañu aldetik, Samaria, Siken eta Betel eñien bañuna joanaz. Etorkunde'ko (abendu'ko) egunetan zan, neguaren biotzean, aize gofi-otz eta elurte garaian. Andre Maria asto gañean dijoa ta Jose Donea bere inguruan agai bat eskuan duala. Beren inguruko gizasalen aldean itz eta jolas gutxi egiten dute ta sañitan zeruruntz beren begiak jasotzen dituzte laister gertatu bear duten gertaera afigañi ta mirari aundiak oroitu ta gogoratuaz.

Belen'go eña Jerusalem'dik bi legua bide dago ego alde-runtz jota. Eñi koxkor polit au masti, pikotegi ta olibategiz inguratua arkitzen da ta zelai, muño ta menditan artzai asko ikusten dira artzantzan. Andre Mari ta Jose laugañen egunaren iluntzaldean, eguzkia bere azkeneko eñañu orizka-motelak izpitzten ari dan bitartean, eltzen dira Belen'era ta laister asten da Jose Donea ostatu bila.

Zesar agintariaren agintzak, Dabid eñegearen belauneko (ziran) gizatalde aundiak bilduazi zituan Belen'go eñian, eta aberats eta aundizkiak afealde artuak zeuzkaten etxerik erosoe-

nak, ostatu ta jatetxeak ere zearo beteak arkitzen ziran egun aietan zebilen gizaketa aundiaz, eta beren aide ta ezagunak ere aitzaki ta abar ez zien baxtar bat egokitu nai izan beartsu ikustean. Azkenez iñun lekurik arkitu eziñik, eta iñun emango ez ziotela etsi zutenean, Belen efi ertzean zegoan egileor edo estapeltxo batera joan ziran Jose ta Maria beren gorputz nekatuak zerbait atsedentzera.

¡Ai Belen'go aundizki aiek eta Belen'go etxekoandreak jakin izan balute nor ziran beartsu aiek eta gertatzekoa zan mirari aundiaren befirik izan balute, bai pozik artuko zituztela beren etxean eta bastertxo bat ezezik lekurik edefena ere jafiko ziela gizaldi guzietan aitortua izango zan Aurtxo Jaungoikoaren jaiotz ura beren etxean izateko zorion aundi ura izateafen. Bana antziñatik idatzia zegoan Idazti Donean zer gertatuko zitzaion: *In propria venit, et sui eum non receperunt*. Berenetara, bere jatorriko eñira etofñi ta beretañak, bere eñitañak ez zuten artu nai izan. Eta idatzia zegoan bezela gertatu ere egin zan.

Estalpe zar artan sartu ziranean, bada, gau aundi ta done ura bere ilunpearekin gañeratu zitzaien. Belen'en ostatuak itxizten joan ziran eta etxetako krisalu ta argi motelak itzali zituzten. Belen guztia lotan zegoan. Zeru goieneko izañak bakañik zeuden ernai, argirik zoragañienaz ditziratzen zutela. Eta ixilpe aundi aren erdian, Andre Maria ta Jose Donea Jaunari otoitz beroak egiten ari ziran bitartean, gauaren erdian, Ama Donearen (Birgiña Amaren) eñai garbietatik, sagar eldua zugatzetik bera bezela, jetxi zan luñera Aurtxo Jaungoikoa, lurbira guztiaren Jaun eta Jabea, gizaldi ta gizaldietan ezagutu ta aitortua izango zan Aurtxo Jaungoiko ta gizadiaren Gaizkatzalea Salbatzalea).

Berealaxe Andre Mari (Birjiñak) afealde z gerturik zeuzkan oyaletan bil-bil egin zuan eta abereentzat zegoan askatxo batean etzan zuan eta Jose ta Maria bere afean auzpezturik eta buruaz luña jotzen zutela gurtu (adoratu) zuten Aurtxo Jesus Jaungoikoa ta zeru-luñen Jaun eta Jabe jaiobeñia.

Gertaera auekin batera beste mirari afigañi bat ere gerta-

tzen zan Belen inguruko muño ta mendietan. Gau ozkarbi aren erdian artzai batzuek txanda egiñaz ernai zeuden artzantzan, eta azkeneko begiraldia egiñaz lagunak esnatu, ta lotaratzera zijoaztenean, argitasun arigañi bat nabaitu zuten urutian, eta uferatzen eta uferatzen zetofen ega aundian, eta argitasun aren aundiaz izuturik belaunikatu ziran guztiak, ditziramen arigañiaz zetofen ura Jaungoikoa bera izango ote zan ustez.

Ez bildurtu artzaiak, esan zien aingeruak, beñion aundi bat ekartzera nator zuen artera. Dabid'en eñian Jaunaren Bialdua, Kristo gure Jauna jaio da. Eta itz auek esanakin batera aingeru zefenda luze ta ugariak bildu ziran goialde aietan eta aufera zijoazten mendi ta muño gañetan ditziramen zoragañiz argiturik, eta inguru guztiak oyu ta ifintzi gozoaz eztitu ta pozturik, itz auekin: Aintza ta zoriona goietan Jaunari ta pakea luñean gogo onezko gizonai.

¡Zoriontsuak benetan aingeru talde ikusgañi au ikusi ta beren oyu ta ifintzi zerutañak entzun zituzten artzai gizajoak!

¡Aien gozamen ezta une aietan, poz, alaitasun eta atsegiñez gañezka zeuzkaten beren biotz aietan!

Onetan aingeruak aufera joan eta ayenatu ziran, oyu gozokak ixildu ziran eta artzaiak batak besteai begira añitu ta txunditurik gelditu ziran, eta bereala alkar zuzpeltu ta berotuaz Aurtxo Jaungoikoa gurtzeko, adoratzeko joatera erabaki ziran. Eta bakoitza bere ardien etekintxo bat artuta, badijoaz pozez laisterka Jaun Gaizkatzalea (Salbatzalea) gurtzera ta aingeruak esan bezela: Aurtxo Jaungoikoa oyaletan bil-bil egiñik eta askatxoan etzanda arkitu, idoro zutenean bere auñean auzpurturik gurtu zuten sinismen aundiaz eta erabat eskeñi zizkioten biotz-biotzez eskeintzarik samuñenak.

Zer zorion eta pozaren betea nabaitu ote zuten artzai gizajoak Aurtxo Jaunaren oñetan! Zer zoriontsuak berak, Jaun gaizkatzalea (Salbatzalea) gurtzera, adoratzera lenbiziko deituak izanaz.

Eta ¿zergatik, galdetzen dute batzuek, artzaiari lenago eman

zien Jesus'en jaiotzaren beñi-ona, erian zeuden aberats eta aundizkiai baño? Ofela egin zuan, esaten dute jakitunak, artzaiak gizon beartsu ta otzanak izanik, Kristo gure Jaunak, lurbirako gizadi guztiaren Artzai Nagusiak estalpeko askatxoan zeukan beartasun eta otzantasunari geiago zegozkiolako ta gero ere Jesus'ek ezjakiñen bidez aberats eta aundizkiai zeruko bidea erakusteko asmoa zualako.

Gu ere, bada, goazen animako begiakin Belen'go estalpetxora aurtxo Jesus'en aufera ta, apal eta auzpurturik bere aurfean, gurtu dezagun gure mendetza aitorturik. ¿Nor da or aurfean ikusten degun Aurtxo ori? Jaunkoikoa berbera, berez bakañik zearo zoriontsua, gure beañik ezertarako ez duana, guztiok, lur onetako guztick bere nai utsaz utzera, ezer ez izatera biurtu gentzazkena, oraingo lurbira au ta gure izateak baño obeak une batean eta itz erdi batez sortu lezazkena, gure zorion ala zoritxañak bere izateari ezer itsasten ez diona, berez, Jaungoikotasunez guztiz zoriontsua dalako. ¿Nun jaiotzen da? Belen'go estalpetxo zar batean, iñork nai izan ez duan tokian, zulo ta zirikitutatik aize otza sartzen zaiola, abereen askatxo batean eta astoa ta iriaren arnasez berotzen dala, ofelaxe arkitzen da zeruluñen Jaun eta Jabea gizonen maitasun utsez, guri geure bizitzako ikasbide izateañen. Eta bai bikain eta ikusgañia Jesus'en Biotza'ren maitasun eta lei au. Begira dezaiogun une batean Jesus'en Biotz ofi. Gure maitasunez irakiten eta irazekirik dago; gizona batere griñik gabe egin zuan, baña bere ogenaz griña ta maltzurkeriz bete zan etsaiaren mendean bere burua loturik, eta Jesukristo gure Jaunak gizona ainbeste maite zualako Jaungoiko guztiz zoriontsua izan añen gizon egiten da, giza neke ta samin guztiak neufirik aundienean beregain arturik, eta or orain Jesus Aurtxoa gure maitasunez gizon egiñik, ofa or gu leizbeltzeko, inpernuko ondamentetik ateratzeañen aur beartsu, arlote, apal eta ezerez bat egiñik. Guk ere gure maitasuna erakutsi dezaiogun, bada, ta gure biotzetan jaunartzean bere maitasunakin gure maitasuna bat egin dezagun, gure asmo, gogo ta berari

jañaitzeko nai irazekia erakutsi dezaiogun, era ofetan Aurtxo Jesus'en aginduakin bizitza labur onetan bizi ondoren, betiko zorionean ere Berakin izan gaitezen.

Ala izan bedi.

URTEAREN AZIERAN

Postquam consumati sunt dies octo. ul circumcideretur puer vocatum est nomen ejus JESUS.

Zortzi egun igaro ziranean, aña bñebakia izateko JESUS izena jañi zioten.

Luk. Don. II, 21.

Jaungoikoaren Bialdua ta gure (Salbatzañea) Gaizkatzañea jaio zanetik zortzi egun igaro ziran, eta zortzigañen egunean, Moises'en legeak agintzen zuan bezela, bñebakia izan zan. Bñebakitzea izatean añañari ebakitxo biribil bat egin eta odol pizka bat ateratzen zitzaion eta orduan, orain ugutzan (bataiuan) bezela, bere izena jartzen zitzaion. Onela bada Moises'en legeak agintzen zuan bezela, zortzigañen egunean bñebakia izan zanean Jesus izena jañi zioten, aingeruak amesetan Jose ta Maria'ri esan bezela.

Ez naiz geldituko gaur Jesukristo'ren bizitzako gertakizun añañari onen gaia azaltzen, baña gaur igazko urtea atzean utzita urte beñiari aziera eman diogun egun onetan gogora datorkit gaurko beñioneko zati eder au: «añañaren jaiotza ezkeru zortzi egun igaro ziranean, bñebakia izan zan».

Igaro da baita ere guretzat igaz egun au jaieztu gendunetik urte oso-osoa ta gaur aziera ematen diogu beste beñi bateri Belen'en jaio zan aurtxoari Jesus izen edeña jañi zioten egunean.

Oñegatik bada gaur urteari aziera ematean lenengo eskeñak eman bear dizkiogu Jaungoikoari urte guztian gure biziari eutsi

diolako ta bitartean ainbeste gaitz eta ezbeařetatik ateraz osasuna eman digulako. ¡Eskeřak bada Jaungoikoari bere ontasun aundi auekatik! Eskergintza au egin ondoren ordea, bade-gu beste egiteko aundi bat, ez degu igaro bear gaurko egun au gure biotzean sartu gabe, gure bařuna aztertu ta berari goraberak eskatu gabe, Jaungoikoak eman digun urtealdi eder ori, nola igaro degun jakin gabe, erao netan gure igazko biziera aztertu ondoren auferako erabakiak artu ditzagun eta Jesus'ek gugatik, gu zeruratzeagatik bilebakia izatea, zauriz mindua izatea onez eraman zuan bezela, guk ere Jesus'gatik eta geure buruaren onerako, ala bear bada, erabaki ta zuzenbide latz eta gogor samarřak ontzat artzera esi gaitezen.

Salerosketan dabiltzanak, etxealdeak dituan nagusiak, lan-tegia daukan jabeak, aberastasun eta ontasun asko dituztenak urte-garai au eldutzean beren aberastasunen gora-berak ikusten dituzte, kalteak eta irabaziak nundik datozkien aztertzen dituzte, ufengo urtean kaltebideak atzeratu ta itxi ta irabazpideak ugaltzeko.

Orixe egin bear degu, bada, guk ere gure bizitzarekin, oraintxe igaztu zaigun urte aldi ortara begiratu bear degu ta aztertu ta ikusi bear degu nundik etoři zaizkion kalteak gure animari ta nundik irabaziak, era onetan kaltebide oiek efotik, sus-traitik kendu ditzagun eta urtebeři au zintzo ta zuzenago igaro dezagun.

¿Zer da, bada, bizitza au ofela aztertu bear izateko? Gure jaiotza ta eriotzaren bitartean dagoan aldia da bizitza, Jaungoiko gure Jaunak lur onetan lan egiteko ematen digun eguna da bizitza, betiko saria irabasteko ematen digun garaia, beretzat izan nai ote degun Jaunak ikusteko azteřaldia da; gure betiko zoriona erein eta landutzeko aroa da gure bizitza. Eriotzaren gaua eldutzen danean ezin iňork geiago lanik egin al izango du ta bakoitzak bere bizitzan egindako irabaziak bituko ditu.

Gure bizitza au itxukerian igarotzea, gure Jaungokoizko egin beařak aztuta eukitzea, luřeko zorion eta irabazitan bakařik

gure begiak itsatzirik eukitzea, gure bizitzaren ufezko aldi au alper-alpefik galtzea da, geure buruak zearo txospiltzea, engañatzea da, gure betiko zoriona erein eta landu bear degun garai eder eta mardul au uzkerian eta besoak gurutzetuta igarotzea da.

Ořegatik, bada, gaur biotzean sartu bear degu, gure bařuna aztertu ta ikusi bear degu urtealdi au nola igaro degun jakiteko, ta auřerako bide zuzenak erabakitzeko. Jaungoiko gure Jaunak guztioi dei egiten digu naiz umetan naiz gaztetan eta naiz zartzaroan gauden guztioi; batzutan bere goiargiaz deitzen digu, bestetan bere apaiz jaunaren itzaz, lagun-urko onaren ikasbidez, eleiz kanpaiaren otsaz, sakramentu doneak artzera deituaz, eriotza gogofen baten bidez eta beste eratara. Eta guk ¿zer erantzuten diogu Jaungoiko gure Jaunari, zer egin degu joan dan urte onetan? Egunak eta urteak aizea bezin laister dijoaz; guztiok ibaia itxasora bezela, Jaungoikoagana goaz. Batzuek gaztetasuneko urterik edefenak igaro ditue, besteak urtetan auřera dijoaz eta besteak zartzaroan dabiltz. Bařa ¿zenbat gure eři onetantxe ez dira il igazko urte ořetan bertan gazte azkoak, egun batetik bestera ta bapatean, egun batzuek auřetik osasun bikañez zeudela uste genduzenak? ¿Zenbat gure adizkide, gure gaztetako lagun, gurekin lanean eta jolasetan jardunak ez dira il azkeneko urte auetan? Eta aientzat bezelaxe etofiko da guretzat ere txanda, ta aiek orain erdi-aztuak dauden bezela gurekiko ere erdi-aztuko dira alditxo bat igarotzen danean eta guk orain egindako lan eta egite onak bakafik balioko digute, eder izango zaizkigu Jaungoikoaren auřean.

Baliteke norenbaiteri gogorapen auek, triste ta ilunak iruditzea pozez eta alaitasunez beterik igaro bear degun egun onetarako; bařo neuk ere gaurko jai au pozez eta alaitasunez guztiok igarotzea nai det, egiazko poz eta alaitasunez, anima garbiak eta bařungo pakeak ematen duan egiazko alaitasunez. Ořegatik ez det utzi nai urtearen azierako egokiera au adierazi gabe, urte ořetara begiratu ta aztertu bear degula, urte ořetako okeřak zuzendu ta zořak garbitu bear ditugula ta auřerako asmo

ta erabaki onak artu bear ditugula. ¿Nork daki urte onetan osoan biziko geranik? ¿Nork daki ufengo urtearen gaurko egunerako emengo noren bat Jaungoiko gure Jaunari kontu estua emanda egongo ote dan? Eta baliteke gaxo luze baten ondoren iltzea, ta baita batetan eta Eleizako Sakramenturik gabe ere; ofegatik, bada, gure animaren etsaibeltzak, gure anima leizbeltzera, inpernura eraman nai duanak gauza auek ixilik igarotzea nai badu ere, guk gogoratu egin bear ditugu lufean une bateko poz pitin bat ez galtzeagatik betiko poz, alaitasun eta zoriona galdu ez dezagun.

Igazko urtea pekatuan, Jaungoikoaren gofotoan, gaiztakerian igaro duanak, orain du garaia bizitza beñi bat asteko, orain dauka beta bere okeñak zuzentzeko, Jaungoikoaren bidetan asteko, ta zoriontsua beta daukanean Jaungoikoagana biurtzen dana. Lur au ta gure bizitza badijoaz, igazko urtetako gure jolas, alaitasun eta atsegin guztiak amaitu ta aizetu ziran, baña gure animak beti iraun bear du; alegindu gaitezen bada gelditzen zaizkigun urtetan gure animaren betiko bizitza zoriontsua iristen.

Auxen da, bada, zuei opa dizutena urtearen aufeneko egun onetan zuen egiazko poz, alaitasun eta zoriona, zuen etxetako batasun, pake ta osasuna, gure zeruko Aitari aitagurea esatean eskatzen diogun eguneroko ogia ta betiko zorionera eramango gaituan Jaungoikoaren legeko bizitza.

Egunak eta urteak, Juan Krisostomo doneak dion bezela, berenez ez dira ez onak eta ez txarñak, berenez ez dira bata besteagandik banatzen eta guztiak berdiñak dira, bakar-bakarñik banatzen eta esperdintzen dira gure egipen eta bizitza ona ala txarñarekin. Zuzentasun eta Jaungoikoaren legean igaro degun eguna, uraxe da ona ta zoriontsua guretzat, eta ogenean eta gaiztakerian igarotzen deguna da txarñ ta zorigaizkoña benetan.

Onak poztu bear du gure biotza N. E. M., sinismen onak alaitu bear du, indartu ta kemendu bear du gure bañuna. Lufeko aberastasun, jai, jolas, atsegin, ibilera gaizto ta pekatuetan dabiltzanak ez dira zoriontsuagoak oietan bizi ez diranak baño,

ta ain zuzen ofegatik dabilta gaiztakerizko atsegin mikatz oien ondoren beren bañuan somatzen eta gozartzen ez duten zorion ori antxe arkituko dutelakoan; leyal bizi diranak, beñiz, lur onetan bertan egiazko pake, baretasun eta anirako gozamen zerutar pozgafia somatzen dute, ta zenbat eta zintzoago ta garbiago iraun, ainbat eta biziago gozaten dute egiazko zorion betea. Baña batez ere au da gogoan kendu gabe euki bear deguna. Lur onetako aberats, jolastzale, atseginzale oien pozak eta alaitasunak bañungo afaren kezka nastuak eta beazunez gañastuak lur onetako bizitza laburakin amaitzen dirala, eriotzakin amaitzen dirala; kristau zintzo ta leyal oien nekeak eta alegiñak egiazko zerutar poz eta alaitasunakin lur onetan ere gozatuak, baita ere lur onetan amaitzen dirala ta beren neke oien ordañez, betiko sari bikain, alaitasun eta zorion amaigabea eriotzakin astendala.

Jaso ditzagun, bada, gure begiak zerura E. E. M. begiratu dezagun betiko zoriondegira ta aren itxaropenean indartu gaitzen, berotu ta kemendu dezagun gure biotza ta alegindu gaitzen betiko zorionera eramaten duten bidetatik ibiltzen.

Gaur, E. E. M., urtearen asierako egun onetan erabaki dezagun ala bear bada, bizitza beñi bat egitea, ogenerako bideak betiko uztea, Jaungoiko gure Jaunak erakusten dizkigun bideai jañaitzea ta ofetarako bitarteko edeña ematen digu gaurko Beñionak adieraziaz: Aurtxoa bilebakia izan zanean, berari Jesus izena jañi ziotela.

Izen au da luñera guri betiko osasuna ekañi ziguna, Jesus izena bildurgafia da gure animaren etsaiantzat, Jesus'en izenak kementzen gaitu etsaiaren erasotan, indartzen gaitu elofiotan, pozkidatzen gaitu ezpeañetan... Jesus'en izena euki dezagun, bada, beti gure biotzean eta aoan gure estuasunetan, izan bedi beti gure laguntza gure bizitzan, era onetan Jesus'en izena maitatuaz bizi ondoren bere izen gozoa esanaz il (gaitezen) eta berakin batean egundo amaitzen ez dan urte artan bizi gaitezen.

Ala izan bedi.

JESUS'EN IZEN GURENA

Postquam consumati sunt dies octo ut circumcideretur puer, vocatus est nomen ejus Jesus.

Zortzi egun igaro ondoren aña bñebakia izan zanean, Jesus izena ipini zioten. Lukas, II, 21.

Auxen da N. E. M. gaurko Beñionaren zati bat eta bere gain gogorapen batzuek egin ditzagun.

Itz bi auetan bakarik adierazten digu Lukas Beñionlari Doneak Jesukristo gure Jaunaren bñebakitza: jakinik bere irakuriek ongi zekitela bñebakitzeko unean egiten ziran erenuntzak, zeremoniak, ez da batere zabaltzen gai onetan, eta bera aitutzen du bakarik bere beñirik nagusiena, Jesus izena ezari ziotela adierasteko.

Guri ordea on zaigu bñebakitza au zer zan, eta bera artetik zer ondoren eta legebide sortzen ziran jakitea, Jesukristo gure Jauna bñebakia izan zanean zer artzera eratxi ta beratu zan jakiteko.

Bñebakitza au Jaungoiko gure Jaunak Abraham eta bere belauneko gizaseme guztiai ezari zion erenuntza, zeremoni bat zan, berakandik zeukan leialtasunaren agiri bat bezela. Bñebakitzera zijoanari suafizko aizto edo kutxilo txiki batez aragi zati txiki bat ebakitzen zitzaion eta eginkizun au apaizak egiten zuan eta onek ezin enean beste edozeñek bere onez.

Bñebakitza onen bidez jatofizko ogena kentzen zitzaion; gañera eleiza ta gizarteko legetan sartzen zan eta gizon jator eta osoaren eskubideak artzen zituan; azkenez bere izena ipintzen zitzaion.

Itz batean bñebakitza au gaurko gure Ugutzaren, (Bataioaren) antza bat zan, onen bidez, bada, jatofizko ogena barka-

tuaz gañera Eleizan sartzen da sinismeneko aginduai jafaitzeko bearkizuna artuaz eta erabat izena ere ipintzen zaio. Onegati-kan Pablo Bidali Doneak ari Ugutza'ren (Bataioaren) irudia deitzen zion.

Jesukristo gure Jauna, bada, gaurko Beñionak dionez, jaio ta zortzi egun igaro zituanean bilēbakia izan zan. Ez zeukan, noski, Jesukristo gure Jaunak lege au betetzera eratxi beañik, Efege bat berak ematen dituan legeak betetzera bearturik egon oi ez dan lez, baña idazti doneak dionez: *Humiliavit semetipsum Dominus*: Jaunak bere burua apaldu, beratu egin zuan bilēbakia izan zedin; *Propter quod*, jafaitzen du idazti doneak *et Deus exaltavit illum, et donavit illi nomen quod est super omne nomem*, eta ofegatik Jaungoikoak ere bera goietaraño igo zuan, izen guztien gañetik dagoan izena berari emanaz.

Vocatum est nomen ejus Jesus. Jesus izena ipiñi zitzaion, dio gaurko Beñion doneak. ¿Nork ipiñi zion izen au? Lukas Beñionlari Doneak esaten digu: aingeruak aitatu zuala izen au, Andre Maria'ren eñai garbietan Auñ sortua izan baño lenago. Goiaingeru Gabirel'ek aitatu zion, baña ez zan berak ipiñia izen ori, goragotik zetofen, Jaungoiko Berberak ipiñia izan zan.

Jaungoikoak bialdu zuan Goiaingeru Gabirel Andre Maria' gana, Jaungoikoaren Ama izateko aukeratua izan zala adieraz-tera ta itzaltasunik aundienaz agurtu ondoren onela itzegin zion: Begira, seme bat sortu ta izango dezu ta Jesus izenez deituko diozu: *vocabis nomen ejus Jesum*. Au naikoa ez balitz bezela, Andre Maria'ren eñai garbietan semea sortu izan ondoren, ager-tzen zaio beñiz aingerua Jose Doneari *vir justus* gizon zuzenari (zintzoari) bere bañua kezketan zeukanean, eta esaten dio; Jose, Dabid'en seme, ez bildur izan Andre Maria zure eskonidetzat ar-tzeko, bere eñaietako semea, **Espiritu** Donearen (Espiritu Santua-ren) egitez sortua da-ta; beragandik jaioko dan seme oferi Jesus izenez deituko diozu: *Vocabis nomen ejus Jesum*.

Gaur da, bada, aingeruak luñera ekañi zuan Jaungoikoaren agindu ura bete zan egun zoriontsua; gaur da aurtxo jaio beñia-

ri Jesus izenez deitzen asi zan eguna; gaur, gizonak zeruratzeko lenengo odol tantoak ixurtzean eta gurasoak Jaungoikoari bildotx erugabe ura eskeintzean beren poz eta samin artean entzuten da itz pozgafi ura: *Jesus est nomen ejus*: Jesus da bere izena.

Ona, emen N. E. M. Jesus'en izenaren lenengo goratasuna: ez da emen lufean asmatutako izena, baizik zerutik ekafia; ez da gizonak ipiñitako izena, ezta aingeruak ere, baizik Jaungoiko Berberak jafia. Emendik atera genezake izen egokia ta betea ote dan Jesus'en izen gurena.

Oregatik beñero esan beaŕean gaude Pablo Bidali Donearen itz aiek: *Humiliabit semetipsum Dominus*: Beratu, apaldu, eratxi zan Jesukristo gure Jauna bilebakia izatera; *propter quod et Deus exaltavit illum et donavit illi nomen quod est super omne nomen*: oregatik, bada, Jaungoikoak goratu zuan goietaraño ta izen guztien gañetik dagoan izena eman zion.

Eta ¿zer esan nai du Jesus izenak? Gaizkatzalea (Salbatzalea). Jesus'en jaiotzan artzaiai agertu zitzaien aingeru argiak alaxe adierazten digu itz auetan: Begira, beñi aundi bat zuei adiraztera nator: zuen Gaizkatzalea Salbatzalea jaio da gaur. *Natus est vobis hodie Salvator*. Orixe erakusten digu, Jesus izena ipintzen dioten bitartean ixurtzen ari dan odolak ere, ez zeukan, bada, Jesus'ek odol ura ixuri beafik, erugabea ta ogenik gabea izanik, baña gizonen Gaizkatzalea Salbatzalea ta zeruratzalea zalako beren ordeztan ixurtzen du Jaungoiko gure Jaunaren aginduz izenik egokien ori une berean artuaz.

Onez gañera badu Jesus'en izenak beste goitasun bat, au da, Jesukristoren Jaungoikotasuna ta gizontasuna itz batean bildu ta eukitzea. Gizonak ogena egitean Jaungoiko gure Jauna isekatu ta iraindu zuan eta orain Jaungoiko gure Jaunari irain eta iseka beltz ofen ordain zuzengafia biurtzeko, Jaungoikozko almena zuan gizona izan bear zuan eta ofa Jaungoiko gure Jaunak gure Jaun Gaizkatzale, Salbatzale ta Jaungoiko gizon oferi deitzeko egokitu zion izen edefa, Jesus izena.

¿Eta almen eta indar aundia al du orain guretzat Jesus'en

izenak? Pablo Bidali Doneak Pilipo eriko kristauai egin zien eskutitzean auxe esaten die: *In nomine Jesu omne genu flectatur cælestium, terrestrium et infernorum*. Jesus'en izena entzutean zeru ta lur eta leizbeltzeko, infenuetako guztiak belauna bikatu bezate.

Jesukristo gure Jaunak berak bere Bidaliak (Apostoluak) lurbira guztian bere Beñona bafeatzera bialdu zituanean itz auek esan zizkien: *Signa autem eos qui crediderint, hæc sequentur: In nomine meo demonia ejicient, linguis loquentur novis, serpentes tollent, et si mortiferum quid biberint, non eis nocabit, super ægros manus imponent, et bene habebunt*. Nigan sinisten dutenak nere izenean etsaibeltzak, txefenak uxatuko dituzte, izkuntza beritan itzegingo dute, subeak eskutan artuko dituzte min bildurik gabe, mizto, eden, pozoirik eraten badute ez die gaitzik egingo, gaxoen gañean beren eskuak ezañi ta sendatuak geldituko dira.

Eta Jesus'en itz auek ez ziran alpeñikako utzean erori, ez ziran eskeintz utzak izan; Bidalien egintzetako idaztiak dionez, bada, Pedro ta Juan Bidali Doneak Eleizara zijoaztela jaiotzatik efena zan eskale batekin arkitu ziran, *ate edefa* zeritzaion Eleiz saferako ate batean eta Bidalien (Apostoluen) biotza bigundu zan erukañi ura eskean ikustean. Orduan Pedro Bidali doneak samurkiro itzegiñaz, esan zion: Begira, gu ere beartsuak gera, ez det ufe ta zilañik, baña daukatenetik emango dizut: Jesus'en izenean jeiki ta ibili zaite; eta eskutik elduaz jeiki zuan eta bere oñez ibiltzen asi zan eta bere efeneria zearo sendatua ikusirik pozaren pozez bapatean jeiki zan eta alai ta bizkor ibili zan Jaunari eskeñak emanaz.

Jesus'en izenak Bidalien (Apostoluen) biotzetan sortzen zuan gar eta indaña neufigabea zan. Jesus'en izena gogoratzea naikoa zuten Eleizaren lanbide ta arazotan gogor leyatzeke ta poz eta eramanik aundienaz etsaien eraso ta esespenak eramateko. Egun batean (Bidalien egintzetako idaztiak dionez) Bidaliak (Apostoluak) Jesukristo'gan itzegiten ari ziran, Eleiza

Ama Donea zer zan adierazteko ta beren etsaiak eldu ta auzite-gira eraman zituzten eta an zigofez zeatu ta gero azkatu ta joaten utzi zien, baña Jesukristo'gan itzegitea debekatuaz (galera-ziaz).

Auzitegitik erten ziranean, dio idazti doneak: *ibant gaudentes*: pozetan zijoazten; ¿badakizute zergatik? idazti doneak berak esaten du, *quoniam digni habiti sunt pro nomine Jesu contumeliam pati*. Jesus'en izenean gogorkeri ta zigorkada aiek eramateko aingafitzat artuak izan ziralako.

¿Zer ikaspide, onalde ta ondoren atera bear ditugu N. E. M. gogorapen auetatik? Lenengo asmoa izan bedi N. E. M. Pablo Bidali donearena bera. Pablo Bidalia (Apostolua) Jesus ezagutu baño leno, Jesus'en etsairik gogor, sumin eta kaskařena izan zan, baña Jesus ezagutzera eldu zanean Jesus'en maitasunean zearo goritu, zoratu zan eta Jesus'en alde egin zuan gizon eta jakintsurik bikañena izan zan eta orduan zion kristauai bere eskutiz batean: Anaiak, egiten dezuten guztia, naiz itzez eta naiz egitez, guzti-guztia egizute Jesukristo gure Jaunaren izenean.

¿Zergatik N. E. M. Jesus'en izenaren maitasunean beroturik ez degu bizi bear berak guziro maite bagaitu? Gure lan eta nekeen artean, gure naigabe ta gařaztasunen artean, gure poz eta alaitasunetan, gure ezbear eta zorionetan beti Jesus'en izena bear genduke gure ao ta biotzetan gure zuzentzale ta adizkiderik onena bezela. Bernardo donearentzat janaria mikatza zan, edaria gařatza ta izketa guztia lela, bitartean Jesus'en izena entzuten ez bazan; eta berak dionez: Jesus'en izena aoarentzat ez-tia da, belañarentzat gozagafia ta biotzarentzat poza.

Ikasi dezagun, bada, N. E. M. Done auetatik Jesus'en izena itzal eta begirunerik aundienaz gure aotan artzen; ez det emen aitatu ere nai biraoleak Jesus eta Jaungoikoaren izen donea beren ao loietan artzean zenbaterañoiko itsusikeri ta belzkeria egiten duten; izan bedi beti gure beařetan eta zorionetan gure laguntzalerik onena ta bikañena ta batez ere azkenean, gure eriotzako orduan gure aoa itxiko duan izen gozoa, era

onetan betiko zorionean ere Jesus'en izen guren ori beti goratzen eta maitatzen jaraitu dezagun.

Ala izan bedi.

SENDI DONEA

Verbum Christi habitet in vobis abundanter.

Kristoren itza bizi bedi ugariro zuen biotzetan. Pab. Don. III, 16.

Eleiza Ama Donearen Buru egiten duan Eñoma'ko Aita Santua beti ernai dago bere mendean dagoan kristaudia bide egokitik eramateko, gizartean okerkeriz sartzen ari diran gezur- ezko erakutsiak oinperatu ta garai bakoitzari dagozkion jaiera berezi ta erakuspenak zabaldu ta kristaudiaren biotzean zuzper- tzeko. Eta onela, aspaldiko gizalditan Eñoma'ko Aita Santuak zerbait iristeko asmoan jafi zuan jai aundi baten bidez, orain kristaudian iritxi ta betea ikustean jai ura kentzen duan bezela, era berean orain Eleizaren erdian okerbideren bat indartzen ikus- ten duanean eta berari atzera eragiteko beaia ikusten duanean, jai beñi bat sortzen du uztasun eta okertasun ura jaiera berezi batez menderatzeko.

Era onetan, bada, Eñoma'ko Aita Santuak oraindik urte as- ko ez dirala jai batzuek kendu zituan bezela, jafi zituan baita ere bi jai eder, bat Kristo Eñegeren jaia ta bestea gaurko egunez egiten degun sendi edo famili donearen jaia. Eta garai egokian jafi ere gaur guztiok egiten degun bigaen jai au, eleizaren etsa- iak sendi edo familia usteltzeko ta austeko asmotan eta beren eginbear eta obligazioak, bai senar-emazteen artekoak eta bai- guraso ta semeen artekoak loietan ito nai dituzten garai onetan, garai egokian esaten det Aita Santuak jafi zuala jai au, Alema- ni ta Prantzi'ko gizon gaizto batzuek sortu zituzten erakutsi gal-

duen kutsuak lurbira guztian zabaltzen asi ziralako, beren ondoren beltzak sendi edo familietan ezafi, utzi naiaz. Aien erakutziz beartsuak ez dute semerik izan bear, aberatsak ere neuñi batetik gora ez; eta semerik ez izateko senar-emazteak loikeri guztiak libre dituzte. Senafak emaztea utzi lezake uskeri bategatik, eta emazteak ere senafa bai, ta beste onelako erakutsi beltzak dira gizon maltzur oiek zabalduak jakinduri ta azkatasun aitza-kian.

Erakutzi galdu auek idazti txar eta zine gaiztoen bidez zabaldu dituzte lurbira guztian eta bildur naiz eñi onetara bertara ere eldu ote dan erakutsi galdu oien kutsua, oraindik orain ikusten nuan, bada, kaleko ormaetan zineko agiri edo paper apainlikitz oietako bat itz auekin: ¿Deben tener hijos los pobres? au da ¿beartsuak izan bear aldute semerik? ¿Zer galdera da au, N. E. M. katoliko eñi baterako ta iñongo lekutarako ere? Egokia al da galdera ori? ¿Zertara dator galdera ori? Ez al-ditu berdin izan bear semeak naiz aberatsak eta naiz beartsuak Jaungoikoak ala ematen badizkio? Baña gizon zital auek begia ernai eukitzen dute ofelako erakutsiak paper txar eta zinetan gozokeriz eta atseginkeriz bakañik inguraturik erakusteko, gero guraso zorrigabe ta seme gizajoai etortzen zaizkien ondamen aundiak estalirik.

Gu ordea egiazko sendi edo famili on bat zer dan jakitera goazenean ez goaz ofelako sendi ausiaren, otzaren, eta bizitza guztirako beren egizko zoriona galdu duanaren erakutsien bila; gure biotzak egizko zorion iraunkoñaren bila dabilta, gure biotzak sendi zorionez betearen bizitza ikusi nai dute, gure biotzak senar-emazteen arteko leyalasuna ta seme ta gurasoen arteko maitasun ugaria darion sendia ikusi nai dute ta au eleizaren bitdetan, eleizaren erakutsitan dabilen sendiak bakañik izan lezake ta batez ere bide auetan utsegiterik txikienaren kutsurik izan ez zuan sendi zoragafi arek, Aita Betikoaren poz eta atsegiñik biziena zan sendi done arek. Ikusi dezagun bada sendi donearen bizitza, ikusi dezagun Jose, Maria ta Jesus nola bizi izan ziran

lufean ofela beren erakutsiai jafaituaz, berak bezela gu ere zori-ontsuak izan gaitezen lufean eta batez ere betiko zoriondegian; baña ofetarako zerutar laguntzaren beafean arkitzen naiz eta au bear dan oparotasunez iristeko, goazen Andre Maria guztiz garbiaren oñetara ta agurtu dezagun goiaingeruaren itz eder aiek esanaz.

Agur Maria.

Verbum Christi habitet in vobis abundanter.

Kristo'ren Itza bizi bedi ugariro zuen biotzetan. Pablo Bid. Don. III, bur, 16 lef.

Sendi edo famili donearen erakutsi edefak ikasteko biderik egokiena Beñion doneak beren bizitzakiko aitatzen dizkigun gertaerai jafaitzea da, era onetan berak gertaera aietan egiten zutena ikusiaz guri ere geure bizitzan aien antzeko gertariak etortzen zaizkigunean aien erakutsi edefai jafaituaz bide onetik eta zintzotik ibili gaitezen.

Onela bada sendi donearen bizitzakiko azaltzen zaizkigun lenengo beñiak, Mateo bidaliak (apostoluak) esaten dizkigun aiek dira: Maria Joserren eskonide zalarik, biak alkafeekin bizitzen asi baño len **Espiritu** Donearen (Espiritu Santuaren) egitez aurdun arkitu zuala. Eta Jose bere eskonidea, gizon zintzoa izanik eta Maria'ren izen ona galdu nai ezik, ixilik utzi ta iges-teko asmotan zegoala. Eta onetan zebilela Jaunaren aingerua agertu zitzaiola esanaz: Jose ez bildurtu Maria zure andretzat artzen, beragan dagoana **Espiritu** Donearen (Espiritu Santuaren) egitez sortua da-ta.

Jaungoiko gure Jaunak ainbesteko begiramena izan bazuan Maria'gan bere Soferan, aufen-afenekoko unetik zearo garbia ateratzeko, ¿zenbaterañoiko begiramen berezia ez ote zuan izango, berarentzat gizona aukeratzean? Jaungoikoaren Ama izateko autetsia zeukan Jaungoikoak Maria guztiz garbia, baña gizo-

nik gabe aurdun ezin azaldu zitekean judearren artean, bere-izen ona galdu ta zigorkada lotsagariaren gai izan gabe, ta ofegatik Jaungoikoak eta Mariak bere goiargiz Jose Donea aukeratu zuten bere eskonide izateko. ¡Bai aundia izango zala Jose Donearen zintzotasuna Jaungoikoak eta Maria guztiz garbiak bere eskonidetzat aukeratzen zutenean! Andre Mariak Jose Donea bere gizontzat artu baño len, Idazti Doneak: gizon zintzoa, gizon zuzena, *vir justus*, deitzen dio, ta berak ezertxo ere jakin gabe Maria Guztiz Garbia aurdun ikusi zuanean bere estuasun eta keska lafi aien artean euki zuan begiramen eta mentasunak goi asko adierazten dute bere zintzotasun eta donetasun bikaña.

¡Zer erakutsi edeña bildu lezaketen sendi edo familietako senar-emazteak gertaera eder onetatik!

Maria Guztiz Garbiak igafi bear zion noski, Jose Doneak bere bañuan naigabe gañatzak zeramazkiala ¿ta zer egiten du une gogor aietan? ¡Ah! bere izena, bere eskonide Jose'ren izena, Jaungoikoaren eta Jaungoikoaren Semearen izen aundia zijoa-kien gertaera artan añañizko ixiltasunari eusten dio. ¡Itz bat bakaña bada ere esan balio zerbait azalduaz! Baña ez, ezta itz erdi bat ere. ¡Oh zein gain-gañeko erakutsia ematen dien emen senar-emazteai eskontzako Sakramentu Doneko gai batzutan bear duten ixiltasun eta garbitasunerako. *Nec nominetur in vobis*, dio Pablo bidali doneak. Loikerizko itzik ez bedi izendatu ere zuen artean, ez bedi aitatu ere zuen espāñetan. Lur onetan iñork izan enean **Espiritu** Donearen (Espiritu Santuaren) egitez Jaungoikoaren Semea bere eñai garbietan zeukan Maria Guztiz Garbiak esan zezaiokean zerbait, itzik eta esanik garbienaz, bere eskonide Jose zintzo ta zuzenari, baña guri bidea erakustearren eta gai ofetan euki bear degun begiramenaren ikasbide edeña ematearren itxi zuan bere aoa. Nik ere ofa itz laburetan azaldu Eleiza Ama Doneak nai duan bezela, Maria guztiz garbiak gurasoai beren onizmenik (birtuterik) edefenean ematen dien erakutsi bikain eta gain-gañekoa.

¿Zergatik ezer ez dio aitortzen baita ere Maria Guztiz Gar-

biak Jose Doneari? Bere bañuan gertatzen zan miraria Jaungoikoak berak egiña zalako ta len Jaungoikoak berak goiargiz bere lengusu Isabel Doneari adierazi zion bezela, Jose Doneari ere adieraziko zion uste osoan zegoalako. Baña Jaungoikoak Jose' ren zintzotasuna obeto aztertu ta ikusteko ta bere donetasuna goreneko mañara jasotzeko epetzen, luzatzen joan zan berari adieraztea.

Eta ¿zer egiten du Jose zintzoak buruauste auen erdian? Estuhasun aundian arkitu zan Jose donea, gizon zintzo ta zuzena; alde batetik ondo zekian Jose Doneak Andre Maria Garbi-garbia zala, baña beste aldetik begiak beste zerbait erakusten zioten. ¡Ura lañitasuna! Zer egingo du Jose Doneak? Ez da beñe-pein asieratik asafatzen, sumintzen eta griña ta lei txafak eramanda sututzen. Bere lenengo eginbeaña ezaguturik, Jaungoiko gure Jaunari otoi egiten dio ta argia eskatzen dio, estuhasun artan zer egin bear zuan jakiteko, ta ofela biderik bigunena, egokiena ta beren izenentzat garbiena aukeratzen du, au da, garai artako legeak ematen zuan eskubidez, ixil-ixilik utzi ta igestea. Auzitegira eraman zezakean, gizonen begitan egiazko efuduna azaltzen zalako, baita ere beste askoren afean gogorkeriak eta lotsagaberiak esanda utzi zezakean, baña Jose Doneak, gizon zintzo ta zuzenak, bere biotzaren ontasuna, biguntana ta egiazko maitasuna erakutsiaz erabakirik bigun eta garbiena artzen du. ¡Eta bai afigaña Jose Doneak itz bat ere ez egitea ta ez galdetzea bere biotza ainbesteko kezketan kizkaltzen zeukan gai artan! Jose donearen izaera auxe naikoa da argi ikusteko Jose Doneak Andre Maria guztiz garbiari zion begirune ta garbitasunezko uste betea, ta baita ere Jose Donearen aunditasun eta ontasunezko indaña.

Oña lur pekatari onetan gertatu liteken bein edo beñerako berak erakusten diguten bidea; lendabizi otoitza, gero Jaungoikoaren edo bere bitartekoaren argia ta bere esanera osoro egoitea ta azkenez biderik ixilena, egokiena ta beren izen onarentzat garbiena.

¿Zergatik jaraitzen dio Jose Doneak bide auei bere estuasun aundi aietan? Ongi ezagutzen zualako bere izate guztia, bere soin, bere bafu ta maitasunak ere Jaungoikoarenak zirala, eta ofegatik bere izate guztia Jaungoikoari eskeñia zeukalako, beren, artean okefik baldin bazan Jaungoikoarentzat zala ikusten zuan oker aren irain eta belzkeririk aundiena, bera Jaungoikoaren auean utza ta ezereza zalako.

Ona guraso guztiak jaraitu bear luteken bidea, latza biotza berekoikeriz betea daukanarentzat, baña laztasunen artean egiazko zorion-bide bakafa donetasun eta santutasunean bizinai duan gurasoarentzat.

Gurasoen alkarganako maitasuna Eskontza'ko Sakramentu Donearen bidez donetsi ta santuturik gelditzen da; beraz maitasun ori austen bada, Jaungoikoaren legea austen da ta bera iraintzen da lendabizi egiterik beltzenaz. Baña gaur egunean gutxik gogoratzen ditue ofelako egiak; guraso askok berekoitasunez beterik berai bakarik zor zaiela uste dute maitasuna, berena bakarik dala uste dute, beren buruak jaungoiko txiki egiten dituzte, ez zaie gogoratzen maitasun ori Jaungoikoarena danik eta ain gutxi berari eskeintzerik ere ta ofela Jaungoikoarengandik aldegin eta berekoitasunez betetzen diranean, biotzaren uztasuna, ezin betea etortzen zaie beren biotzaren zulo neufigabea, Jaungoikoak bakarik bete lezakena dalako ta uztasun onen bidez naigabetzen dira ta naigabe ta gañastasun onen eua bere eskonideak duala uste izanik, onenean bere naikeri guztiak bete nai ez dituatako, bien arteko kezkak azten dira ta irudipen bi degabeak, oztasunak, deskonfiantzak, asafeak eta gaitz guztiak, eta guztia bere biotza laztasun aundien erdian ere zerutar poz eta gozamenez euki lezaken Jaungoikoagandik aldegin eta berari bere maitasuna eskeintzea utzi ta lufeko zorionetan biotza bete nai izan zualako.

Joan gaitezen, bada, Jaungoikoagana, ezagutu dezagun bera dala gure izate ta maitasun guztien itufia ta estuasunik aundienean ere ta neke ta naigabeen erdian ere, berak emango di-

gu gure anima ta biotzaren pake ta zoriona ta gure eginbeafaren argia.

Zenbat ikasbide eder atera genezazken oraindik sendi edo famili donearen bizitzatik, batez ere Jose Donea, sendi doneko txikiena beren burutzat ezagutu ta bere esan eta agindupean bizitzetik. Zeruko Aita Betikoak ere, bera ezagutu zuan beti sendi edo famili donearen buru bezela ta sendi doneari zerbait adierazi bear zionean beti Jose donearengana jotzen zuan. Eta ofela Beñion edo Ebanjelioak adierazten digunez, Herodes'ek Jesus iltzeko atxitu nai izan zuanean Jaungoikoak aingeruaren bidez Jose'ri deitu zion itz auek asanaz: Jeike zaite; artu itzazu afa ta bere ama ta zuaz iges Ejipto'ra. Eta Herodes il zanean, beñiro Jaunaren aingerua agertu ta itz auek esan zizkion: Jeiki zaite; artu itzazu afa ta bere ama ta zuaz Israel eñira Herodes il da-ta. Ona bada Jesus Jaungoikoak, Maria, Jaungoikoaren Amak eta Zeruko Aita Betikoak ere Jose, sendi doneko buru ezagutu ta bere esan eta agindupean bizirik zer ikasbide edefa ematen diguten gure etxetarako.

Baña luzegi ez egiteafen goazen labur-labur bada ere sendi doneak Nazaret eñian eraman zuan bizitzarekiko zerbait ikustera. Ejiptotik itzuli ziranean Nazaret eña aukeratu zuten bizitzeko, Belen'go ingurumaitan Arkelao zeritzaion efege gaiztoak agintzen zualako. Eta ona zein itz gutxitan adierazten digun Beñionak Jesus'en bizitza: Jesukristo auferatzen zihoan jakindurian, urtetan eta grazian Jaungoikoaren eta gizonen afean eta beren mendean bizi zan. Ora itz gutxitan, adierazia kristoren eta sendi donearen bizitza afigafia; itz gutxitan bildua egon afen, ordea, Kristoren eta sendi donearen bizitza, ikasbide eder asko atera genezazke batez ere sendian amak eta semeak dituzten eginbeafetarako.

Amarik gabeko etxea etxe utza dala dirudi. Berak zaitzen ditu etxeakoak, berak zuzentzen ditu etxeako lanak eta bera ari da beti etxeako bizitza bideratzen. Ofegatik andrearen gorapenik

edefena bere etxeko egokitasuna da, bera bertako efegiña bezela dalako.

Andrearen eginkizuna au dala, bere izaera bereziak, bere almen eta gaitasunak ez ezik, idazti doneak eta Eleizaren Aitak ere argi asko esaten digute itz auetan: andrea gizonaren lagun eta pozkida dala, etxearen eratzale ta semeen erakustale ta aitzalea.

Onegatik, bada, amaren beaia da bere semeen biotzetan kristauzko erakutsien asiera ezañitzea. Bere semeak egiaz maite dituan ama batek ezin lezake utzi eginbear au ta maitasun eta iraupenez egunero erakutzi bear dizkie Kristoren lenengo erakutsi beaíenak. Amaren eta auaíaren arteko izketa da xamuíena ta gozoena, ta auaíak eta semetxoak oeratzekoan eta oetik jeikitzean beren amaren españetatik maitasunez beterik entzuten dituzten kristauzko erakutsiak, abian dauden txorikumeak beren amaren janaria bezin pozik eta gogoz artzen dituzte.

Onegatik ama onak, bere semeak egiaz maite dituzten amak, beren auaíak oraindik izketan asi baño len ezaíi bear dizkie beren buru ta biotzetan, biotz garbi ta gaitzaren ikuturik artu ez duten aietan kristauzko lenengo erakutsiak. Badira izketan ez dakiten auaíak, zenbat Jaungoiko diran galdetu ta erdi-pañezka biatz txiki bat erakusten dutenak, eta zenbat notin edo persona diran Irukoitz donean galdetu ta iru beatz txiki erakusten dituztenak. ¡Oh zein erakutzi bikain eta gozoa ama arena ta zein begi atsegiñaz begiratzen dion Jaungoikoak zerutik ama on oferi!

Ama onak goizero bere auaíak ur bedeinkatuaz bustitzen ditu ta Aitaren eta Gurutze Santuaren egiten erakusten die. Asitzen dijoazen bezela Aita gurea, Agur Maria ta beste otoitzak erakusten dizkie.

Antziñako idaztiak diote, Origenes jakintsuaren aitak egunero bere semeari bulaíean muin egiten ziola lo zegoan bitartean, **Espiritu** Donearen (Espiritu Santuaren) bizilekua antxe

bañuan zegoala gogoratu ta bere seme eñugabearen bitartez berari maitasuna azaldu nairik.

Amak adierazi bear dio baita ere umeari pekatuaren itxusitasuna ta zintzotasunaren edertasuna, berak argitu bear ditu, bere kidako eginkizunetan pekatu txikia ta andia zer dan, garbi antzean igafi dezaioten eta ardura aundia euki bear du egundano ez esaten umeari gezufik; gertatzen da, bada, umeak izutzeagatik pekatu txikia dan bat aundia dala esan eta gero umeak ofegatik beren uste okefez pekatu aundiak egiten egotea gauza txikietan.

Auek eta beste onelako erakutsi eder batzuek semeai biotzetan ezafi ezkerro ¿bai gauza edefa amarena? ¿bai gorapen aundia sendiko ama onarentzat? ¡Ezin lezake bada, eginkizun aundiagorik egin Jaungoikoaren afean, bere Seme Jesus'i laguntzea baño bere seme ta afaak zeruratzen!

Eta erakutsi auek zenbat aldiz izan dira beren semeen egiazko olentza, salbazioa. Askotan gertatu izan da, semeak gaztetan biufitu ta eleiza sartu gabe ogei ta befogei urtean ere bizi ta azkenean beren eriotzako orduan, amaren erakutsi eder aiek gogoratu, orduko bizitza gozoa gogoratu ta bere biotza malko loriak botatzeraño biguntzea ta aitortza nagusi ta oso damutu bat egin ondoren Kristo'ren besoetan iltzea. Ofa ama zintzo batek izan lezaken saririk eta ordañik bikañena. Ez daki-gu zer ikustera eldu giñezken eta ofegatik artu bear dezute ardura aundiaz gurasoak zuen seme txikiari azierako bide eder auek erakustea.

¡Oh zer negargafia dan umeak jazten, ofazten, apaintzen eta gorputzeko gauzetan ainbesteko arduraz artu ta beren biotzak otzak, ilunak, kristau-ikasbide ta eleiz erakutsirik gabe azteak.

Zorigaiztokoak ofelako ama ta gurasoak, lufean seme-alaba oiek berak emango dizkioten gafaztasun eta Jaungoikoaren zigor gogofa izango dira beren ordaintza iluna.

Azkenez begira dezaiogun Jesus'i, Jose ta Maria'ren men-

dean bizitzen; Jaungoikoa da, Jose ta Maria baño garaiagoa da, baña ala ere beti beren esana egiñez eta agindupean bizi da, gure ikasbide ta izpilu edeña izanik.

Oña bada al izan deten labuñena Sendi donearen bizitzako ikasbideak azaldu, berak beren bizitzan erakutzi digute eskonideak alkañentzat bear duten begirunez, okefen bat gertatu esker zer bidez eta zer ixiltasunez artu bear ditugun erabakiak, besteri azaldu gabe ta batez ere eskandalorik eman gabe, gertatu liteke bada eñi bateri eskandaloa ematen diona Jaungoikoaren begietan goñotagañiagoa izatea okeña egin duana bera baño; berak erakutsi digute baita ere gurasoak eta batez ere amak umeakin dituzten eginbear aundi eta edeñak eta semeak gurasoentzat bear degun begirune ta esker ona ta oñela Sendi doneak erakusten dizkigun bide eder aueri jaraitzen badiogu pake ta gozotasun edeñean biziko gera nekezko erbeste ta ibar onetan eta batez ere egundo amaituko ez dan betiko zoriona artuko degu Jaunaren eskuetatik betiko egun argi artan.

Ala izan bedi.

SAKRAMENTUEN ANAIDI DONEA'ren

AGINTZA

Lenengo Jaunartzea egiteko bear dan adiñaren gaian

Beñionaren (Ebanjelioa'ren) oñaldeak argi asko erakusten digute zenbateko maitasun bereziaz maite izan dituan umeak, Kristo gure Jaunak. Atsegin zitzaion berakin itzegitea; berai buru gañean eskuak jañi oi zizkien; berak laztandu ta bedeinkatzen zituan. Eta ikasleak Jaunagandik alderazitzen zituztenean, ez zuan au begi onez ikusten eta itzal aundiko itz auekaz zoñotz

esan zien: *Utzi zaiozute umeai nigana etortzen eta ez galerazi, berena bait da zeruetako eñeindia, (zoriondegia, eñialdea) (1).*

Zein ardura ta garantzi aundiaz begiratzen zion beren animen (gogoen) eñugabetasun eta eratasunari, argi asko aitortu zuan garai batean ume bateri beragana otsegin, eta bere ikasleen erdian jafirik, esanaz: *Egitan esaten dizutet, umeen antze-koak egin eta biurtzen ez bazerate, ez zerate sartuko zeruetako eñeindian. Ume au bezela apaltzen dana, bada, izango da zeruetako eñeinuean aundiena. Eta nere izenean oñelako ume bat bere ardurapean artzen duanak, neu artzen nau. (2)*

Eleiza Ama Donea, bere asiera-asieran Jesukristo'ren erakuspen auekiko ongi oroituaz, Eukaristi'ko Jaunartzearen bidez umeak Jesukristo'gana ekartzen arduratu zan, Jaunartze au bulañeko auañai berai ere emanaz. Onela egin oi zan Bataioan XIII'gañen gizaldira arteko erenuntzen (zeremonien) ia idazti guztietan erabakia dagoan bezela, ta eñialde batzutan luzarogoan iraun zuan oitura onek, gaur egunean ere oraindik iraunaz gerka'tar eta egutera'tañen artean. Bulañeko umeai, ordea, batez ere aingeruen ogia atzera bota ez zezaten, Eukaristi'ko Jauna ardoaren irudipean bakañik emateko oitura aukeratu zan asieratik.

Eta Bataioan ez ezik, bere ondorean ere sañitan umeak elikatzen ziran Ogi Zerukoiaz. Izan ere Eleiza batzuetan oitura izateraño eldu zan, Jaunartze donea auañai apaizen ondoren ematea, ta beste eleiza batzutan, aziak, adintsuak Jaunartu ondoren gelditzen ziran zatiak umeen artean banatzen ziran.

Geroago oitura au kendua izan zan lateratañen Eleizan, eta añezkero umeak ez ziran uñeratzen Mai Donera, beren ezaguera-ra eldu ta Sakramentu aundi onen ezagupena izaten asi arteraño. Eleiz-bilkura, Sinodo berezi, partikular batzuek artu zuten erabaki beñi au, ontzat artu zuan Letran'go IV'reñ Batzar Nagusi

(1) Mark., X, 13, 14 eta 16.

(2) Mat., XVIII, 3, 4, eta 5.

Ekumenikoak (1.215'gafen urtean), legetzat emanaz XXI' ren eleizarau ospatsu ura, agindurik bertan, sinistunak ezaguerara eldu ezkeroko Aitortza'ko Sakramentua ta Jaunartze Donea egitera beartuak zeudela, itz auekaz: *«Sinistun guztiak naiz mutilak eta naiz neskatxak izan, ezagueradun adiñera edo edadera eldu ezkeroko, aitortu bezaizkie zintzoro beren apaizai, bakoitzak berenez nor bere pekatu guztiak gutxienez urtean bein, eta beren ordainez jartzen zaien garbaia, penitentzia betetzen arduratu bitez beren indarren neurian, begirunerik aundienaz arturik Eukaristi'ko Sakramentua gutxienez beñepein Paskuetan, apaiz aretxen iritzian eta beste zerbaitegatik puzkatean artu gabe egotea egokiago ez bada beintzat.»*

Ezaguerara eldu baño len umeai Eukaristia emateko antziñatik zegoan erabakia gaitzetsi gabe, Trento'ko Batzar Nagusiak ontzat artu zuan Letran'go Agintza ta beraren aurka jartzen ziranak gaitzetsi egin zituan, itz auekaz: *«Norbaitek ukatzen badu, kristau sinistun guztiak eta bakoitzak naiz neskatxa ta naiz mutila izan, ezagueradun adiñera eldu ezkeroko, urtero, gutxienez beñepein Paskuetan, Eleiza Ama Donearen aginduz Jaunartzera beartua dagola, gaitzetsia bego.»*

Onela, bada, oraindik indafean dagoan aitaturako Letran'go Agintza oren bidez, kristauak beartuak daude, ezagueradun adiñera eldutzen diran zoritik, urtero gutxienez bein Aitortza ta Jaunartze'ko Sakramentuak artzera.

Baña ezaguera asitzen daneko adiña edo edadea egoki erabaki naian, oker asko ta negargafiak sartzen joan dira aspaldiko gizalditan. Batzuek Aitortza'ko Sakramenturako adin jakin bat egokitu zuten eta beste bat Jaunartze Donerako. Beren iritziz, Aitortzako Sakramentua artzeko adin egokia zan, ona ta txafia berezten zekitenekoa, ta beragatik ogena, pekatu egiteko gai ziraneko adiña; Jaunartzeko, beñiz, adin geiago eskatzen zuten, sinismeneko egien ezagupen osoagoa. Eta ofela, aureneko Jaunartzea egiteko amar urte egokitzen zituen batzuek, besteak amabi ta besteak amalau ta oraindik geiago ere

bai, urte gutxiagoko umeai Jaunartzea debekatuaz. Oitura onek, Sakramentu aundiakiko daukan bere azalezko begiruneaz, kalte aundiak ekañi zituan; Jesukristo'ren besotatik ume eñugabeak alde erazirik, bada, bañuko bizitzaren kemenik gabe azitzen ziran, eta ofegatik Kristo'ren laguntzik gabe azitako gaztedia, Mirari doneen gozotasunaz atsegindu baño len pekatuak beltzenetan jausten zan. Eta jakinduri aundiagoaz eta Aitortzarik arduratsuenaz aűneneko Jaunartzerako gertutzen badira ere, beti negargañia izango da aűneneko zintzotasunaren ondamena, one-nean oso-osorik iraungo zuana aűneneko urtetan Jauna artu izan bazuten.

Ez da gutxiago gaitzeztu bear dana leku batzutan dagoan oitura bat, au da, Aitortza donetik atzeraztekoa edo Aitortza'ko barkapena ukatzekoa, aűneneko Jaunartzea egiteko laintzat artuak izan ez diran umeai: bide onekin iristen dana da, egunetik egunera, beren animen kalte aundirako, pekatuan eta ogen lañien mendean lotzea.

Baña guztitan gaitzesgafiena, aűneneko Jaunartzea egin ez dutenak, Elizako Doneak eman gabe uztea da, leku batzutan egin duten bezela, ta onela aur bezela il eta lurperatuak izanaz, Eleizaren otoitzaldi ta barkapenik gabe gelditzen dira.

Kalte auek guztiak egiten dituzte, Aűneneko Jaunartzerako izugafizko gertuera bear dala, bide dan baño geiago esaten alegintzen diranak, oartu gabe ardura auek Jantzenisten iritxi okefetatik sortu zirala, berak uste zutelako Eukaristi Donea onbideen eta zintzotasunaren saria zala ta ez gizonaren argaltasunen sendagaia. Trento'ko Batzar Nagusiaren iritzia ta erakutsia zearo bestea izan zan, esatean Eukaristi Donea eguneroko eñuetatik ateratzeko ta ogen lañietatik uñutiratzeko indargaia zala, ta bere erakuspena oraindik orain alegin geiagoz ezafia izan da Batzar Nagusiaren Anaidi Doneak 1925'ko Lotazila'ren 26'an emandako Agintzan, bere bidez guztiai lortuaz, iritxiaz, naiz aziak, adintsuak eta umeak izan, eguneroko Jaunartzea bi

baldintza edo kondiziopean, au da: Jaunaren grazia edo adizkidetasuna ta asmo zuzena.

Eta egia esateko, ez degu ikusten bidezkoa oraingo umeai, beren aurenko zintzotasun eta garbitasun zoriontsua galtzeko ainbeste elofio ta gaiztorako sare inguraturik arkitzen diran umeai, izugarizko gertuera eskatzea; batez ere gogoan artzen badegu len, antxiñako aldi aietan bulafeko aukai ere ematen zitzaizkiela Eukaristi Doneko apurtxoak.

Guk beztutzen ditugun geiegikeriak sortu dira, Aitortza'ra-ko adin bat eta Eukaristi'rako beste bat jartzen dutenak, bear dan jakinduriz eta zuzentasunez erabakitzen jakin izan ez dutelako zein dan zeatz ezaguerazko adiña. Letran'go Batzar Nagusiak adin berbera eskatzen du bi Sakramentu oietarako. Ofegatik, bada, umeak ona ta txafia berezten dakian adin ura, Aitortza egiteko adin egokia derizkiogun bezela, era berean Jaunartzea egiteko adin egokitzat euki bear degu umeak eguneroko ogitik Eukaristi'ko Ogi donea berezten dakian adin ura, ta au, umea ezaguerara iritxi dan garaia bera da.

Ofelaxe ulertu zuten Letran'go Batzar Nagusiaren Agintza garai artako idazle nagusienak eta kristau sinistunak; Eleizaren kondairan edestian garbi azaltzen da, bada, XII'gafen gizalditik, Eleiz-biltzar, Sinodo ta Gotzaien Erabaki askok ontzat artzen zutela zazpi urteko umeak aurenko Jaunartzea egitea. Gaiñera badago gai onetan itzal aundiko jakintsu baten azalpen bikaña, Akino'tar Tomas doneak, bada, auxe dio: «*Umeak ezaguera izaten asten diranean eta bere bidez Eukaristi'ko Sakramentuarentzat beren baruan jaiera somatu lezaketenean, orduan eman lezaieke berai Sakramentu au.*» Ledesma'k ere, era onetan itz egiten digu: «*Ao batez guztiak diotena aitortzen eta baiezten det, esatean, Eukaristi'ko Sakramentua ezaguera duten guztiai eman bear zaiela ta bera iristen duten bezin laister, naiz eta ilun samar ezagutzen badu ere umeak zer egiten duan.*» Gai au bera azaltzen du Bazkez'ek itz aukaz: «*Umea ezaguerara eldutzen dan zorian, Jaungoikoaren*

*eskubide berberaz beartua gelditzen da, ta Eleizak iñola ere ezin eman lezake bear ori bete gabe uzteko baimenik». Auxe bera erakutsi zigun Antonio doneak ere, onela idatziaz: «*Umea gaitz egiteko lain danean, au da, ogen lafia egin lezakenean, Aitortza'ko agintera beartua dago ta beraz Jaunartze'kora ere bai*». Ondoren au bera ateratzen da Trento'ko Batzar Nagusitik; len aitatutako XXI^{ren} batzaldian, 4^{ren} buruan esatean bada «*ezaguerarik gabeko afaak, batere ez dutela Jaunartzea'ren bearik*» ez du ematen beste afazoi edo argitasunik, pekaturik ezin egin lezaketela izan ezik «*adin edo edade artan, dio, Jaungoikoren semetzarako berak artua daukaten goiargi edo grazia ezin galdu lezaketelako*». Onek azaltzen digu zein dan Batzar Nagusiaren iritzia, au da, umeak Jaunartu bear dutela ta Jaunartzera beartuak daudela ogen lafia egiñaz, goiargia edo grazia galdu lezaketenean. Berdintsuak dira XIII^{ren} Benedikto'ren garaian egin zan Erroma'ko Batzar Nagusiaren itzak, berak erakusten du Eukaristi Donea artzeko beafa asten dala «*mutilak eta neskatxak ezagueradun adiñera eldutzen diranean, au da, Jesukristo gure Jaunaren egiazko Gorputza dan Sakramentuko janaria, eguneroko ta lufeko ogitik berezteko gaitasuna duten adin artan eta Jaungoikozko Sakramentu artara bear dan jai-eraz eta begirunez uferatzen dakitenean*. Kristau-ikasbide (dotriña) eromatafaak ere onelaxe esaten du: «*Zer adiñean eman bear zaien umeai Jaunartze donea iñork ezin erabaki lezake obeto bere aitak eta umeak aitortzen (conpesatzen) dituan aitorlariak baño*. Auei dagokie, bada, aztertu ta jakitea ume berberakandik, Sakramentu afigafi onen ezagupen eta jaierrarik baduten».*

Esandako guztitik, bada, ateratzen da, Jaunartzeko adin egokia dala, umeak Eukaristi'ko Ogia eguneroko ogiagandik berezten dakian ura, era ofetan (zaletasunez) jaiiraz mai done-ra (aldarera) uferatu dedin. Ez da bear, bada Sinismeneko egien ezagupen oso-osoa, ezta ezaguera bete-betea ere. Beraz zearo gaitzetsi bear da, adiñean (urtetan) auferago sartu arte

Jaunartzea luzatzea ta itxarotea, ta Bidalien Aulkizaiak bein baño geiagotan gaitzetsi du au. Ala egin zuan Aita Done IX^{ren} Pio gogoangafiak 1.886^{gafen} urteko Epaila^{ren} 12^{an}, Antoneli kardenalaren bidez Prantzi^{ko} Gotzaiak idatzitako eskutitzean, gogor gaitzetsiaz eleiz-bafuti batzutan jañi zan oitura, au da, aufeneko Jaunartzea adin jakin eta zerbait auferatura arte luzatzea. Batzar Nagusiaren Anaidi Doneak, 1851^{gafen} urteko Epaila^{ren} 15^{an} zuzendu azi egin zuan Roan^{go} goterkiko (probintziko) Batzañaren erakaki bat, amabi urte baño lenagoko umeai lenengo Jaunartzea egitea debekatzen zuana. Orobat egin zuan Sakramentuen Zaitza^{ko} Anaidi Done onek Strasburgo^{ko} erausian 1.910^{fen} urteko Epailaren 25^{an}, Batzar onek galdetu zuanean, amabi ala amalau urteko umeak lenengo Jaunartzea egitera artu ote zitezkean, onela erantzunaz: *«Mutilak eta neskatxak irizmeneko adiñera eldutzen diranean, au da, ezaguerara, Mai Donean artu egin bear dira.»*

Gauza auek guztiak ondo gogoan artu ondoren, Sakramentuen Zaitza^{ko} Anaidi Doneak, 1.910^{fen} urteko Uztaila^{ren} 15^{gafen} egunean egin zuan Batzaldi nagusian, garai egokia zala uste izan zuan, umeen lenengo Jaunartzea^{kiko} arau auek jartzea, len aitatutako geiegikeri oiek ayenatzeko ta umeak beren urterik samufenetik Jesukristo^{rekin} batutzea iristeko, bere Bizitzaz bizi ditezen eta beren ondamenerako, irotzarako ifikitoai gogor egiteko aterpe ta babesa arkitu dezaten, eta arau auek osoro bete beañoak dira:

1.^o Umea ezagueran asten dan garaia da adin egokia, naiz Aitortza ta naiz Jaunartzea egiteko, au da, zazpigañen urte alderuntz, batzutan zerbait geroago ta baita lenago ere, garai onetatik asten da Aitortza ta Jaunartzeko aginteak bete-beaño.

2.^o Ez da beañoa lenengo Aitortza ta lenengo Jaunartzea egiteko kristau-ikasbidea oso-osorik eta zearo jakitea. Ala ere, umeak ikasten jardun bear du gero, ta mañarik maña kristau ikasbide guztia, bere adimena argitzen dijoan neufian.

3.^o Lenengo Jaunartzera egokiro gertutzeko, umeak Erli-

jio, Uzkurtz gaietan jakin bear duana da, norberari dagokion argitasunez, bere burua olentzatzeko (salbatzeko) bide beahez bearak diran Erlijio'ko mirariak (jakitea) eta gañera Eukaristi'ko Ogia egunerokotik eta gorputzaren ogitik bereztea, era onetan Eukaristi donera uferatu dedin bere adiñari dagokion jaieraz.

4.^a Umeak Aitortza ta Jaunartzea egitera beartzen dituan agintea, era berezi batean beren ardura euki bear dutenen gain dator, au da, beren guraso, aitorlari, irakasle ta pafoakoaren gain; baña lenengo jaunartzea egiteko gai ba ote diran erabakitzea, kristau-ikasbide Efoma'tařak dionez, gurasoai edo bere ordekoai ta aitorlariari dagokie.

5.^a Pafoakoak arduratu bitez urtero bein edo askotan umeen Jaunartze Nagusia adierazi ta eragiten, auetara ontzat artuaz lenengo Jaunartzea egin bear duten umeak ezezik, baita beren guraso ta aitorlariaren aginduz, beren lenengo Jaunartzea len egin zutenak ere. Egun batzuetan erakutzi ta gertu bitzate batak eta besteak.

6.^a Umeen ardura dutenak alegiña egin bear dute, beren lenengo Jaunartzearen ondoren, sařitan eta al badute egunero uferatu ditezen Mai Donera, Jesukristo'ren eta Eleiza Ama Donearen naia dan bezela ta Jaunartze oiek beren adiñari dagokion jaieraz egin erazten. Oroitu bitez gañera, auen ardura dutenak, zein ajola aundiko beařa dan, ume guztientzat egiten dan kristau-ikasbidearen azalpena entzutera beren umeak joaten ote diran begiratzea, ta au ezin bete al balezakete, eman bezaiote kristau-erakutsia beste eraren batean.

7.^a Umeak, bein ezaguerara eldu ezkeru, Aitortza'rako aintzat ez artzea edo beren ogenak bein ere ez bakartzea oitura zearo galgařia da; beraz lekuetako gotzaiak ardura euki bear dute oitura au kentzeko, ala bear balitz beren eskubidez dauzkaten neuřiak arturik.

8.^a Geiegikeri oso gořotagaria da Eleizakoak eta Azkenigurtzia ez ematea umeai ezaguerara eldu ezkeru ta auřen eleiz-

kizunaz lufematea. Leketako gotzaiak gogor zigorkatu bitzate oitura auek uzten ez dituztenak.

Anaidi Done onetako Aita kardenalak agindutako gauza auek guztiak, Aita Done X^{ren} Pio'k ontzat eman zituan il onen 7'gañen eguneko entzunaldian, adikuntzan eta Agintza au eman eta bañeatzea agindu zuan. Leketako gotzaiak agindu zien gañera, aitatutako Agintza au adierazi zezaiela pañoko ta apaizak ezezik, eñari ere ta oneri urteoro bere eñi izkuntzan irakurtzea nai izan zuan Paskua'ko garaian. Leketako gotzai auek berak, bost urtetik bost urtera, beren Eleiz-bañutiko gora-berakin batean, agintza onen betekizunaren erantzuna ekañi bearko diote Aulkizai Doneari.


Ezerk bere aurka eragozten ez duala.

Eñoma'n emana, Anaidi Done onen etxean, 1910^{ren} urteko Dagoniñaren 8'an.

FERATA D. kardenal Jauna, Buruzaia.

F. GIUSTANI, Idazkaria.

Laus Deo





ATALEGIA

Oñaldeak

Eskeintza	3
Itz bi	4
Etorkunde'ko I Igandea	5
» II »	11
» III »	17
» IV »	22
Egoañien Zortziuñenpeko Igandea	29
Epifani Ondoreko I	40
» » II »	46
» » III »	53
» » IV »	58
» » V »	63
» » VI »	70
Irurogeta Amañen	75
Irurogei-uñen	82
Beñogeta Amañen	88
Bulda Donea	94
Andre Mari (Birjiña)	99
Ama Mariaren Sorkunde Betargea	106
Egoañi Jaia	111
Urtearen Asieran	117
Jesus'en Izen Gurena	122
Sendi Donea	127
Sakramentuen Anaidi Donea'ren Agintza	136

